

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

Zioen azalpena

Foru lege proiektu honen xedea Nafarroako Gobernuaren zerga arloko politika definitu eta betearaztea da, bi helburu nagusirekin: batetik, diru-sarrera publikoen bilketa hobetzea, zerbitzu publikoak indartzeko, orokorrean, eta, bereziki, urgentzia sozialeko egoeren kontrako borrokari dagokionez; bestetik Nafarroako Foru Komunitateko zerga sistemaren ekitatea eta progresibitatea sendotzea.

Testuinguru horretan, foru lege honen helburua zenbait arau aldatzea da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zena; Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea; Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea; Kooperatiben Zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia; Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia; Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea; Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea.

Foru legearen egitura hauxe da: hamabost artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, salbuespen berriak sartu dira, hala nola banku-fundazioek emandako bekak eta bortxazko delituen eta sexu-askatasunaren kontrako biktimei emandako laguntzak. Halaber xedatu da ez direla sartuko zerga-oinarrian nahitaez erantzun beharreko estatistiketan laguntzen dutenek jasotako kalte-ordainak, eta dibidendu digitalaren liberazioak ukitutako eraikinetan telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak jaso edo ikusteak eragindako kostuak apaltzeko xedea duten laguntzak ere. Ere horretan berean, atzerrian egindako lanengatik jasotako lan etekinen salbuespena aplikatzeko baldintzak eguneratu dira.

Horrez gain, pentsio planetarako ekarpenen mugak 5.000 eurora jaitsi dira (urtean), oro har, eta 7.000 eurora (urtean), berrogeita hamar urtetik gorako partaide edo mutuetako kideen kasuan.

Zergaren progresibitatea handitzeko asmoz, likidazio oinarri orokorraren karga tasen eskala aldatu da. Eskalan egindako aldaketek eragina dute bai zenbait tarteren konfigurazioan bai horietako batzuetan aplikatu beharreko karga-tasan.

Tarteen egiturari dagokionez, ez da kopurua aldatzen, baina lehenbiziko bost apalenak gorantz biribiltzen dira, eta, horren eraginez, horietan tributazioa jaitsi egiten da. Bestetik, zazpigarren eta zortzigarren tarteetako zenbatekoa aldatzen da, eta hiru altuenetan ez da aldaketarik egiten.

Tarte bakoitzaren tasa marjinali dagokienez, bosgarrenetik aurrera igo egiten dira. Horrela, ehuneko 36koa izatetik ehuneko 36,5ekoa izatera pasatzen da. Hurrengoa ehuneko 40koa izatetik ehuneko 41,5ekoa izatera pasatzen da. Zazpigarrena ehuneko 42tik 44ra handitzen da, eta zortzigarrena ehuneko 45etik 47ra. Bederatzigarren hiru puntu handitzen da, ehuneko 46tik 49ra; hamargarrena, hiru puntu eta erdi, ehuneko 47tik 50,5era; eta azkena lau puntu igotzen da, ehuneko 48tik 52ra.

Ikusten denez, orokorrean eskalako progresibitatea handitzen da: lehendabiziko lau tarteetan tributazioa pixka bat jaisten da, eta handitzen joaten da zazpi altuenetan; tasa marjinal altuena ehuneko 48koa izatetik 52koa izatera pasatzen da.

Eta gainera, aurrezkien likidazio oinarri bereziaren gaineko zergapetzean beste tarte bat gehituko zaio eskalari, eta karga tasak handitu dira. Horren arabera, 6.000 eurotik 10.000 eurora bitarteko tarteak ehuneko 21eko karga izanen du; 10.000tik 15.000ra bitarteko tarte berriak ehuneko 23koa, eta 15.000 eurotik gorakoak, ehuneko 25ekoa.

Funtsezko berritasunetako bat hauxe izanen da: gutxieneko pertsonalen eta familiakoen zerga-oinarrian egiten zen murriztapena kuota osoan egin beharreko kenkari bihurtzen da. Edozein zergaren zergapetzeak pertsonen egiazko ahalmen ekonomikoa kontuan hartu behar duela oinarritzat harturik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren diseinua egiterakoan ez da ahantzi behar ahalmen hori baldintzatzen duten faktore garrantzitsuenak loturik daudela egoera pertsonal eta familiarrekin, begi bistakoa delako pertsona baten egoera nolakoa izan, haren tributu ahalmena edo ordainketa ahalmena halakoa dela (hala nola, adina, desgaitasuna, seme-alaben kopurua, familia unitatea izatea nahi ez). Norberaren eta familiaren egoeraren arabera kontribuzio ahalmen desberdinak modu egokian neurtzeko, Ogasun Publikoaren doktrinan ikuspegi desberdinak daude egoera pertsonal horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian edo kuotan aintzat hartu behar diren edo ez ezartzeko garaian.

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak, doktrina zientifikoaren zati handi baten iritziarekin bat, ulertzen du gutxieneko pertsonalak eta familiarrak zerga-oinarrian kokatzeko sistemak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren progresibitatea itxuragabetzen duela eta zergadunen arteko berdintasun printzipioa kaltetzen, egoera pertsonalak eta familiarrak zerga-oinarrian murriztapenez eginez kontaktzea onuragarria delako errenta hartzaile handientzat, subjektu pasiboei aplikatu beharreko karga-tasa marjinala murrizten baitu. Horregatik, Ogasunaren arloan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egoera pertsonalak eta familiarrak kontuan hartzeko, eta zerga modu zuzenagoan konfiguratzeko, ekitatea handitzeko xedeaz, erabaki du egoera pertsonal eta familiar horiek kuotako kenkari gisa aurreikusi behar direla eta ez zerga-oinarriaren gaineko murriztapen gisa. Horregatik, zerga-oinarriaren murriztapen horiek kuota osoko kenkari bihurtzeko, 0,25ekin biderkatu dira 2015ean indarra izan duten gutxieneko pertsonal eta familiarren zenbatekoak. Gainerakoan, kuota osoaren gaineko kenkaria aplikatzeko baldintzak ez dira ukitu.

Antzeko arrazoiengatik, laneko kenkaria arautzen duen 62.5 artikulua aldatu da. Lan etekinen gaineko kenkaria progresiboagoa izan dadin, kenkariaren tarteak handitu dira. Horrez gain, kenkari berriaren zenbatekoa handitu egin da etekinen beheko tarteetan eta murriztu, aldiz, goiko tarteetan.

Aldaketa nabarienak hiru tartetan gertatzen dira:

a) Tarte apalenean: 9.100 euroko edo gutxiagoko etekinetan kenkaria 1.290 eurotik 1.400 eurora igoko da.

b) Laugarren tartean: 35.000,01 eurotik 50.000 eurora bitarteko tartean, 700 euroko zenbatekoaren tarteak murrizten joanen da, 400 euroraino. Gogoratu behar da indarreko kenkariarekin zenbatekoa kasu guztietan 700 eurokoa dela.

c) Bosgarren tartean: 50.000,01 eurotik gorako etekinetan: 400 euroko kenkaria. Komeni da zehaztea indarreko kenkariarekin zenbatekoa kasu guztietan 700 eurokoa dela.

Beste alde batetik, ohiko etxebizitzaren erosketagatik egiten den kenkarian erreforma sakona egin da. Oro har, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria egiteko eskubidea izanen du, baldin eta babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen baditu. Beraz, nabarmen murrizten da kenkariaren aplikazio esparrua, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera etxebizitza babestu mota horiek (Nafarroan Etxebizitzarako Eskubidea arautzen duen maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean definitzen diren moduan) erosteak baizik ez duelako eskubidea emanen ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria aplikatzeko. Bestetik, kenkaria aplikatu ahal izateko gehieneko errenta batzuk mantentzen badira ere, aldaketa nabarmenak egin dira gehieneko zenbateko horietan eta horiek kalkulatzeko arauetan. Gutxieneko pertsonalak eta familiarrak ezin izanen direnez aurrerantzean zerga-oinarritik deskontatu, orokorrean aurreko egoera berriarekin berdintzeko eta kalkulua errazteko, kenkaria aplikatzeko gehieneko errenten muga zehazteko kontaketa berrian, oinarria subjektu pasiboaren oinarriak dira (hau da, Zergaren Foru Legearen 53. eta 54. artikuluetan zehaztutakoak, konpentsazioko pentsioak kenduta, halakorik dagoenean), eta gehieneko zenbateko hauek ezartzen dira banakako tributazio araubidean: 24.000 euro, orokorrean; 27.000 euro, seme edo alaba bat edo bi dituzten subjektu pasiboentzat, horiengatik kenkaria egiteko eskubidea badute; eta 30.000 euro, familia ugarien kasuan. Baterako tributazio araubideari aurreko gehieneko zenbatekoak halako bi dagozkio. Gehieneko zenbateko horiek zehazteko, kontuan hartuko dira, halaber, subjektu pasiboaren edo haren ondorengo ahaideen desgaitasuna, horiengatik kenkaria egiteko eskubidea duen kasuan.

Gaur egun kenkaria aplikatzen duten subjektu pasiboek kalterik ez egiteko, bi araubide iragankor arautzen dira kenkaria aplikatzeko, bata 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberitutako etxebizitzaren kasuan, eta bestea data horretatik 2015eko abenduaren 31 arte erosi edo zaharberitutakoen kasurako. Alde batetik, etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberitu zuten subjektu pasiboek egoera lehengo bera da. Hau da, kenkaria 2012ko abenduaren 31n indarra zuen testuan jasotako baldintza eta betebeharren arabera aplikatzen jarrai dezakete. Bestetik, araubide iragankor berri bat ezartzen da 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte erosi edo zaharberitutako etxebizitzetarako kenkaria aplikatzeko. Kasu horretan, etxebizitza 2013an, 2014an edo 2015ean erosi edo zaharberitu duten subjektu pasiboek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzen ahalko dutela kenkaria 2015eko abenduaren 31n indarra zuten baldintza eta betebeharrak betez gero, baina berezitasun honekin: errenten gehieneko kopuruak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera indarra izanen duen araudian ezarritakoak izanen dira, eta oinarriak araudi horretan bertan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

Era berean, baterako tributazio araubideari aplikatu beharreko arauetan doikuntzak egiten dira. Lehenengo eta behin, ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkaria aplikatu ahal izateko gehieneko oinarriak zein diren zehazteko kontaketa aldatu denez, 75. artikuluko 1. araua aldatzen da. Bigarrenik, gutxieneko pertsonal eta familiarrengatik murriztapenak kuotako kenkari bihurtu direnez, 6. araua kendu behar da, eta 7. arauaren edukia aldatu, eta, hortaz, 7. araua 6. araua izanen da aurrerantzean; 6. arauaren testu berriaren arabera, guraso bakarreko familietan amaren edo aitaren gutxieneko pertsonalaren igoera, zerga-oinarrian 2.400 euroko murriztapena eragiten zuena, kuotan egin beharreko 600 euroko kenkari bihurtu da.

PFEZaren zergapetzean gertatzen diren aldaketa garrantzitsuen ondorioz, lan etekinen gaineko atxikipenen taula egokitu beharko da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera. Ondasun higigarrien kapitalaren etekinetan, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo itzulketen ondoriozko ondare-gehitzeetan, sarietan, ondasun higiezin errentamendu eta azpierrantamenduetan eta ondasun higiezin kapitalaren bestelako etekin batzuetan egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren ehunekoa ere aldatzen da.

Aurrekoaz gain, deslokalizazio interesatuen kontrako borrokari begira, egoitza atzerrira aldatzeak ekarritako ondare gehikuntza jakin batzuk zergapetzeko sistema berezi bat ezartzen da. Sistema hori "tax exit" izeneko da. Kasua hauxe da: zergadunak izaera hori galtzen badu egoitza atzerrira aldatzeagatik, ondare gehikuntzat hartuko dira zergadunaren titularitateko edozein entitate motaren akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balioaren eta haien erosketa balioaren arteko alde positiboak, baldin eta, zerga honen aitortpena aurkeztu beharreko azken zergaldia baino lehenagoko hamabost zergaldietatik hamarretan, gutxienez, zergaduna egoiliarra izan bada, eta gainera inguruabar hauetakoren bat tartean bada:

a) Akzio edo partaidetza guztien merkatuko balioa 4.000.000 eurotik gorakoa izatea.

b) Aurreko a) letran aurreikusitakoa betetzen ez denean, zerga honen aitortpena aurkeztu beharreko azken zergaldiko sorrarazpen datan entitateko partaidetza ehuneko 25etik gorakoa izatea, entitate horretako akzioen edo partaidetzen merkatuko balioa, gutxienez, 1.000.000 eurokoa bada.

Azkenik, xedapen iragankor bat ezarri da 2015eko aitortpenean kenketak egin ahal izateko kontzeptu hauengatik: sindikatu eta elkargoen zenbait kuota, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta 2014ko zergaldian kenketarik eragin ez duten dohaintzak, betiere baldintza bat betetzen bada, alegia, entitate jasotzaileek horien aitortpena egitea 2015eko zergaldirako aurkeztu behar duten eredu informatiboan aurreikusitako moduan. Beraz, kuota edo dohaintza horien kenketa 2015eko aitortpenean egin ahal izateko, kuota edo dohaintza horiek jaso dituzten entitateek haien aitortpena egin beharko dute 182 eredu informatiboan, 2016ko urtarrilean aurkeztu behar duten horretan.

Ondarearen gaineko zergari dagokionez, enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubideen tributu arloko tratamendua aldatzen da, bai eta enpresa jardueretan aritzen diren entitateetako partaidetzen tratamendua ere, entitate horietan subjektu pasiboak zuzendaritza lanak betetzen baditu. Arauaren aldaketaren funtsa da ondasun, eskubide eta partaidetza horiek zerga-oinarriari loturik egonen direla hemendik aurrera, ez salbuetsirik, baina haien gainean kenkaria egiten ahalko da, kuota osoan, ondasun, eskubide eta partaidetza horien balioaren lehenbiziko 500.000 euroei dagokien zati proportzionalaren ehuneko 100ekoa, eta 500.000 eurotik gorako zenbatekoari dagokion kuotaren ehuneko 80koa. Horrenbestez, subjektu pasiboak kenkaria aplikatzen ahalko du zergaren kuotan, enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubide horien zenbatekoari dagokion zati proportzionalan. Horrela, ondasun eta eskubide horien zergapetzea arinago izanen bada ere, ez dute zergaren progresibitatea jasanen, subjektu pasiboaren tasa marjinala ez baita aldatuko, izan ere, definizioz, zergaren kuota osoan egindako kenkariak zergadun bakoitzaren batez bestekotik datorren kuota horren zenbatekoa gutxitzen dute eta ez dute eraginik tasa marjinalan.

Era berean, zerga honen ekitatea eta progresibitatea hobetze aldera, gutxienerako salbuetsia gutxitu egingen da: gaur egun 800.000 eurokoa da eta aurrerantzean 550.000 eurokoa izanen da. Horrela, zergaren likidazio oinarria zerga-oinarriari 550.000 euro kenduta ateratzen dena izanen da.

Bestetik, asmo berarekin gutxituko da zerga ezkutua izeneko. Jakina denez, Ondarearen gaineko Zerga arautzen duen Foru legearen 31.1 artikulua testu indardunean kuota osoaren lehen muga bat dago: kuota oso hori, PFEZaren kuota osoarekin batera, ez da PFEZaren zerga-oinarriaren baturaren ehuneko 65etik gorakoa izanen. Horrez gain, arau horren beraren 31.2 artikuluan beste muga bat dago: bi kuoten batura (PFEZarena eta Ondarearen gaineko zergarena) PFEZaren zerga-oinarriaren ehuneko 65eko mugatik gorakoa bada, ondarearen gaineko zergaren kuota gutxitu egingen da, muga horretara iritsi arte, baina murriztapena ez da ehuneko 75etik gorakoa izanen. Lege aldaketaren funtsa bigarren muga hori ehuneko 75etik ehuneko 65era jaistea da. Beraz, PFEZaren eta ondarearen gaineko zergaren kuoten baturak PFEZaren zerga-oinarriaren ehuneko 65eko muga gainditzen badu (ondarearen gaineko zergaren 31.1 artikulua), subjektu pasiboaren ondarearen gaineko zergaren kuota osoa murriztapena ez da ehuneko 65etik gorakoa izanen, eta, horrela, subjektu pasiboak ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren ehuneko 35aren gainean tributatu du gutxienez. Horren helburua da ondare handien titular direnek ekarpen handiagoa egitea zerga honetan.

Sozietateen gaineko zergaren esparruan, aldaketek helburu desberdinak dituzte, horien artean zergaren diru-bilketarako prestazioak hobetzea, batetik, eta, bestetik, Nafarroako Gobernuaren oinarri diren alderdien akordio programatikoak ezarritako funtsezko ildoekin bat etortzea.

Horrez gain, xede nagusi hauek nabarmendu behar dira:

Lehena. Zerga araudia egokitzea kontabilitatearen araudian gertatu diren aldaketetara: zehazki, bizi erabilgarri mugagabea duten aktibo ukiezinen kontabilizazio berrira.

Bigarrena. Zerga estatuko araudian gertatu diren aldaketetara egokitzea, kasu batzuetan beharrezkoa delako foru araudira ekartzea Hitzarmen Ekonomikoak hala eskatuta (bereziki, zerga-baterakuntzaren araubidean eta enpresak birmoldatzeko eragiketen araubidean).

Beste gai batean, aldaketa nabariak egiten dira 40. artikuluan, aurreko zergaldietako likidazio oinarri negatiboen konpentsazioa arautzen duen horretan. Testu berriarekin, aurreko ekitaldietako likidazio oinarri negatiboen konpentsazioa mugatzen da, konpentsazio horren aurreko aldiko zerga-oinarriaren ehuneko 70era hain zuzen ere, eta konpentsatu daitekeen gutxienez milioi bat eurokoa izanen da.

Enpresa handien karga tasa ere aldatzen da, eta ehuneko 25etik ehuneko 28ra igotzen da. Ukitutako subjektu pasiboak izanen dira, oro har, aurre-aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia hamar milioi eurokoa edo handiagoa izan dutenak.

Karga-tasari dagokionez, nabarmendu daiteke halaber kreditu kooperatibek eta rural kutxek ehuneko 25eko tributazioa izanen dutela aurrerantzean, kooperatibaren emaitzetan nahiz kooperatibaz kanpokoetan. Bestalde, SICAV direlako sozietateen tributazioa karga-tasa orokorraren araberakoa izanen da. Jakina denez, kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek (SICAV izenekoak) zerga arloko tratamendu oso berezia zuten, ideia honetan oinarrituta: sozietateen gaineko zerga ez ordaintzea, (ehuneko 1eko karga-tasa sinbolikoa zuten), halatan haien tributazioa atzeratzeko, sozietate hauen bazkideek zergak ordaintzen zituztelako soilik sozietateek pilotutako erreserbak banatzen zituztenean edo bazkideek entitate horien akzioak eskualdatzen zituztenean. Ikus daitekeenez, tributazioaren atzerapen hori desfiskalizazio modu bat bihur zitekeen epe luzera. Arrazoi hori eta bazkideek egin zituzketen trikimailu batzuk, iruzurretik gertukoak, direla eta, komeni da tributaziorako sistema berezi-berezi hori indargabetzea.

Enpresa txikientzako eta mikroenpresa deitzen diren horientzako tasa murriztearen aplikazioaren oinarrian dagoen muina bere horretan uzteko asmoarekin, xedatzen da tasa murriztu horren aplikazioa entitate horien ohiko jardueraren emaitzen gainean egitea. Horrexegatik, zergaldian, zerga-oinarrian ohiko jarduerakoak ez diren emaitza ekonomikoek askoz pisu handiagoa izanez gero, ez dira aplikatuko tasa orokor murriztu horiek. Horretarako, hauxe ezartzen da: enpresa txikientzako eta mikroenpresentzako karga-tasa murriztu horiek aplikatuko dira, soilik, zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia (hau da, enpresaren ohiko jardueraren eragiketak), zergaldi horretako zerga-oinarriaren erdia denean gutxienez. Zehaztapen horren xedea da karga-tasa murriztua kasu batzuetan aplikatzeko aukera ezabatzea: adibidez, enpresaren ohiko jarduera oso txikia izan, baina plusbalia handia lortu denean ibilgetua besterentzearen ondorioz.

Egiazko edo gutxienezko tributazioa finkatzeari buruzko arauan ere aldaketa nabarmenak egiten dira. Alde batetik, arau berriarekin gutxienezko tributaziotik kanpo gelditzen da, soilik, ekitaldian I+G+b kontzeptuagatik aplikatu beharreko kenkari osoa, enpresa txikien kasuan, eta I+G+b kontzeptuagatik aplikatu beharreko kenkariaren erdia, enpresa handien kasuan. Hau da, zergapen bikoitza saihesteko kenkariak alde batera utzita, I+G+b arloko kenkariak soilik eragin dezake, aipatutako zenbatekoetan, egiazko tributazioa aipatutako gutxienezko hori baino txikiagoa izatea. Bestalde, gutxienezko tributazio hori ehuneko 13koa izanen dela finkatzen da.

Aktibo finko berriengatiko kenkari berriari dagokionez, asmoa da inbertsioaren xedea diren aktiboen helburua enpresaren ekoizpen jarduera sustatu eta handitzea izatea, eta ez soilik erabileraren poderioz amortizatutako ibilgetua berritzea. Hori dela eta xedatzen da inbertsioak, nahitaez, baldintza hau bete beharko duela zergaldian: ibilgetu materialaren eta higiezinetan egindako inbertsioen aurretiko kontabilitateko balioen baturaren ehuneko 10etik gorakoa izatea, amortizazioak kenduta. Ekitaldian egindako inbertsioen zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa bada, aurreko ehuneko 5era murriztuko da.

Beste aldaketa garrantzitsua 67. artikulua eduki berria da: interes sozialeko deklarazioa duten kirol, kultura eta gizarte laguntzako jardueren babesletza kontratuetatik datozen publizitate gastuengatik kenkaria arautuko du. Horrela, babesletza kontratuetatik datozen publizitate gastuengatik kuotan eginen den kenkaria Zergaren Foru Legearen 67. artikulua horretan azalduko da, eta Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen 1986ko testu Bategineko 22.B) artikulua indargabetu eginen da (orain arte hor zuen tokia kenkariak). Labur esanda, babesletzari laguntzeko zerga pizgarria Zergaren Foru Legean sartuko da, beste edozein kenkariren izaerarekin eta luzaroan gelditzeko asmoarekin. Arautze horren edukia 2014an aplikatu zen berbera izanen da, funtsean.

Enplegua sortzeagatiko kenkariari dagokionez, hiru aldaketa mota egiten dira, kenkari hau eta kalitatezko enplegua sortzea elkarlotzeko xedearekin nagusiki. Lehenengo eta behin, kenkaria kontatzeko kontuan hartuko da soilik enpresan lan-kontratu mugagabea dutenen plantilla (ez da baldintza berria, aldatzen den arauan ezarria zegoelako lehenagotik), baina baldintza berria soldatarena da, lanbidearteko gutxieneko soldata gehi ehuneko 50 baino handiagoa izan beharko baita. Hau da, mugagabeko lan-kontratu guztiek ez dute kenkaria ekarriko, soilik LGS baino ehuneko 50 handiagoa den soldata dutenek (2015ean, 9.080,40 euro 14 saritan). Bigarrenik, kenkaria sendotzeko, enplegua mantendu beharreko epea ere handitu da, hamabi hilabetetik hogeita laura. Hirugarrenik, batez besteko plantillen alderaketa lan-kontratu mugagabea (ez plantilla osoko batez bestekoekin), eta LGS baino %50 handiagoa den soldata duten langileekin egiten da.

Zerga-baterakuntzako araubide berezian egiten diren aldaketen arrazoiak hau da: Estatuko araudira egokitu beharra dago, Hitzarmen Ekonomikoaren 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat. Arau horrek ezartzen duenez, "zerga taldea, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, menpekotasun maila eta talde barruko eragiketarik kontzeptuak definitzeko, Estatuak unean-unean ezarria duen araudiaren berdin-berdina aplikatuko da". Bestetik, komeni da Nafarroako araudia bat etortzea Estatuko araudiarekin zerga-baterakuntzaren araubidearen gaineko araudiaren gainerako alderdietan ere, Hitzarmen Ekonomikoaren aipatutako artikuluan aipatzen ez direnetan.

Aldaketek ez diete eragiten zerga-baterakuntzaren araubidearen oinarritzko arauari, eta hemendik aurrera ere zerga taldea osatzen duten entitateen banakako zerga-oinarrien batura aljebraikoaren emaitzaren gainean egituratuko dira, emaitza talde barruko eragiketei dagozkien ezabapenekin doitu ondoren. Nolanahi ere, aldaketa garrantzitsuak egiten dira baterakuntzaren perimetroari eta doikuntzak zerga-oinarrian zehazteari dagokienez.

Arrazoi berberengatik, aldaketak egiten dira birmoldatzeen araubide berezian, hau da, bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta baloreen trukearen gaineko araubide berezian. Hitzarmen Ekonomikoaren 47. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak onetsitako araudiaren edukia lurralde komuneko araudiaren eduki bera izanen du bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta baloreen trukearen gaineko zerga araubide bereziari dagokionez, bai eta Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera sozietate europar bat edo sozietate kooperatibo europar baten helbidea aldatzeari aplikatu beharrekoari dagokionez ere. Beraz, Estatuko araudian gai honetan egindako aldaketak Nafarroako araudian sartu beharko dira.

Aldaketa nabarmenena hau da: hasiera batean, zerga araubide honen menpeko birmoldatzeetan araubidean bertan ezarritako atzeratze araubidea aplikatzen da, non ez den kontrakoa berariaz adierazten zerga administrazioari egin beharreko jakinarazpenean. Hortaz, araubideari uko egin ezean, bat-egiteetan eta zatiketetan jasotako ondasun eta baloreak entregatutako zerga balioaren arabera baloratuko dira zergaren ondorioetarako, eta entregatutako baloreen erosketa data ere mantenduko da. Beste aldaketa garrantzitsu bat hau da: zerga administrazioak egindako egiaztapen lanen ondorioz erabakitzen badu zerga araubide berezia osotara edo zati batean aplikatzerik ez dagoela, lortutako zerga abantailak sortutako ondorioak ezabatuko dira, horiek bakarrik.

Azkenik, aipatu beharra dago enpresa sustapeneko sozietateen araubide berezia desagertzen dela. Ageri denez, araubide horrek ez du eragin handirik izan Foru Komunitateko enpresa arloko dinamizazioan eta ez du enplegua sortzea ere lortu modu nabarmenean. Gainera, ikusi da araubide horren babesean egindako enpresa arloko eragiketa batzuek kalte handia egin dietela Nafarroako Zerga Ogasunari ordaindu beharreko zerga-oinarriei. Arrazoi horiengatik, egokitzen hartzen da araubidea ezabatzea, araubide iragankor bat arautzea galarazi gabe.

Kooperatiben zerga araubideari dagozkionez, aldaketa funtsezkoena hau da: entitate hauen gaineko zerga arloko legeetan sartzea Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen Foru Legearen 40. artikuluan likidazio oinarri negatiboak murriztearen arloan egindako aldaketak, kontuan harturik, halere, kooperatibetan kuota negatiboak konpentsatzen direla, ez likidazio oinarri negatiboak. Horrekin bat, zergaldiko konpentsazio muga konpentsatu aurreko kuota osoaren ehuneko 70 izanen dela ezartzen da. Horrekin batera adierazten da konpentsatzen ahalko diren kuota osoen zenbatekoa izanen dela, edozein kasutan, milioi bat euro entitatearen batez besteko karga-tasarekin biderkatuta ateratzen dena.

Oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zergaren arloan, zenbait presuntzio eta arau sartzen dira, zerga saihesteko trikimailu batzuei aurre egiteko xedearekin. Horrela, eguneroko bizitzan aski ohikoa den kasu batean irabazizko eskualdaketa presuntzioa ezartzen da: aurreko ahaideak, ondorengo ahaide adingabearen ordezkari den aldetik, ondasun bat erosten du kostubidez berak ordezkatzeko duenarentzat. Kasu horretan, iuris tantum presuntzioa ezartzen da, hau da, kontrako froga onartzen duena, alegia, horren aurretik ondorengo ahaidearen aldeko irabazizko eskualdaketa gertatu dela eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioa adinakoa.

Xede berarekin, zergaren progresibitatea kaltetzen duen beste amarru baten kontra jotzen da. Kasua hau da: pertsona batek ondasun dohaintza bat egin nahi dio senide bati, eta horretarako erabiltzen duen bidea da dohaintza aitari egitea lehenbizi, eta aitak edo amak, berriz, beste seme edo alabari egiten dio dohaintza. Horrela, zerga ehuneko 0,8ko tasarekin ordaintzen da bi aldiz (bi dohaintza gurasoen eta seme-alaben artean), eta senideen arteko dohaintzen gaineko tributazio progresiboa saihesten da. Trikimailu hori erabil ez dadin, kasu horietan tributatzeko lehen dohaintza-emaiaren eta azken dohaintza-hartzailearen artean dagoen ahaidetasuna kontuan hartuko dela ezartzen da.

Aurrekoa gorabehera, foru lege proiektu honetan aldaketa nabariak egiten dira Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean, bi helburu nagusirekin: segurtasun juridikoa indartzea, araudiaren benetako esanahia argituz, eta zerga administrazioaren ahalmenak handitzea iruzurraren kontrako borrokari ekiteko. Ideia horrekin, agerian uzten da bi kontzeptu hauek bereizi beharra dagoela: batetik, zerga administrazioak egiaztatu eta ikertzeko duen eskubide-ahalmena, eta, bestetik, zerga zorra likidatzeko duen eskubide-ahalmena. Jakina da gaur egun eztabaida ugari izaten dela gai hauetan, batez ere honen inguruan: Administrazioak aukera izan dezakeen egiaztatutako preskribitutako aldietan sortu diren baina preskribitu gabeko aldietan konpentsatu edo aplikatu behar diren zerga kreditu jakin batzuk zuzenak diren.

Gai horri dagokionez, testuan zehazten da Administrazioak zerga zorra likidatzeko daukan eskubide-ahalmenearen preskripzioa desberdina dela eta, kontzeptuen ikuspegitik, ezin dela lotu edo estekatu egiaztatu eta ikertzeko eskubide-ahalmenearekin. Bigarren kontzeptu horrek, oro har, ez du preskribitzen, eta foru legeek berariaz ezartzen dizkioten mugak baizik ez du izanen, bai tributuei buruzko foru lege orokorrak bai tributuo bakoitzarenak.

Osagarri gisa, zordun nabarmenen zerrenda argitaratzeko modua eta baldintzak arautzen dira. Tributu ordainketen ez betetzeak 2017. urtean argitaratuko dira aurrenekoz, zordunen egoera zehazteko erreferentziako hasierako data gisa 2016ko abenduaren 31 hartuko baita. Neurri hori zerga iruzurraren kontrako borrokari zor zaio, eta haren helburua zerga betebeharrak borondatez betetzera bultzatuko duten prebentzio eta hezkuntza tresnak sendotzea da. Beste helburu bat du, tributu arloko egiazko kontzientzia zibikoa sustatzea alegia. Hori bai, tributu arloko datuen zabalkundearen eta haien pribatutasunaren garrantziaren arteko orekari eutsi behar zaionez, soilik argitaratuko dira nabarmentzen diren jokabideak, hau da, gaitzesgarriak direnak tartean zenbateko handiak direlako, eta Ogasun Publikoari kalte ekonomiko larria eragiten diotelako.

Horregatik, arauan xedatzen da 250.000 eurotik gorako zorrak eta zehapenak ordaindu gabe dituzten zergadunen (pertsona fisikoak edo juridikoak) zerrendak argitaratzea, betiere zor horiek borondatezko epean ordaindu ez badira, salbu eta geroratuta edo etenda daudenean.

Bestetik, iruzurraren kontrako borrokaren baitan, ikuskapen lanen epeen gaineko erregulazio berria ezartzen da, araudia errazteko eta lan horiek egiteko epeak handitzeko. Iraupenari dagokionez, berritasun aipagarrienak dira 18 hilabeteko epean amaitu beharko direla, oro har, edo 27 hilabeteko epean inguruabar bereziren bat tartean dagoelarik, hala nola, zergadunaren negozio bolumena dela-eta kontuak auditatu beharra izatea, edo zergaduna zerga-baterakuntzaren edo entitate taldearen araubidearen menpeko talde batean sartuta egotea.

Era berean, Fundazioen zerga araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzen da, fundazioek beren errentei eta diru-sarrerei eman beharreko erabilera modu berri batez arautzeko. Oinarrizko araua izanen da "fundazioaren xedeak betetzeko erabili beharko dela, gutxienez, fundazioaren kontabilitate-emaizaren ehuneko 70". Egungo erregulazioak arazoak eta zalantzak planteatzen dituzenez, arau zehatzagoa egiteko asmoa dago, kontabilitate arloko araudiarekin bat etorriko dena.

Helburu horrekin, testu berrian kontzeptu batzuk zehazten dira:

Lehena. Nola kalkulatu ehuneko 70 hori, fundazioaren helburuak betetzeko erabili beharrekoa.

Bigarrena. Noiz ulertzen den zergaldian egin eta fundazioaren helburuak betetzen benetan lagundu duten gastu eta inbertsioen zenbatekoa fundazioaren xedeetarako erabili dela.

Beste gai batzuei dagokienez, hondakin uren saneamendu kanonaren tarifen zenbatekoa eguneratzen da. Nafarroako ibaien saneamendurako Plan Zuzentzaileak erabateko autonomia duenez Nafarroako Aurrekontu Orokorrekiko, bai eta bere finantzabidea ere, hondakin uren saneamendu kanonaren diru-bilketaren kargura, kanon horren tarifak aldi-aldi eguneratu behar dira, Planaren betebeharre erantzuteko (besteak beste, instalazio berriak eraikitzea, egungoen mantentze-lanak eta uren arazketarako zerbitzuak handitzea) finantza oreka arriskuan jarri gabe.

Aurrekoetz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoak buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea aldatzen da, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren tasak berrantolatu eta modernizatzeko.

Diru-sarrera publikoak handitzeko helburuarekin, foru lege proiektu honek hidrokarburoen gaineko zergaren karga-tasa autonomikoak ezartzen ditu berriz Nafarroan. Zerga berezietan dagokienez, Hitzarmen Ekonomikoaren 35.5 artikulua ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateak ezartzen ahalko dituela zerga horiek karga-tasak, betiere, lurralde erkidean unean-unean indarra duten mugekin eta baldintzetan.

Beraz, agindu horrek aukera ematen du Nafarroan ezartzeko hidrokarburoen gaineko zergaren karga-tasa autonomikoak, aipatutako muga eta baldintzekin. Horrenbestez, erabilera orokorreko gasolioan eta kerosenoan, zerga-tasa autonomikoa 24 eurokoa izanen da mila litroko. Erabilera berezietako eta berokuntzarako gasolioaren kasuan, 6 eurokoa izanen da mila litroko, eta fuel-olioaren kasuan, azkenik, euro batekoa tona bakoitzeko. Bestetik, Foru Komunitateak erabilera profesionaleko gasolioaren gaineko zerga-tasa autonomikoa itzuliko du, hau da, honako hauen titularrei: salgaien errepideko garraioan baizik aritzen ez diren ibilgailu motordunak, bidaiarien garraioan aritzen direnak, eta bidaiarien zerbitzu publikoan udal lizentziarekin eta taximetroarekin aritzen diren taxiak.

Bi xedapen gehigarrien helburuak hauek dira, hurrenez hurren: sozietateen gaineko zergan monetaren zuzenketarako koefizienteak ezartzea, 2016an hasten diren zergaldiei dagokienez, eta zerga horren subjektu pasiboei ahalmena ematea Inbertsioetarako Erreserba Berezirako zuzkidurak egiteko, 2016ko urtarrilaren 1ean hasitako lehenbiziko bi zergaldietan lortutako irabazien kargura.

Xedapen indargabetzaileak hiru eduki ditu:

Lehena. Saltoki Handietarako Zerga bat sortzeko abenduaren 28ko 39/2013 Foru Legea indargabetzen du. Europako Batzordeak zalantzan jarri du maiz zerga hau, Estatuaren legez kanpoko laguntza zekarrelakoan. Batzorde horrek egindako errekerimenduen ondorioz, Nafarroako Gobernuak indargabetzeko tramite parlamentarioak egiteko konpromisoa hartu zuen.

Bigarrena. Sozietateen gaineko zergaren xedapenen 1986ko Testu Bateginaren 22 B) artikulua indargabetzen du. Indargabetze horrekin batera, lehen aipatu denez, babesletza kontratuetatik datozen publizitate gastuengatik kuotan eginen den kenkaria (indargabetzen den arauan zegoena) Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen 67. artikuluan azalduko da aurrerantzean.

Hirugarrena. Araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarria indargabetzen du, besterik gabe, argiago gelditzeko eta segurtasun juridikoa areagotzeko.

Azken xedapenetan lehenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru legea garatzeko, eta azken xedapenetan bigarrenean, berriz, foru legearen indar hartzea arautzen da.

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

Bat. 7.h) artikulua, lehen eta bigarren lerroaldea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"h) Beka publikoak, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen aplikazio esparruan sartzan diren entitateek emandako beka, bai eta aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku-fundazioek beren gizarte ekintza gauzatzeko emandako beka ere, hezkuntza sistemaren maila eta gradu guztietako ikasketa arautuak Espainian nahiz atzerrian egiteko ematen direnak, are doktoregokoak ere, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Salbuetsita izanen dira, orobat, erregelamenduz ezarriko den bezala, prestakuntzako ikerlarien estatutua onetsi zuen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak finkatutako eremuan, irabazi-asmorik gabeko entitateek eta lehen aipatutako banku-fundazioek ikerketarako emandako beka eta beka publikoak, eta orobat, Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionario eta langileei eta unibertsitateko irakasle eta ikerlariei, ikerketarako bakar-bakarrik, entitate haiek ematen dizkieten beka eta beka publikoak".

Bi. 7.n) artikulua. Ondorioak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, 30.000 euroko gehieneko muga berriaren salbuespenarekin, ondorioak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen baititu.

"n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

Lehena. Lan horiek egiteko langileak atzerrira joan behar badu, lekualdatutako pertsona enplegatu duen enpresaren edo entitatearen nazioz gaindiko zerbitzu prestazio bat dela eta. Langilea enplegatu duen enpresak edo entitateak Espainiako egoiliarra izan beharko du.

Bigarrena. Lan horiek Espainiako egoiliarra ez den enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, lan horiek hartuko dituen entitatea langilea enplegatu duen entitatearekin edo langileak bere zerbitzuak ematen ditueneko enpresarekin lotua badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

Hirugarrena. Lanak egiten direneko lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko beste zerga bat aplikatzea eta zerga paradisuatzat jotzen den herrialde edo lurralde bat ez izatea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da baldin eta lanak egiten direneko herrialde edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, informazioa trukatzeko klausularekin.

Salbuespena atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie, urtean 30.000 eurori gehienez. Erregelamenduz, egun bati dagokion diru-zenbateko salbuesia kalkulatzeko prozedura ezartzen ahalko da.

Destinoa atzerrian duten subjektu pasiboan kasuan, salbuespen hau bateraezina da, Zerga honen Erregelamenduaren 8.A).3.b) artikulua araberak, tributaziotik kanpo dauden soberakinaren araubidearekin, edozein dela ere haien zenbatekoa. Subjektu pasiboak soberakinaren araubidea aplikatzea aukeratzen ahalko du, salbuespen honen ordez.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko mugaz gaindiko langileen izaera duten langileei, apirilaren 29ko 59/2011 Foru Aginduan aurreikusitakoarekin bat".

Hiru. 7.w) artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"w) Erakunde publikoek genero indarkeriaren biktimei eta Bortxazko delituen eta sexu askatasunaren kontrako delituen biktimei laguntzak eta sorospena emateari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aipatzen diren bortxazko delituen biktimei emandako diru prestazioak".

Lau. 25.1.a) artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"a) Lortzeko beharrezko direnak. Aipatutako ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesengatik eta gainerako finantzaketa gastuengatik kendu beharreko zenbateko osoa, baita higiezina konpondu eta mantentzeko gastuengatik ere, ez da izanen, ondasun edo eskubide bakoitzean, ondasun higiezina edo eskubidea lagatzeagatik lortutako etekin osoen zenbatekoa baino handiagoa. Soberakinaren kenkaria hurrengo lau urteetan egiten ahalko da, letra honetan ezarritakoarekin bat. Soberakin hori zergaldiko gastuekin batera gertatzen bada, gastuak aplikatuko dira lehendabizi".

Bost. 28.d) artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"d) Akzio edo partaidetzen jaulkipen-primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak gutxitu eginen du, deuseztatu arte, ukituriko akzio edo partaidetzen eskuratze-balioa, eta gera litekeen soberakinak ondasun higigarrien kapitalaren etekin gisa tributatu du.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoa) definitutako balore-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren eta sozietateen edo entitateen funts berekietako partaidetzen adierazgarri diren baloreei dagokien jaulkipen-primaren banaketa egiten denean, akzioen edo partaidetzen funts berekien balioaren (primaren jaulkipen data baino lehen itxitako azken zergaldiari dagokiona) eta haien eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboa denean, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkaturako balio normala ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, aipatutako diferentzia positiboa muga izanik.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldeko funts berekien balioari jaulkipen-prima banatu aurretik banatutako etekinen zenbatekoa –hots, funts bereki horietan sartutako erreserbetatik heldu diren etekinen zenbatekoa– kenduko zaio, bai eta funts berekietan sartuta dauden eta legez erabili ezin diren erreserben zenbatekoa ere, akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutakoak badira.

Mugaz gaineko soberakinak akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioa murriztuko du, letra honetako lehen lerroaldean xedatutakoarekin bat.

Letra honen bigarren lerroaldean xedatutakoa aplikatuta, jaulkipen primaren banaketak ekartzen badu lortutako zenbateko osoa edo haren zati bat edo jasotako ondasun edo eskubideen merkaturako balio normal osoa edo haren zati bat ondasun higigarrien kapitalaren etekin gisa kontatzea, eta ondoren zergadunak dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak lortzen baditu, 28.a) artikulua arabera, entitate berarengandik, jaulkipen prima banatu zenetik bere ondarean egondako akzio edo partaidetzekin loturik, dibidendu edo mozkinetako partaidetza horien bidez lortutako zenbatekoa akzio edo partaidetzen eskuratze-balioari kenduko zaio, letra honen lehen lerroaldean xedatutakoarekin bat, betiere akzio edo partaidetza horiei dagozkien eta aurretik kontatu diren ondasun higigarrien kapitalaren etekinak muga izanik".

Sei. 35. artikulua. Bosgarrena. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Bosgarrena. Subjektu pasiboak berarentzat, ezkontidearentzat eta gutxiengo familiarra dela-eta kenkarirako eskubidea ematen dioten ondorengoentzat egin duen gaixotasun-asegurua primak gastu kengarritzat joko dira etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehazterakoan. Aipatutako pertsona horietako bakoitzeko gehieneko gastu kengarria 500 eurokoa izanen da".

Zazpi. 39.3 artikulua, lehen lerroaldea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"3. Ondarearen osaketan aldaketarik ez dela izan ulertuko da, esleipen soberakinik gertatzen ez bada, betiere:"

Zortzi. 39.4.a) artikulua, laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren lerroaldeak gehitzea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Letra honen bigarren lerroaldean xedatutakoa gorabehera, xedatutako ekarpenak itzultzea duen eta mozkin ez banatuetatik ez datorren kapital-murrizketen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako balio-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren baloreei dagokiena, balio horiek sozietateen edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, akzioen edo partaidetzen funts berekien balioaren (kapital-murrizketaren aurreko azken ekitaldi itxiari dagozkiona) eta eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboa denean, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasunen edo eskubideen merkaturako balio normala ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, eta muga diferentzia positibo hori izanen da.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldean aipatzen den funts berekien balioari kapital-murriztapenaren aurretik banatutako etekinen zenbatekoa –hots, aipatu funts berekietan sartutako erreserbetatik heldu direnena– kenduko zaio, bai eta funts berekietan sartuta dauden eta legez erabili ezin diren erreserben zenbatekoa ere, akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutakoak badira.

Mugaz gaineko soberakinak akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioa murriztuko du, letra honen bigarren lerroaldean xedatutakoarekin bat.

Letra honen laugarren lerroaldean xedatutakoa aplikatuta, kapital-murriztapenak ekartzen badu lortutako zenbateko osoa edo haren zati bat edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko balio normal osoa edo haren zati bat ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartzea, eta ondoren zergadunak dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak lortzen baditu, 28.a) artikuluaarekin bat, entitate berarengandik, kapital-murriztapena egin zenetik bere ondarean egondako akzio edo partaidetzekin loturik, dibidendu edo mozkinetako partaidetza horien bidez lortutako zenbatekoa akzio edo partaidetzen eskuratze-balioari kenduko zaio, letra honen lehen lerroaldean xedatutakoarekin bat, betiere akzio edo partaidetza horiei dagozkien eta aurretik kontatu diren ondasun higigarrien kapitalaren etekinak muga izanik".

Bederatzi. 43.1.b).a') artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"a') Balioei dagokien ondare garbiaren zenbatekoa, zergaren sortzapenaren aurretik itxitako azken balantzetik ateratzen dena".

Hamar. 43.1.c) artikulua, lehenbiziko lerroaldea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"c) 52. artikuluan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioen edo bestelako partaidetzen eskualdaketa edo errenboltsoaren kasuan, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da eskuratze-balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentziaren arabera; azken hori eskualdaketa edo errenboltsoa egiten den egunean duen likidazio-balio aplikagarriak zehaztuko du edo, horrelakorik ez izatera, argitaratutako azken likidazio-balioak. Likidazio-baliorik ez izatera, balioei dagokien ondare garbiaren zenbatekoa hartuko da, hots, zergaren sortzapenaren aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratzen dena".

Hamaika. 43.1.k) artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

"k) Harpidetza eskubideen eskualdaketan, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntzatzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian".

Hamabi. 43.2 artikuluko lehen lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. Balio homogeneousi buruzko ondare aldaketen kasuan, honako irizpide hau hartuko da: subjektu pasiboak eskualdatutakoak lehenbizi eskuratutakoak direla".

Hamahiru. 44. artikulua, hirugarren lerroaldea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Betiere, justifikatu gabeko ondare gehikuntzatzat joko dira, eta erregulariza daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharreneko likidazio-oinarri orokorrean sartuko dira, ondasun edo eskubideak izatea, aitortzea edo eskuratzea, baldin eta titularrak horiei buruz informatzeko duen betebeharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena, ez badu bete horretarako duen epean, edo zerga administrazioaren aldetik egiaztapen prozedura baten hasiera jakinarazi aurretik".

Hamalau. 52.1.c).b') artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"b') Kapital murrizketa banatu ez diren mozkinetatik ateratakoa bada, mozkin horien zenbatekoa. Ondorio horietarako, ulertuko da kapital murrizketak, horien helburua edozein dela ere, lehenbizi, banatu gabeko mozkinetatik datorren kapital sozialaren zatia aplikatzen zaizkiola, agortu arte.

Aipatutako muga horretatik gorako soberakina ukitutako akzioen eskuratze-balioa txikiagotzeko erabiliko da, 39.4.a) artikulua lehenbiziko leerroaldeko arauari jarraikiz, agortu arte. Bestalde, soberakinik badago, kopuru hori edozein entitate motatako funts berekietako partaidetzaren ondorioz lortutako ondasun higigarrien kapitalaren etekin gisa sartuko da, jaulkipen-prima banatzeko 28.d) artikuluko lehen leerroaldean aurreikusten den moduan".

Hamabost. 53. artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga-oinarriaren zati orokorra aurrezkiaren zati berezian sartzen ez diren etekinek eta ondare gehikuntzek eta murrizketek osatuko dute; hauek, hain zuzen:

a) Foru lege honetako 51., 52.4 eta 52. bis artikuluetan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko IV. kapituluari aipatzen diren errenta egozpenak eta errendimenduak zergaldi bakoitzean inolako mugarik gabe batzetik ateratzen den saldoa.

b) Hurrengo leerroaldeetan aurreikusitakotik ateratzen diren ondare gehikuntza eta murrizketen saldo positiboa.

Zergaldiko ondare gehikuntzak eta murrizketak batuko dira, hurrengo artikuluan aurreikusitakoak kenduta.

Emitza positiboa izanez gero, aurreko ekitaldietatik datozen izaera bereko saldo negatiboak konpentsatu egiten dira, zaharretatik hasita, baina konpentsazioaren emaitza ez da inoiz negatiboa izanen.

Emitza negatiboa bada, horren zenbatekoa idatz-zati honen a) letran aurreikusitako saldo positiboarekin konpentsatuko da, saldo positibo horren ehuneko 25 muga gisa harturik.

Letra honetan ezarritakoa aplikatu ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko leerroaldeetan ezarritako hurrenkera berean.

Kompentsazioa hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal izanen den gehieneko zenbatekoan egiten da, eta, bide batez, aurreko leerroaldean aipatzen den lau urteko epetik kanpo egin gabe ondorengo urteetako ondare murrizketei erantsiz".

Hamasei. 54.2. artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. Aurrezkiaren zati berezia idatz-zati honen a) eta b) letratik ateratzen diren saldo positiboaren batura izanen da.

a) Batu egiten dira ondasun higigarrien kapital etekinak, aurreko idatz-zatiko a) letran aipatzen direnak, aurrezkiaren zati berezian sartutakoak, zergaldiari dagozkionak.

Emitza positiboa izanez gero, aurreko zergaldietatik datozen izaera bereko saldo negatiboak konpentsatu egiten dira, zaharretatik hasita, baina konpentsazio horren emaitza ez da inoiz negatiboa izanen.

Negatiboa bada, horren zenbatekoa konpentsatuko da idatz-zati honen b) letratik ateratzen den saldo positiboarekin, saldo positibo horren ehuneko 25 muga gisa harturik.

Letra honetan ezarritako arauak aplikatu ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko leerroaldeetan ezarritako hurrenkera berean.

b) Aurreko idatz-zatiko b) letran aipatzen diren ondare gehikuntzak eta murrizketak, zergaldian lortutakoak, batu egiten dira.

Emitza positiboa izanez gero, aurreko ekitaldietatik datozen izaera bereko saldo negatiboak konpentsatu egiten dira, zaharretatik hasita, baina konpentsazioaren emaitza ez da inoiz negatiboa izanen.

Emaitza negatiboa bada, horren zenbatekoa idatz-zati honen a) letran aurreikusitako saldo positiboarekin konpentsatuko da, saldo positibo horren ehuneko 25 muga gisa harturik.

Letra honetan ezarritako arauak aplikatu ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko lerroaldeetan ezarritako hurrenkera berean".

Hamazazpi. 55. artikulua, lehen lerroaldea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Likidazio-oinarri orokorra kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati orokorrari ondoren azaltzen diren murriztapenak aplikatuko zaizkio:"

Hemezortzi. 55.1.artikulua. Zazpigarrena.a).b'). 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"b') 5.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 7.000 eurokoa izanen da urtean."

Hemeretzi. 55. artikulua, 3. idatz-zatia aldatzea eta 4., 5. eta 7. idatz-zatiak indargabetzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"3. Artikulu honetan aipatzen diren murriztapenak hamahirugarren, hamalauugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoekin batera eginen dira".

Hogei. 57. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia 54. artikuluan ezarritako zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia izanen da".

Hogeita bat. 59.1. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehuneko)
		4.000	13,00
4.000,00	520	5.000	22,00
9.000,00	1.620	10.000	25,00
19.000,00	4.120	13.000	28,00
32.000,00	7.760	14.000	36,50
46.000,00	12.870	14.000	41,50
60.000,00	18.680	20.000	44,00
80.000,00	27.480	45.000	47,00
125.000,00	48.630	50.000	49,00
175.000,00	73.130	125.000	50,50
300.000,00	136.255	oinarriaren soberakina	52,00"

Hogeita bi. 59.3. artikulua, azken lerroaldea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Eskala modu berezian aplikatzearen ondorioetarako, mantenurako urtesarien zenbateko osoak 6.000 euroko muga izanen du seme edo alaba bakoitzeko. Zenbateko hori 8.000 eurokoa izanen da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten seme-alaben kasuan".

Hogeita hiru. 60. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		6.000	19
6.000	1.140	4.000	21
10.000	1.980	5.000	23
15.000	3.130	Gainerakoa	25"

Hogeita lau. 62.1. artikulua.

“1. Ohiko etxebiztza egindako inbertsioagatik kenkaria.

a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebiztza dena edo izanen dena erosteagatik zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 15, etxebiztza babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebiztza kalifikazioa izateko baldintzak betetzen baditu. Kenkari honen gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean.

Kenkari horrek eskakizun hauek izanen ditu:

Lehena. Etxebiztza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua izatea hiru urteko epean jarraian. Hala ere, etxebiztza izaera hori izan zuela ulertuko da, nahiz eta epe hori ez iragan, subjektu pasiboa hiltzen bada edo etxebiztza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

Bigarrena. Subjektu pasiboa etxebiztza benetan bizitza eta etengabe hamabi hilabetez, etxebiztza erosi edo obrak bukatzen diren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebiztza badu bere kargu edo lanpostuarengatik, epe hori kargua utzi zuen egunetik hasiko da kontatzen.

Kreditu entitateetan eta erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta erabilera baldintzak betetzen dituzten kontuetan utzitako kopuruak ohiko bizilekua den edo izanen den etxebiztza erosteko erabili direla ulertuko da, baldin eta ohiko etxebiztza, babes ofizialeko edo prezio tasatuko kalifikazioa duena, lehen aldiz erosteko erabiltzen badira.

Halaber, erosteko aukera biltzen duen etxebiztza-errentamenduen kasuetan, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan zergaldian ordaindutako kuotak ohiko etxebiztza erosten erabilitako diru-kopuruak direla ulertuko da, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzekin eta betebeharrekin, baldin eta kontratuetan klausula bat baldin badago erosteko aukera duena irmoki konprometitzen duena aukera hortaz sei urteko epean baliatzeko, gehienez ere, betiere babes ofizialeko edo prezio tasatuko kalifikazioa duen ohiko etxebiztza erosteko denean. Baldin eta aukera hori ezarritako epean baliatzen ez bada, egindako kenkarirako eskubidea galduko da, eta erregelamenduz ezartzen den moduan erregularizatu beharko da egoera.

Ezkontza-deuseztasuneko, dibortzioko edo banantze judizialeko kasuetan, zergadunak kenkari hori egiten jarraitzen ahalko du, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraikiz, ezkontzak indarra izan zuen bitartean ohiko etxebiztza izan zena erosteko zergaldian ordaindutako kopuruei dagokiena, hain zuzen ere, baldin eta ohiko etxebiztza izaten jarraitzen badu bien seme-alabentzat eta haiekin gelditzen den gurasoarentzat, eta etxebiztza babes ofizialekoa edo prezio tasatuko bada.

b) Kenkari honen oinarria etxebiztza erosteko ordaindutako diru-kopuruek osatuko dute, eroslearen kargu izan diren gastuak barne. Besteren finantzaketarekin egin bada, horren ondoriozko amortizazioa, interesak eta gainerako gastuak ere gehituko zaizkio oinarriari.

Hauxe kenduko zaio aurreko lerroaldean aipatzen den kenkariaren oinarriari: aurreko ohiko etxebizitzarengatik kuotan egindako kenkariari zegokien oinarriaren zenbatekoa, eta ohiko etxebizitza berriari berriro inbertitzeagatik salbuetsitako ondare-gehikuntzaren zenbatekoa. Aipatutako kenketa hori egiteko, subjektu pasiboak ezin izango du ohiko etxebizitza berria erosteagatik kenkaria aplikatu kuotan, baldin eta berri horretan inbertitzen diren zenbatekoek ez badituzte gainditzen lehen aipatutako kopuruak.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarrien zenbateko osoa ez da izanen 120.000 eurotik gorakoa, subjektu pasiboaren zergaldien batura kontuan hartuta.

d) Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, baterako aitortpenaren bidez tributatu den zergaldietan ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarriak kenkarirako eskubidea sortu zuten subjektu pasiboek eginak direla ulertuko da.

e) Kenkari horri dagokionez, ezkontzaren araubide ekonomikoa irabazpidezkoa baldin bada, ezkontuta egon diren bitartean ordaindutako zenbatekoak, idatz-zati honen b) letran aipatzen direnak, konkisten edo irabazpidezko ondasunen sozietatearen funtsekin ordaindu direla ulertuko da, eta ezkontide bakoitzaren kenkaria aipatutako sozietatean zuen partaidetzaren arabera izango da.

f) a) letran ezarritako gorabehera, ohiko etxebizitza egokitzeko lan eta instalazioak egiten dituzten subjektu pasiboak ere ohiko etxebizitzan egindako inbertsioarengatik kenkaria aplikatzen ahalko dute, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa ez bada ere, eraikinaren elementu komunak eta finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak direnak hartzen dituzten lanak barne, ondoko berezitasun hauekin:

a') Egokitze lan edo instalazioek Administrazio eskudunaren ziurtagiria izanen dute, haien erabilgarritasuna eta zentzumen-komunikazioa bermatzeko beharrezkoak direla frogatzeko, bide emanen baitute horrela desgaitasuna duten pertsonak haietan duintasunez moldatzeko, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

b') Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egokitze lan edo instalazioak egin behar baldin badira subjektu pasiboa bera, haren ezkontidea edo bikote iraunkorra, edo harekin bizi den ahaideren bat, zuzenekoa nahiz albokoa, odolkidetasunezkoa nahiz ezkontza bidezkoa, hirugarren gradura bitartekoa, hori barne, desgaitasuna duelako, zilegi izanen da horiengatik kenkaria egitea.

c') Etxebizitzan b') letran aipaturiko pertsonetatik edozeinek bizi beharko du, jabe, errentari, azpierrenerari nahiz usufruktudun izan.

Ulertuko da etxebizitza aldatzeak eskatzen duen egoera dela aurreko etxebizitza desgaitasuna dela-eta egokia ez izatea.

d') Egin beharreko obrak hiri-finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak diren elementu komunak aldatzeko nahiz zentzumenezko komunikaziorako oztupoak gainditzeko edo haien segurtasuna bultzatzeko balio duten dispositibo elektronikoak aplikatzeko behar direnak baldin badira, aurreko b') letran aipatutako subjektu pasiboaz gain, etxebizitza dagoen ondasun higiezinaren jabeak diren subjektu pasiboak ere aplikatzen ahalko dute kenkari hori.

g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, a) letran adierazten den ehunekoa 18 izanen da. Eta ehuneko 30 izanen da familia ugarien ohiko etxebizitza denean, betiere, Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 31n izaera hori badute.

h) Kenkari hau aplikatzeko eskubidea izanen du zergaldiko oinarrien batura, 53. eta 54. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatu, eta 55.2 artikuluan aipatzen diren konpentsazioko pentsioak kenduta, hala dagokionean, kopuru hauetatik beherakoa denean:

a') 24.000 euro, oro har.

b') 27.000 euro, seme edo alaba bat edo bi seme-alaba dituzten subjektu pasiboentzat, horiek kenkaria egiteko eskubidea ematen badute.

c') 30.000 euro, g) letran aipatzen diren familia ugarien kasuan.

Zenbateko horiei 3.000 euro gehituko zaizkie ehuneko 33tik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duen subjektu pasibo bakoitzeko, edo 7.000 euro desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa denean. Lerroalde honetan aipatzen diren zenbatekoak 1.500 eurokoak edo 3.500 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, desgaitasuna duen ondorengo bakoitzeko, kenkaria egiteko eskubidea ematen badute."

Hogeita bost. 62.5. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"5. Laneko kenkaria.

Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400 euro.

b) 9.100,01 eta 12.600 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,2.

c) 12.600,01 eurotik 35.000 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 35.000,01 eta 50.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 35.000 euro, eta horren emaitza bider 0,02.

e) 50.000,01 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 400 euro.

Bigarrena. Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboen kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den kenkaria ehuneko 50 handiagoa izanen da. Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa dutenentzat kenkaria ehuneko 100 handituko da.

Hirugarrena. Bosgarren idatz-zati honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu foru lege honetako 59.1 artikuluko eskala lan etekin garbiei aplikatuzetik heldu den emaitza".

Hogeita sei. 62.7 artikulua, lehen eta bigarren lerroaldeak. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"7. Arrisku-kapitaleko entitateen kapitalari edo funts berekiei egindako ekarpenengatiko kenkaria.

Arrisku-kapitaleko entitateen kapitalari edo funts berekiei egindako diru ekarpenek kuota osoan kenkari bat izateko eskubidea emanen dute, zeina gauzatuko baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 110.10. artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan".

Hogeita zazpi. 62. artikuluar 9. idatz-zatia gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"1. Kenkari pertsonal eta familiarrak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik, kenkaria 972 eurokoa izanen da urtean subjektu pasibo bakoitzeko. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a') 237 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 525 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b') 688 euro desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dutela frogatzen badute. Zenbateko hori 2.475 eurokoa izanen da subjektu pasiboak ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duela frogatzen badu.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik, kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizi, eta urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, errenta salbuetsiak kenduta, zenbateko hauetako bat:

- 237 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortzen badu.

- 525 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Letra honetan aurreikusitako errenten muga, aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b') Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik (IPREM) goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

- 433 euro urtean, lehenbizikoagatik.

- 460 euro urtean, bigarrenagatik.

- 657 euro urtean, hirugarrenagatik.

- 880 euro urtean, laugarrenagatik.

- 998 euro urtean, bosgarrenagatik.

- 1.155 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 578 euro urtean. Zenbateko hori 1.050 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibilean inskribatzen den zergaldian eta hurrengo bietan.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, bere adina zein ere den, 605 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoez gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urteko errentak, salbuetsiak kanpo, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak ez izatea, desgaitasunen bat izatea, eta desgaitasuna ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dela frogatzea. Zenbateko hori 2.118 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun ehuneko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerroaldean aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrengatiko kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan, berdin jokatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduarekin, gutxieneko familiarrengatiko kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz (IPREM) goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioengatik zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 25, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren ehuneko 3,75 ere, ondoko ezaugarriak dituzten pertsonak etxean zaintzeko lanetan aritzen direnekin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako b) letrako a') edo c') letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrengatiko kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatiko kenkaria aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen b) letrako a') edo c') letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu".

Hogeita zortzi. 68. bis. 4. artikulua. 4. idatz-zatia dena 5. idatz-zatia izanen da aurrerantzean. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"4. Kenkariaren zenbatekoa ez da 500 eurotik gorakoa izanen subjektu pasibo bakoitzeko".

Hogeita bederatzia. 73.2. artikulua. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. 53. artikuluko b) letrako likidazio-oinarri negatiboak eta saldo negatiboa, hala nola 54.2. artikuluko a) eta b) letretako saldo negatiboak, familia-unitateko kide batenak edo gehiagori dagozkienak, beste kide batzuen errenta positiboekin konpentsatuko dira, III. tituluko III. eta IV. kapituluetan ezarritako konpentsazio arauak aplikatuz. 53. eta 54. artikuluetan aipatzen den ehuneko 25eko muga bete behar duten konpentsazioak familia unitateko kideen artean egiten ahalko dira, soilik, haietako bakoitzak muga horretara iritsi ez bada. Konpentsazioa errenta-zati bakoitzaren kopuruaren hurrenkerari jarraituz egiten da, handienetik txikienera".

Hogeita hamar. 73.4. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"4. Behin familia unitatearen kuota osoa kalkulatu, bertan egiten dira 62. eta 66. artikuluetan ezarritako kenkariak, subjektu pasibo bakoitzaren banakako tributazioaren dagozkionak, familia unitatearen kuota likidoa eta kuota diferentziala zehazteko, hurrenez hurren. Nolanahi ere, 62.9.a) artikuluan aipatzen den gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria, seme edo alaba bakoitzari dagokiona, ez da banakako kuota osoa baino handiagoa izanen".

Hogeita hamaika. 75. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"75. artikulua Baterako tributazioaren arau bereziak.

Baterako tributazioaren kasuetan arau berezi hauek aplikatuko dira:

Lehen. 62.1.h) artikuluan aipatzen den oinarrien baturaren zenbatekoa honakoak baino txikiagoa izanen da familia unitate osoarentzat:

a) 48.000 euro, oro har.

b') 54.000 euro, seme edo alaba bat edo bi seme-alaba dituzten familia unitateak direnean, horiek kenkaria egiteko eskubidea ematen badute.

c') 60.000 euro, familia ugarien kasuan, Familia Ugariet buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 31n izaera hori badute.

Zenbateko horietan 3.000 euro gehituko zaizkie ehuneko 33tik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duen subjektu pasibo edo ondorengo bakoitzeko, kenkaria egiteko eskubidea ematen badu, edo 7.000 euro desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa denean.

Bigarrena. 62.1.a) artikuluan ezartzen den kenkarirako gehieneko oinarria 15.000 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.

62.1.c) artikuluan ezartzen diren kenkarirako oinarrien zenbatekoa, guztira, 240.000 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.

Hirugarrena. 62.2. artikuluan aipatzen den errenten gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.

Laugarrena. 64.1 artikuluan ezarritako muga familia unitateko kide guztien likidazio-oinarrien baturari aplikatuko zaio.

Bosgarrena. 64.2 artikuluan ezarritako muga familia unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

Seigarrena. 71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria (62.9.a) artikuluan ezarritakoa) 600 euro handituko da. Igoera hori ez da gertatuko, aita eta ama elkarrekin bizi badira edo zaintza partekatua dagoenean".

Hogeita hamabi. 77.6. artikulua: 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"6. 62.9.b) artikuluan aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion gutxieneko familiarrengatik kenkariak zergaldia osatzen duten urte naturaleko egunen kopuruaren proportzioan gutxituko dira, salbu eta baterako tributazioaren kasuan, osorik kontatuko baitira.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren arabera egindako kenkarien zenbatekoak, edozein kasutan ere, gutxituko egingen du beste subjektu pasibo batzuek kontzeptu berdinegatik egin ditzaketen kenkarien zenbatekoa, horretarako eskubidea badute".

Hogeita hamahiru. Hamalagarren xedapen gehigarria, 2.a) letraren azken lerroaldea aldatzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Aurreko lerroaldean aipatzen diren murriztapenak 55.1 artikuluan ezarritakoekin batera aplikatuko dira".

Hogeita hamalau. Hogeita seigarren xedapen gehigarria. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Nahitaez erantzun beharreko estatistikak egiten laguntzen dutenek jasotako kalte-ordainak.

Nahitaez erantzun beharreko estatistiketan laguntzen dutenek jasotako kalte-ordainak, Nafarroako Estatistikaren ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan aipatzen direnak, ez dira sartuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian".

Hogeita hamabost. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Dibidendu digitalaren liberazioak ukitutako eraikinetan telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak jaso edo ikustek eragindako kostuak konpentsatzeko diru-laguntzak.

Dibidendu digitalaren liberazioak ukitutako eraikinetan telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak jaso edo ikusteak eragindako kostuak konpentsatzeko diru-laguntzak zuzenean ematea arautzen duen urriaren 31ko 920/2014 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz emandako laguntzak ez dira sartuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian".

Hogeita hamasei. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, 1. idatz-zatia, lehen, bigarren eta hirugarren leerroaldeak. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"1. Zergaldian ohiko etxebizitza zaharberritzeko ordaindutako diru-kopuruek ondoko tratamendua izanen dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ohiko etxebizitzako inbertsioagatik kuotan egin beharreko kenkariari dagokionez, baldin eta etxebizitza eta hiri ondarea zaharberritzeko babesari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako egiaztagiraren bidez frogatzen badira:

Hamabosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da, eta 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkarien ehunekoak hiru puntu handiagoak izanen dira, ehuneko 18koa, ehuneko 21ekoa eta ehuneko 33koa, hurrenez hurren."

Zaharberritzeko lan horiek energia eraginkortasuna hobetzekoak ere barne hartzen badituzte, 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkarien ehunekoak bost puntu handiagoak izanen dira, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa, hurrenez hurren".

Hogeita hamazazpi. Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria, 1. idatz-zatia, lehen leerroaldea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariaren ondorioetarako, prezio libre mugatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren lehen erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, hamabosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da, eta 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkarien ehunekoak bost puntu handiagoak izanen dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa, hurrenez hurren".

Hogeita hemezortzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, 1. idatz-zatia, lehen leerroaldea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariaren ondorioetarako, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, hamabosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da, eta 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkarien ehunekoak bost puntu handiagoak izanen dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa, hurrenez hurren".

Hogeita hemeretzi. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikulua arabera bazkideei edo lotutako pertsonari ordaindutako etekinaren gaineko atxikpenak.

66. eta 80.3 artikuluetan ezarritakoa gorabehera, entitate batek bere bazkideei edo berarekin lotutako pertsonari ordaindutako etekinak atxikipenaren menpe baldin badaude, bazkidearen edo lotutako pertsonaren zergan egiten ahalko da kenkaria atxikipenengatik baldin eta behar bezala egin badira eta egiaz ordaindu zerga administrazioan".

Berrogei. Berrogeigarren xedapen gehigarria. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Berrogeigarren xedapen gehigarria. 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago sortutako menpeko zorrak edo lehentasunezko partaidetzek eragindako errenta negatiboaren konpentsazioa.

54.2 artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorraren 5. atalean ezarritakoa gorabehera, 2010., 2011., 2012., 2013. eta 2014ko zergaldiei dagozkien saldo negatiboetatik 2015eko urtarrilaren 1ean konpentsatu gabe dagoen zatia, jatorria menpeko zorren baloreek edo maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan emandako lehentasunezko partaidetzek eragindako ondasun higigarrien kapitalaren etekin negatiboetan baldin badu, edo ondasun higigarrien kapitalaren etekin negatiboetan edo ondare galeretan, baldin eta balio horien berrerosketa eta harpidetze edo truke eragiketetatik badatoz, 54.2 artikulua a) eta b) letretan aipatzen diren saldo positiboetako edozeinekin konpentsatzen ahalko dira. 13/1985 Legeak finantza bitartekarien inbertsio koefizienteak, baliabide berekiak eta informazio betebeharrak arautzen ditu.

Kompentsazio hori egin ondoren saldo negatiboa egonez gero, haren zenbatekoa aurreko lerroaldean ezarritako moduan konpentsatzen ahalko da, 2018an amaitzen den zergaldia arte.

Saldo negatibotik idatz-zati honen lehen lerroaldean aipatzen diren errentatik datorren zatia zein den zehazte aldera, beste izaera bateko errenta batzuk kontuan hartu direnean horiek zehazteko, eta saldo negatiboa hein batean konpentsatu bada ondoren, ulertuko da konpentsazioak bere eragina izan zuela, lehendabizi, izaera desberdineko errentei dagozkien saldoaren zatian".

Berrogeita bat. Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. Lan etekinen gaineko atxikipenen edo konturako diru-sarrereren portzentajeak.

1., Atxikipen-portzentajeen taula orokorra:

URTEKO ETEKINA, EUROTAN	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	SEME-ALABARIK GABE	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago.
11.250 baino gehiago	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
12.750 baino gehiago	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
14.250 baino gehiago	8,0	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
16.750 baino gehiago	10,0	8,0	6,0	4,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
19.750 baino gehiago	12,0	11,0	9,0	7,0	6,0	4,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
23.250 baino gehiago	13,5	12,2	11,5	8,7	7,7	5,7	3,6	0,0	0,0	0,0	0,0
25.750 baino gehiago	14,6	13,3	12,6	9,9	9,2	7,8	5,8	3,8	0,8	0,0	0,0
28.250 baino gehiago	15,8	14,5	13,7	12,4	10,7	8,9	7,9	5,9	3,9	0,9	0,1
32.250 baino gehiago	17,0	16,0	15,0	13,6	12,5	10,8	10,0	8,0	7,0	5,0	2,0
35.750 baino gehiago	18,1	17,1	16,5	14,7	14,0	13,3	12,2	10,2	9,1	7,1	6,1
41.250 baino gehiago	20,0	19,0	18,3	16,9	16,2	15,5	13,7	12,4	11,3	10,2	9,2
48.000 baino gehiago	22,1	21,5	20,9	18,9	18,3	17,7	16,6	15,6	14,5	13,4	12,3
55.000 baino gehiago	24,1	23,5	23,0	22,0	21,5	20,9	19,8	18,7	17,7	16,6	15,0
62.000 baino gehiago	26,1	25,5	24,5	24,0	23,5	22,9	21,9	21,4	19,8	18,7	17,2

69.250 gehiago	baino	28,3	27,7	27,0	26,6	25,5	25,0	24,4	22,9	21,8	20,3	19,3
75.250 gehiago	baino	29,6	29,2	28,3	27,3	27,2	26,2	26,1	24,5	23,4	22,3	21,3
82.250 gehiago	baino	30,8	30,5	30,0	29,4	29,0	28,3	27,7	26,6	25,6	24,5	23,9
94.750 gehiago	baino	32,2	31,7	31,2	30,8	30,4	30,0	29,5	28,9	27,8	26,8	25,7
107.250 gehiago	baino	33,5	33,0	32,6	32,3	32,0	31,5	31,0	30,0	29,5	28,5	28,0
120.000 gehiago	baino	35,1	34,8	34,6	34,0	33,5	32,9	32,4	31,3	30,7	29,7	29,1
132.750 gehiago	baino	36,2	36,0	35,8	35,0	34,5	33,9	33,4	32,8	32,0	31,0	30,0
146.000 gehiago	baino	38,0	37,5	37,0	36,5	35,5	34,9	34,4	34,0	33,5	32,0	31,5
200.000 gehiago	baino	40,0	39,8	39,4	39,0	38,5	38,0	37,5	35,5	34,5	33,7	33,0
280.000 gehiago	baino	42,0	41,5	41,2	40,8	40,0	39,5	39,0	37,0	36,0	35,2	34,5
350.000 gehiago	baino	43,0	42,9	42,8	42,5	41,5	41,0	40,5	38,5	37,5	36,7	36,0

2. Desgaitasuna duten jarduneko langileei aurreko 1. idatz-zatian ezarritako taularen arabera dagokien atxikipen portzentajea aplikatuko zaie, baina ondoko eskalan ageri diren puntuak kenduta:

URTEKO ETEKINAK (EUROAK)		DESGAITASUN GRADUA	
ZENBATEKO HONETATIK	ZENBATEKO HONETARA	100eko 33koa edo handiagoa	100eko 65koa edo handiagoa
11.250,01	23.250	5	15
23.250,01	41.250	3	15
41.250,01	94.750	2	8
94.750,01	Hortik gora	2	5

Eskala horretan agertzen diren murrizketak aplikatzearen ondorioz, ezin izanen da zerotik beherako portzentajerik atera.

3. Portzentaje horiek erregelamendu bidez aldatzen ahalko dira".

Berrogeita bi. Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. Ondasun higigarrien kapitalaren etekinetan, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo errenboltsoen ondoriozko ondare-gehitzeetan, sarietan, ondasun higiezinen errentamendu eta azpierreantamenduetan eta ondasun higiezinen kapitalaren bestelako etekin batzuetan egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren ehunekoak.

Ondasun higigarrien kapitalaren etekinetan, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo itzulketen ondoriozko ondare-gehikuntzetan, sarietan, ondasun higiezinen errentamendu eta azpierreantamenduetan, jabetza intelektualaren edo industrialaren ondoriozko etekinetan, laguntza teknikoko prestazioen etekinetan eta ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamenduaren edo azpierreantamenduaren ondoriozko etekinetan egin beharreko atxikipena edo konturako sarrera ehuneko 19koa izanen da.

Ehuneko hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da".

Berrogeita hiru. Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. Ondare-gehikuntzak egoitza atzerrira aldatzeagatik.

1. Zergadunak izaera hori galtzen duenean egoitza aldatzeagatik, ondare-gehikuntzat hartuko dira zergadunaren titularitateko edozein entitate motaren akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balioaren eta haien eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboak, baldin eta, zerga honen aitorpena aurkeztu beharreko azken zergaldia baino lehenagoko hamabost zergaldietatik hamarretan, gutxienez, zergaduna egoiliarra izan bada, eta inguruabar hauetakoren bat tartean bada:

a) Artikulu honen 3. idatz-zatian aipatzen diren akzio edo partaidetza guztien merkatuko balioa 4.000.000 eurotik gorakoa izatea.

b) Aurreko a) letran aurreikusitakoa betetzen ez denean, zerga honen aitorpena aurkeztu beharreko azken zergaldiko sortzapen datan entitateko partaidetza ehuneko 25etik gorakoa izatea, entitate horretako akzioen edo partaidetzen merkatuko balioa, artikulu honen 3. idatz-zatian aipatzen dena, gutxienez, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

Kasu honetan, artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, soilik, b) letra honetan aipatzen diren akzio edo partaidetzei dagozkien ondare-gehikuntzei.

2. Ondare-gehikuntzak aurrezkiaren errentaren zati izanen dira 54.1.b) artikuluekin bat, eta zerga honetan aitorpena egin behar den azken zergaldiari dagokion zerga-oinarrian sartu beharko dira, erregelamendu bidez ezarritako baldintzekin eta, hala behar denean, autolikidazio osagarria eginda eta inolako zehapenik, berandutze interesik eta errekar gurik ezarri gabe.

3. Ondare-gehikuntza zenbatesteko, akzioek edo partaidetzek zerga honetan aitorpena egin behar den azken zergaldiko sortzapen datan duten merkatuko balioa hartuko da, arau hauen arabera zehaztuta:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako balio-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu diren balioak, balio horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, haien kotizazioaren arabera baloratuko dira.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzkoan) definitutako balio-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren balioak, balio horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, bi hauetako handienaren arabera baloratuko dira, beste merkatu-balio bat dutela frogatu ezean:

a) Balioei dagokien ondare garbiaren balioa, zergaren sortzapenaren aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzetik heldu dena.

b) Zergaren sortzapen data baino lehen sozietateak itxitako hiru ekitaldietako emaitzen batez bestekoa ehuneko 20ko tasan kapitalizatetik ateratzen den emaitza. Azken ondorio horretarako, mozkin hartuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbetara esleitutako kopuruak, balantzeen erregularizazioak edo eguneratzekoak kenduta.

c) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzio edo partaidetzen balorazioa egiteko, zerga honetan aitorpena egin behar den azken zergaldiko sortzapen datan aplikatzeko den likidazio-balioaren arabera edo, halakorik ez bada, argitaratutako azken likidazio-balioaren arabera. Likidazio-baliorik ez izatera, akzioei edo partaidetzei dagokien ondare garbiaren balioa hartuko da, hots, sortzapen dataren aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzetik heldu dena, beste merkatu-balio bat dutela frogatu ezean.

4. Erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, egoitza aldaketa lan arrazoiengatik gertatzen denean, aldi baterako, zerga paradisua ez den herrialde edo lurralde batera joateko, edo beste edozein arrazoiengatik, baina, bigarren kasu honetan, aldi baterako lekualdatzea Espainiarekin nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena (informazio trukerako klausula duena) izenpetua duen herrialde edo lurralde batera joateko bada, zerga administrazioak geroratu eginen du artikuluko honetan araututako ondare-gehikuntzei dagokien tributu zorraren ordainketa, zergadunak hala eskatzen badu.

Gerorapen horretan aplikatzekoa izanen da Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoa, batez ere interesen sortzapenari eta gerorapenerako bermeak eratzeari dagokienez.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren bermeak eratzeko, artikuluko honetan aipatzen diren balioen gainean eratzen ahalko dira, osorik edo zati batean, alderdi juridikotik nahiz ekonomikorik aski badira.

Gerorapenaren mugaeguna, beranduenez, hurrengo lerroaldean aipatzen den epea amaitu eta hurrengo urteko ekainaren 30a izanen da.

Zergapekoa zerga honen zergadun bihurtzen bada berriz, zerga honetan aitorpena aurkeztu behar den azken zergaldiaren hurrengo bost zergaldien epean edozein unetan, aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren akzio edo partaidetzen titulartasunaren eskualdaketa egin gabe, geroratutako tributu zorra iraungi eginen da, bai eta sortutako interesak ere. Lan arrazoiak eragindako lekualdatzeak direnean, zergadunak eskatzen ahalko dio zerga administrazioari bost zergaldiko epe hori luzatzeko, lekualdatzea luzeagoa izateko arrazoiak daudenean, baina luzapena ez da inoiz ere izanen beste bost zergaldi baino handiagoa izanen.

Zergadunak zerga hau ordaindu behar duen lehen zergaldiko aitorpena aurkeztean gertatuko da aipatutako iraungipena.

Kasu horretan ez da eginen eratutako bermeen kostuaren errenbultsoa.

5. Zergapekoa zerga honen zergadun bihurtzen bada berriz aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren akzio edo partaidetzen titulartasunaren eskualdaketa egin gabe, autoliquidazioaren zuzenketa eskatzen ahalko du, artikuluko honetan arautzen diren ondare-gehikuntzei dagozkien diru-kopuruen itzulketa lortzeko. Ordainketaren egunetik ordainketa egiteko agintzen den egunera bitarte sortutako berandutza interesak ere sartuko dira itzulketan.

Zuzenketaren eskabidea zerga honetan aitorpena aurkeztu behar den lehen zergaldiari dagokion aitorpen epea amaitzen denetik aurrera aurkezten ahalko da.

6. Egoitza Europar Batasuneko estatu batera edo Europako Ekonomia Guneko kide den estatu batera (Espainiarekin zerga arloko informazioaren egiazko trukea duena, Iruzur Fiskalari Aurre egiteko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 4. atalean aurreikusitako moduan) aldatzen bada, zergadunak aukeratu dezake artikuluko honetan arautzen diren ondare-gehikuntzetan honako berezitasunak aplikatzea:

a) Ondare-gehikuntzak autoliquidazioa egin beharra ekarriko du, soilik, zerga honetan aitorpena egin beharreko azken zergaldiaren hurrengo hamar zergaldien epean inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

Lehena. Akzioak edo partaidetzak inter vivos eskualdatzea.

Bigarrena. Zergadunak Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Guneko kide den estatu bateko egoiliarra izateari uztea.

Hirugarrena. Idatz-zati honetako c) letran aipatzen den jakinarazi beharra ez betetzea.

Ondare-gehikuntza zerga honetan aitorpena egin behar izan zen azken zergaldiari egotziko zaio, eta, hala behar denean, autoliquidazio osagarria eginen da, inolako zehapenik, berandutze interesik eta errekarurik ezarri gabe.

Autolikidazioa epe honetan aurkeztuko da: a) letra honetan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen den egunetik zergaren aitopena aurkezteko hurrengo epea amaitzen den arte.

b) Aurreko a) letraren lehen puntuari aipatzen den kasuan, ondare-gehikuntzaren zenbatekoari aurreko 3. idatz-zatian aipatzen diren akzioen edo partaidetzen merkatu-balioaren eta haien eskualdatze-balioaren arteko diferentzia positiboa kenduko zaio.

Ondorio horietarako, eskualdatze-balioari banatutako mozkinen zenbatekoa gehituko zaio, edo jasotako beste edozein zenbateko, zergadunaren izaera galdu ondoren entitatearen ondare garbiaren murrizketa eragin badute, salbu eta jasotako zenbateko horiengatik ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu bada.

c) Zergadunak zerga administrazioari jakinarazi beharko dizkio alderdi hauek, erregelamenduz zehazten den moduan: idatz-zati honetan aurreikusitako berezitasunak aplikatzea aukeratu duela, agerian jartzen den ondare-gehikuntza, egoitza zein estatutara aldatu behar duen, helbidea adierazita, bai eta ondorengo aldaketak ere, eta akzioen eta partaidetzen titulartasuna ez duela aldatuko.

d) Zergapekoak zergadunaren izaera berreskuratzen badu idatz-zati honetako a) letran aurreikusitako inguruabarretako bat gertatu gabe, artikulua honetako aurreikuspenek ez dute ondorio izanen.

7. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, egoitza zerga paradisutzat hartzen den herrialde edo lurralde batera aldatzen denean, eta zergadunak ez badu bere izaera galtzen 10.1 artikuluan bigarren letraz jarraituz.

Kasu horretan berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Ondare-gehikuntzak zergadunak ohiko egoitza Espainiako lurraldean izan duen azken zergaldiari egotziko zaizkio, eta, haiek zenbatesteko, 3. idatz-zatian aipatzen diren akzioek edo partaidetzek zergaldiaren sortzapen datan duten merkatu-balioa erabiliko da.

b) Akzioak edo partaidetak zergadunak izaera hori mantentzen duen zergaldi batean eskualdatzen badira, eskualdaketa dagokion ondare-gehikuntza edo murrizketa kalkulatzeko, eskuratze-balio gisa hartuko da artikulua honetan aurreikusten den ondare-gehikuntza zehazteko kontuan hartutako merkatu-balioa, akzio edo partaidetza alegia.

8. 10.2 artikuluan ezarritako zerga araubide berezia, Espainiako lurraldera lekualdatutako langileei aplikatzeko, aukeratu duten zergadunen kasuan, xedapen gehigarri honen 1. idatz-zatian aipatzen den hamar zergaldiko epea araubide berezi hori aplikatzeko ez den lehen zergalditik aurrera kontatuko da".

Berrogeita lau. Hamahirugarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hamahirugarren xedapen iragankorra. Pertsona lagundutzat hartzen diren ahaideengatik murrizketa.

Subjektu pasiboak eskubidea izanen du kuota 550 euroko kenkaria egiteko urtean, berarekin bizi den ahaide bakoitzeko, ahaideak pertsona lagunduaren izaera baldin badu 2009ko otsailaren 10a baino lehenagotik, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak emandako ziertagiriaren arabera, apirilaren 6ko 126/1998 Foru Dekretu indargabetuan ezarritako balorazio irizpideei jarraituz, izan ere, horren bidez onetsi zen hirugarren adineko pertsonen mendekotasun maila baloratzeko metodo ofiziala.

Kenkaria pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak baliatuko du, edo, horrelakorik ez badu, gradu hurbileneko ahaideak.

Kenkaria ezin izanen da baliatu baldin eta lagundutako pertsonaren ahaideren batek pertsona horrengatik 62.9.b.c') artikuluan ezarritako gutxieneko familiarrarengatik kenkaria baliatzen badu".

Berrogeita bost. Hamabosgarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hamabosgarren xedapen iragankorra. Ohiko etxebizitzako inbertsioaren ondoriozko kenkariari aplikatzen ahal zaion araubide iragankorra: 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritutako etxebizitzak, bai eta data horren aurretik hasitako obrak eta ordaindutako kopuruak ere.

1. Subjektu pasiboak ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkaria aplikatzen ahalko du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2012ko abenduaren 31n indarra zuten baldintza eta betebeharrekin bat eta hurrengo 2. lerroaldean xedatutakoari jarraikiz, arrazoi hauetako batekin ordaintzen dituen diru-kopuruengatik:

a) Ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik, baldin eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritu bada.

b) Ohiko etxebizitza zaharberritu edo handitzeagatik, aipatu obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

c) Ohiko etxebizitza eraikitzeako obrengatik, obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira edo data horren aurretik obren sustatzaileari kopuruak ordaindu bazaizkio.

d) Etxebizitza egokitzeko obrengatik edo instalazioengatik (62.1.f) artikuluan aipatzen direnak) baldin eta obra eta instalazio horiek 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

e) Ezkontza deuseztatzen denean edo dibortzioaren edo banantze judizialaren kasuetan, ezkontzak indarra zuen garaian subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan zena erosteagatik, baldin eta izaera hori izaten jarraitzen badu bien seme-alabentzat eta haur horiekin bizi den gurasoarentzat, betiere etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu bazen.

2. Kenkariaren gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean banakako tributazioan, eta 15.000 eurokoa urtean baterako tributazioan".

Berrogeita sei. Hamazazpigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hamazazpigarren xedapen iragankorra. Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkariari aplikatu beharreko araubide iragankorra: 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra erosi edo zaharberritutako etxebizitzak, bai eta epe horretan hasitako obrak eta ordaindutako kopuruak ere.

1., Subjektu pasiboak ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik kenkaria aplikatzen ahalko du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2012ko abenduaren 31n indarra zuten baldintza eta betebeharrekin bat eta hurrengo 2. idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, arrazoi hauetako batekin ordaintzen dituen diru-kopuruengatik:

a) Ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik, baldin eta 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte erosi edo zaharberritu bada.

b) Ohiko etxebizitza zaharberritu edo handitzeko lanengatik, aipatutako lanak 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte hasi badira.

c) Ohiko etxebizitza eraikitzeako lanengatik, baldin eta lanak 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte hasi badira edo etxebizitzan sustatzaileari konturako ordainketak egin bazaizkio epe horretan.

d) Etxebizitza egokitzeko obrengatik edo instalazioengatik (62.1.f) artikuluan aipatzen direnak), baldin eta obra eta instalazio horiek 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte hasi badira.

e) Ezkontza deuseztatzen denean edo dibortzioaren edo banantze judizialaren kasuetan, ezkontzak indarra zuen garaiari subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan zena erosteagatik, baldin eta izaera hori izaten jarraitzen badu bien seme-alabentzat eta haur horiekin bizi den gurasoarentzat, betiere etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitarte eskuratu bazen.

2. Kenkari hori aplikatzeko, subjektu pasiboaren oinarrien baturak, 53. eta 54. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatu, eta 55.2 artikuluan aipatzen diren konpentsazioko pentsioak kenduta, hala dagokionean, 62.1.h) artikuluan ezarritako zenbatekoetatik beherakoa izan beharko du banakako tributazioan eta 75. Lehen artikuluan ezarritakoetatik beherako baterako tributazioaren kasuan".

Berrogeita zazpi. Hemezortzigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hemezortzigarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago etxebizitza kontuetan egindako ekarpenei eta erosteko aukera duten etxebizitza-errentamenduko kontratuetan data hori baino lehen balio erantsiaren zergaren kontzeptuan ordaindutako kuotei aplikatzekoa.

1. Etxebizitza kontuetan 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen edo data horretatik 2015eko abenduaren 31 bitarte egindako ekarpenengatik kenkaria aplikatu duen subjektu pasiboak ez du egindako kenkarietarako eskubidea galduko, betiere betetzen baditu 2012ko abenduaren 31n edo 2015eko abenduaren 31n, hurrenez hurren, indarra zuten baldintzak eta betebeharrak.

2., Erosteko aukera duten etxebizitza-errentamenduko kontratuetan, balio erantsiaren zergaren kontzeptuan ordaindutako kuotengatik 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen edo data horretatik 2015eko abenduaren 31 bitarte kenkaria aplikatu duen subjektu pasiboak ez du egindako kenkarietarako eskubidea galduko, betiere betetzen baditu 2012ko abenduaren 31n edo 2015eko abenduaren 31n, hurrenez hurren, indarra zuten baldintzak eta betebeharrak".

Berrogeita zortzi. Hemeretzigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hemeretzigarren xedapen iragankorra. Sindikatu eta elkargoen kuotak, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak, 2014an ordaindutakoak.

Epean aurkeztutako aitorten informatiboan sartu ez zirelako, 2014ko zergaldian kenketarik eragin ez zuten sindikatu eta elkargoen zenbait kuota, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak kenkariaren xede izan daitezke 2015eko zergaldiko aitorpenean, 2014ko abenduaren 31n indarra zuen araudiarekin bat, betiere horiek jaso dituzten entitateek 2015eko zergaldian aurkeztu beharreko eredu informatiboan aurreikusitako moduan aitorpenean sartzen badituzte".

Berrogeita bederati. Hogeigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hogeigarren xedapen iragankorra. Zatika kobratzen diren zenbait etekin irregularretan aplikatzekoak diren murrizketak.

2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik zatika jasotzen diren etekinek, 17.2.a), 25.3, 32.2 eta 34.6 artikuluetan (2014ko abenduaren 31n indarra zuen testuaren arabera) ezarritako murriztapenak aplikatzeko eskubidea eragin dutenek, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera egozten diren zati bakoitzean 17.2.a), 25.3, 32.2 eta 34.6 artikuluetan (2015eko abenduaren 31n indarra zuen testuaren arabera), hurrenez hurren, aurreikusitako murriztapena aplikatzeko eskubidea emanen dute.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren artikuluetan ezarritako 300.000 euroko muga zenbatesteko, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindu beharreko zenbateko osoa hartu beharko da kontuan. Murriztapena ekitaldian posible den gehieneko zenbatekoan aplikatuko da, 300.000 euroko mugara iritsi arte.

Dena den, lan-harreman arrunt edo bereziaren edo 14.2.c) artikulua aipaturiko merkataritza-harremanaren edo bi horien iraungipenetik eratorritako lan-etekinen kasuan, murriztapen hori ez da aplikatuko 2015eko urtarrilaren 1ean ordaindu gabe dagoen zenbatekoa 300.000 eurokoa edo gehiagokoa denean".

Berrogeita hamar. Hogeita batgarren xedapen iragankorra gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hogeita batgarren xedapen iragankorra. 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko harpidetza eskubideen eskualdaketa.

Baloreen eskuratze-balioa, 43.1.a) artikuluan aipatzen dena, zehazteko, harpidetza eskubideen eskualdaketa, 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa, egitean lortutako zenbatekoa kenduko da, salbu eta ondare-gehikuntza gisa tributatu duten eskubideen zenbatekoa. Halaber, harpidetza-eskubideak osorik eskualdatu ez badira, ulertuko da eskualdatutakoak lehenbizi eskuratutako balioenak direla".

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 5. artikulua, 8.,9. eta 10. idatz-zatiak indargabetzea.

Bi. 28.1. artikulua.

"1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 550.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik".

Hiru 31.2 artikulua

"2. Bi kuoten baturak 1. idatz-zatian aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da ehuneko 65 baino handiagoa izan".

Lau. 33. artikulua.

"33. artikulua. kuotaren kenkariak.

1. Zergaren kuotari ondoko letretan jasotzen diren ondasun eta eskubideen balioari kuotan dagokion zati proportzionalaren ehuneko 100 kenduko zaio, ondasun eta eskubide horien gehieneko balioa 500.000 bitartekoa denean, eta balio horren gainekoari dagokion zati proportzionalaren ehuneko 80.

Hauek dira kenkari honetarako eskubidea ematen duten ondasun eta eskubideak:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta bi ezkontideen ondasun eta eskubide komunak, enpresa- edo lanbide-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz, pertsonalki eta zuzenean gauzatzen badu eta jarduera gauzatzen duenaren errenta-iturri nagusia bada.

Errenta-iturri nagusia zein den ezartzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan gauzatzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainsariak, ezta aipatu entitateetan parte hartetik heldutako beste edozein ordainsari ere.

b) Entitateen partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufruktu eskubidea, merkatu antolatuetan kotizatu ala ez, baldintza hauek gertatzen badira:

Lehena. Entitateak, sozietate bat izan nahiz ez izan, enpresa- edo lanbide-jardueraren bat benetan gauzatzea eta jarduera nagusizat ez izatea ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan, ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean:

a') Bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea.

b') Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikia.

b) letran adierazitako ondorioetarako, lanbide edo enpresa jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan xedatutakoari segituko zaio.

Bai aktiboaren balioa, bai lanbide edo enpresa jarduerari loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoak izanen dira, baldin eta horrek entitatearen ondare egoera zintzoki jasotzen badu.

Aurreko jarduerari atxikirik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-partea zehazteko:

Lehena. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

- Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.
- Lanbide edo enpresa jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondorioz sortutako kreditu eskubideak biltzen dituztenak.
- Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.
- Gutxienez ere bozkatzeko eskubideen ehuneko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko asmoz edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra honetan agertzen ez bada.

Bigarrena. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide edo enpresa jarduerari loturik ez dauden ondare-elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek lanbide edo enpresa jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldeko azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak lanbide edo enpresa jardueretatik etorritako mozkinen parekoak izanen dira, baldin eta partaidetzako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, lanbide edo enpresa jardueretatik heldu badira.

Bigarrena. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza ehuneko 5ekoa izatea gutxienez, banaka zenbatua, edo ehuneko 20koa, ezkontideak edo bigarren graduako aurrekoek, ondorengoek edo albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontzatik edo adopzioetik datorrela.

Hirugarrena. Subjektu pasiboak entitatearen zuzendaritza eginkizuna betetzea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria enpresa- zein lanbide-etekin eta lan pertsonaleko etekin guztien ehuneko 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, 1. zenbaki honetako a) letrak aipatzen duen enpresa jardueraren etekinak ez dira lanbide edo enpresa jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa zenbatuko.

Entitatearen duen partaidetza aurreko baldintzan aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, zuzendaritza-eginkizunak eta haien ondoriozko ordainsariak ahaideen taldeko pertsona batek bederen izan beharko ditu, deusetan galarazi gabe kenkarirako eskubidea denek izatea.

Kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–, hain zuzen, lanbide edo enpresa jarduera burutzeko behar diren aktiboak jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitatearen duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek aplikatuko dira entitate partaidetuaren partaidetzen balorazioan, entitate edukizaillearen partaidetzen balioa zehazteko.

2. Erregelamenduz ezar daitezke honako hauek:

a) Enpresa-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagokien kenkaria aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak".

Bost. 36. artikulua.

"36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak.

Haien tributu-kuota (zergari buruzko arauekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak eta hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean aurkeztu beharko dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboek, edo, kasu hori gertatzen ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa (zergaren arauekin bat kalkulaturik) 1.000.000 eurotik gorakoa denean".

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, salbu eta berrogeita hamaseigarren idatz-zatia, ondorioak foru lege hau argitaratzen den egunetik aurrera izanen baititu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen arau hauek honako testua izanen dute:

Bat. 9.5 artikuluko lehenbiziko leerroaldea.

"5. Ulertuko da ondasun edo eskubideak aitortu gabeko errenten kargura eskuratu direla (preskribatu gabeko zergaldien artean erregularizatu daitekeen zaharrenari egotziko zaizkio errenta horiek), baldin eta haien subjektu pasiboak horretarako emandako epean, edo zerga administrazioak egiaztapen prozedura bat hasiko duela jakinarazi aurretik, bete ez badu informatzeko betebeharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena".

Bat bis. 15. artikulua:

"15. artikulua. Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

1. Ibilgetu ukiezina haren bizitza erabilgarriaren arabera amortizatuko da. Bizitza erabilgarria modu fidagarrian zenbatesterik ez dagoelarik, amortizazioaren kenkariaren gehieneko muga, urtean, haren zenbatekoaren hamarrena izanen da.

Merkataritzako funtsaren amortizazioaren kenkariaren gehieneko muga, urtean, haren zenbatekoaren hamarrena izanen da.

2. Aktiboa errentak ematen hasten denetik aurrera hasiko da amortizazioa".

Bi. 17.4, 18. eta 21. artikulua. Indargabetzea

Hiru. 40. artikulua, 1. eta 3. idatz-zatiak.

"1. Zerga-oinarri positiboari aurre-aurreko hamabost urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboak murrizten ahalko zaizkio, murrizketa hori egin aurretik zerga-oinarriak zuen zenbatekoaren ehuneko 70eko mugarekin. Likidazio-oinarri negatibo horiek kasuko likidazioa edo autolikidazioa egina beharko dute."

Edozein kasutan, zergaldian konpentsatzen ahalko diren likidazio-oinarri negatiboen gehieneko zenbatekoa milioi bat eurokoa izanen da. Zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, muga hori hau izanen da: milioi bat euro bider zergaldiaren iraupenak urtearekiko duen proportzioa.

Likidazio oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzea ez da aplikatzekoa izanen subjektu pasiboaren hartzekodunekin lortutako akordio baten ondoriozkoak diren kitei edo itzaroteei dagozkien errenten zenbatekoan. Errenta horiekin konpentsatzen diren zerga-oinarri negatiboak ez dira kontuan hartuko aurreko leerroaldean aipatzen den milioi 1 euroko zenbatekoari dagokionez.

Idatz-zati honetan aurreikusitako muga ez da aplikatuko entitatea desagertzen den zergaldian, salbu eta desagertzea X. tituluko IX. kapituluan ezarritako zerga araubide berezia aplikatzekoa zaion birmoldaketa baten ondorioa bada".

"3. Zerga-oinarria positiboa den lehen zergaldia hasten denetik hurrengo hamabost urteetan, jarraian, amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarrietan murriztapena egin dezakete entitate eratu berriek sortutako likidazio-oinarri negatiboek, eta kasu horretan ez da aplikatzekoa izanen artikulua honen 1. idatz-zatiko lehen leerroaldean ezarritako muga zerga-oinarri positiboa sortzen den lehen 3 zergaldietan.

Enpresen oinordetza edo jarraipen kasuak ez daude sartuta idatz-zati honetan".

Lau. 50.1.a) artikulua.

"a) Ehuneko 28".

Bost. 50.1.b).b') artikulua, lehenengo leerroaldea.

b') Aurreko a') letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren ehuneko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko funtsak edo sozietateak badira, eta partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada".

Sei. 50.1.b artikulua, c') azpiletra gehitzea.

"c') b) letra honetan enpresa txikiengatik arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren erdia bada, gutxienez".

Zazpi. 50.2. artikulua, g) letra kentzea.

Zortzi. 50.3.a) artikulua

"a) Zerga arloan babestuen dauden sozietate kooperatiboak, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Nolanahi ere, kreditu kooperatibek eta rural kutxek ehuneko 25eko zerga-tasa ordainduko dute kooperatibaren emaitzetan nahiz kooperatibaz kanpokoetan".

Bederatzi. 50.5. artikulua, a) letra indargabetzea.

Hamar. 51. artikulua.

"51. artikulua. Kuota osoa eta gutxienerako tributazioa.

1. Kuota osoa likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa izanen da.

2. 50. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako karga-tasen arabera tributatzen duten subjektu pasiboen kasuan, kuota osoari hobariak eta kenkariak aplikatuz ateratzen den zenbatekoa ez da izanen hurrengo idatz-zatian definitzen den gutxienerako tributazioa baino txikiagoa; aplikazio horretatik kanpo daude ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduketak egiteagatik ekitaldian aplikatutako kenkariaren erdia (kenkaria 66. artikuluan arautua dago). 50.1.b) artikuluan ezarritako karga-tasen arabera tributatzen duten subjektu pasiboen kasuan, salbuespen horrek kenkari osoa hartuko du.

3., Gutxienerako tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da:

Lehena. Ekitaldian kuotari aplikatutako hobarien eta 59. artikuluan aipatutako barne zergapetze bikoitza galarazteko ekitaldian egindako kenkariaren batura karga-tasarekin zatituta ateratzen den zenbatekoa adina gutxituko da likidazio-oinarria.

Bigarrena. Lortutako zenbatekoari ehuneko 13 aplikatuko zaio.

Hirugarrena. Aurreko eragiketaren emaitzari nazioarteko zergapetze bikoitzeko kenkariak kenduko zaizkio, ekitaldian aplikatu direnak.

4. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko 50.3 artikuluan aipatzen diren entitateetan, 50.1. artikuluan aipatutako karga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez".

Hamaika. 64.c) artikulua.

"c) Inbertsioaren xedea den aktibo multzoaren zenbatekoa ez izatea 6.000 eurotik beherakoa, eta ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinaren gaineko inbertsioen alde aurreko kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 10etik gorakoa izatea ekitaldi bakoitzean, amortizazioak kenduta. Ekitaldian egindako inbertsioen zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa bada, aurreko ehuneko 5era murriztuko da.

Kontabilitate-balioa zehazteko, inbertsioa egiten den ekitaldiaren aurre-aurreko zergaldiko azken egunari dagokion balantzeari begiratuko zaio, data horretan indarrean den inbertsioaren xede den aktibo finkoari dagokiona kontatu gabe".

Hamabi. 67. artikulua.

"67. artikulua. Babesletza jarduerak eragindako publizitate gastuengatikoen kenkaria.

1. Interes sozialaren deklarazioa duten kirol, kultur eta gizarte laguntzako jardueren babesletza kontratuak eragindako publizitate gastuek eskubidea emanen dute kuota likidoan kenkaria egiteko, ordaindutako zenbatekoei, ondasun edo eskubideen entregei eta zerbitzuen prestazioei eskala honetako ehunekoak aplikatuta ateratzen den zenbatekoa adinakoa:

KENKARIAREN OINARRIA	APLIKATU BEHARREKO PORTZENTAJEA
30.000 euro bitarte, hori barne	%30.
60.000 euro bitarte, hori barne	%35.
60.000 eurotik gorako zatia	%40.

Interes sozialaren deklarazioa Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunak egiten dute, eta bertan tramitatuko dira kasuan kasuko espedienteak.

2. Kenkariaren oinarria honako hauek osatuko dute:

a) Ordaindutako kopuruen zenbatekoa.

b) Ondasun edo eskubideen entregak direnean, haien kontabilitate-balio garbia, merkatuko batez besteko prezioa gaindi ez dezakeena.

c) Zerbitzuak ematen direnean, haien kostua, lagatuko ondasunen amortizazioa barne, halakorik dagoenean".

Hamahiru. 70. artikulua, 1. idatz-zatiko azken lehen zatia eta 2. idatz-zatiko azken zatia lehen zatia.

"1. idatz-zati honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72.3. artikuluan aipatzen den mugatik. Muga hori kalkulatzaren ondorioetarako, kenkari hori ez da kontatuko".

"2. idatz-zatian aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72.3. artikuluan aipatzen den mugatik. Muga hori kalkulatzaren ondorioetarako, kenkari hori ez da kontatuko".

Hamalau. 71.1. artikulua. 2., 3. eta 6.

"1. Ekitaldian zehar plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 5.000 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan, haren soldata lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,5 baino handiagoa bada; horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hamabi hilabetean plantillan kontratu mota hori zutenen batez bestekoa. Ondorio horietarako, entitate sortu berrien kasuan zero langile kontatuko dute sortu aurreko denborari dagokionez.

Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, kontuan hartuko dira soilik lan-kontratu mugagabea eta soldata lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,5 baino handiagoa duten langileak, urteko. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen arabera proportzioan kontatuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari legokiokeena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa mantendu, eta plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, betiere lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa dutenena, eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 2.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztu, eta plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, betiere lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa dutenena, aurreko lerroaldean aipatutako kenkaria gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez besteko murrizketaren arteko diferentzia positiboan egingen da.

3. Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako kenkariak 6.800 eta 3.200 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, plantillan desgaitasuna duten langileen batez bestekoari gehitzen zaion langile bakoitzeko, urtean, betiere langile horiek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan, xedatutakoari jarraikiz kontratatu badira; bereizirik kalkulatu da, aurreko idatz-zatietan ezarritako prozeduren bidez".

"6. Aurreko idatz-zatietako kenkariak bateraezinak dira elkarren artean.

Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoarekin bat egoki diren kenkariak izateko, beharrezkoa izanen da kenkaria sortzen den zergaldian plantillaren batez bestekoa, lan-kontratu mugagabea eta lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa den soldata dutenena, kenkaria sortu zen zergaldia amaitu eta ondo-ondoko hogeita lau hilabeteko batez bestekoa baino txikiagoa izatea, edo horren berdina.

Kenkaria sortzen den zergaldian plantillaren batez bestekoa, lan-kontratu mugagabea eta lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa dutenena, handiagoa baldin bada zergaldi horren ondo-ondoko hogeita lau hilabeteen baino, subjektu pasiboak honi dagokion kenkaria galduko du: sortu duen kenkaria, batetik, eta, bestetik, ondoko hogeita lau hilabete horietako plantillaren batez bestekoaren (lan-kontratu mugagabea eta lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa dutenena) arabera kalkulatu zegoen kenkaria, bi horiek alderatuta ateratzen den diferentziaren zenbatekoari dagokiona.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako, kenkaria aplikatu baldin bada plantillaren batez bestekoa, lan-kontratu mugagabea eta lanbide arteko gutxienerako soldata halako 1,5 baino handiagoa dutenena, mantendu beharreko hogeita lau hilabeteko aldia amaitu baino lehen, hogeita lau hilabete horiek amaitzen diren ekitaldiari dagokion aitopenean desegoki aplikatutako zenbatekoa ordaindu beharko da, dagozkion berandutza interesekin batera".

Hamabost. 72.7. artikulua.

"7. Kenkariok subjektu pasiboak bere borondatez eginiko aitopenetik ateratako kuotari aplikatuko zaizkio, bai eta Administrazioak gauzatutako tributu erregularizaziotik ateratzen den kuotari ere, tributuen arloko arau-hausteagatik erantzukizunik eragin ez badu".

Hamabost bis. 74.3. artikulua:

"3. Era berean, Nafarroan energia elektriko berriztagarria ekoizten duten instalazioen titular edo titularkide diren subjektu pasiboentzat, instalazio bakoitzeko potentzia instalatu nominala 100 kW-etik beherakoa denean, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela- eta Nafarroako Zerga Ogasunari ordaindutako tributu kuotak konturako ordainketatzat hartuko dira eta kengarriak izanen dira.

Kenkaria ordainketa egin den zergaldian ordaindutako tributu kuotengatik aplikatuko da, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren autolikidazioa eta ordainketa zatikatua zer zergaldiri dagozkion kontuan hartu gabe.

Energia elektrikoa ekoizteko instalazioen titularkideen kasuan, berriz, kenkaria eginen da kasu bakoitzean aplikatzekoak diren titulartasun juridikoari buruzko arau edo itunen arabera, eta modu frogagarrian jasota ez baleude, zerga administrazioak ulertuko du kenkaria erdi bana egin beharra dagoela.

Kenkariaren zenbatekoa ez da 500 eurotik gorakoa izanen subjektu pasibo bakoitzeko.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren titularrak foru agindu bidez arautuko ditu kenkari hau aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak".

Hamasei. 110.10. artikulua, hirugarren leerroaldea.

Kenkari hori aplikatuko da, betiere, kapital-arriskuko entitateek eskaturik, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak berariazko baimena ematen badu".

Hamazazpi. 112. artikulua.

"112. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkideen edo partaideen tributazioa

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide edo partaideek honako kontzeptu hauek sartuko dituzte zerga-oinarrian:

a) Akzioen edo partaidetzen eskualdaketaren ondorioz edo partaidetzen errenboltsoaren ondorioz lortutako errenta, positiboa nahiz negatiboa.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak. Mozkin horiek ez dute eskubiderik sortuko ezarpen bikoitzagatik kenkaria egiteko.

2. Artikulu honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren bidez araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei, baldin eta erakunde horiek ez badira foru lege honen 114. artikuluan aipatzen direnetakoak, Europar Batasuneko kide den estaturen batean eratuak eta helbideratuak badaude eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro berezian inskribaturik badaude, Espainiako egoiliarak diren entitateek merkaturatzearen ondorioetarako".

Hemezortzi. 113. artikulua. Indargabetzea.

Hemeretzi. 116. artikulua:

"116. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Talde fiskalak subjektu pasiboaren izaera izanen du.

2. Talde fiskalaren entitate ordezkariak zerga-baterakuntzaren araubideak sortutako zerga arloko betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu. Talde fiskalaren entitate ordezkaria entitate nagusia izanen da Espainiako lurraldeko egoiliarra denean, edo talde fiskalak izendatzen duen entitatea, entitate nagusia izateko baldintzak betetzen dituen eta Espainiako lurraldeko egoiliarra den entitaterik ez dagoenean taldean.

3. Talde fiskala osatzen duten entitateek ere banakako tributazio araubideak dakartzan zerga betebeharrak bete beharko dituzte, araubide horretako tributu zorraren ordainketa izan ezik.

4. Talde fiskaleko edozein entitateri Administrazioak, taldearen ordezkaria den entitateak horren berri formala izanda, egindako egiaztapen eta ikerketa lanak direla eta, eten eginen da talde fiskal horri eragiten dion sozietateen gaineko zergaren preskripzio epea".

Hogei. 117. artikulua.

"117. artikulua. Zerga taldearen definizioa. Entitate nagusia. Menpeko entitateak.

1. Talde fiskala hau da: Espainiako lurraldeko egoiliarak diren eta artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateen multzoa, sozietate anonimoak, mugatuak eta akzio bidezko sozietate komanditarioak badira, bai eta artikulu honen 3. idatz-zatian aipatzen diren banku-fundazioak ere.

Espainiako lurraldeko edo paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarra ez den entitate bat, nortasun juridikoa duena eta zerga honen berdina edo parekoa den zerga bati lotuta dagoena, ez salbuetsia, entitate nagusia denean menpeko bi entitaterekiko edo gehiagorekiko, talde fiskala 3. idatz-zatian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten menpeko entitate guztiek osatuko dute.

Zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzearen ondorioetarako soilik, entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak entitate ez-egoiliar horiek kapitalaren ehuneko 100ean eta boto eskubideetan partaidetutako entitate egoiliarrek izanen dira.

Talde fiskaleko entitate nagusia Espainiako lurraldeko entitate egoiliar bat denean, eta sozietateen gaineko zergan banakako tributazioaren araubidean lurralde erkideko araudiaren menpe dagoenean, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, talde fiskalaren zerga arloko tratamendua entitate nagusia Espainiako lurraldeko ez-egoiliarra duten talde fiskalen parekoa izanen da.

2. Baldintza hauek betetzen dituena izanen da entitate nagusia:

a) Nortasun juridikoa izatea eta sozietateen gaineko zergari edo zerga honen berdina edo parekoa denari loturik egotea, ez salbuetsia, betiere paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarra ez bada. Espainiako lurraldeko entitate ez-egoiliarrek, paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarrek ere ez direnek, Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrak entitate nagusitzat hartzen ahalko dira, establezimendu horiei atxikitako partaidetzak dituzten entitateei dagokienez.

b) Tributazio araubide hau aplikatzeko den zergaldiko lehenbiziko egunean, menpeko izaera duen beste entitate baten edo batzuen kapital sozialean 100eko 75eko partaidetza edo handiagoa izatea, zuzenean edo zeharka, eta boto eskubideen gehiengoa.

Merkatu arautu batean negoziatorako onartzen diren akzioak dituzten entitateen kasuan, aurreko ehuneko 70ekoa izanen da gutxienez. Bigarren ehuneko hori aplikatuko da, orobat, beste entitate batzuetan zeharkako partaidetzak izanez gero, betiere ehuneko horretara iristen baldin bada merkatu arautu batean negoziatorako onartzen diren akzioak dituzten entitate partaidetuen bitartez.

c) Partaidetza eta boto eskubideak zergaldi osoan mantentzea. Baldintza hori ez da eskatuko entitate partaidetua desegiten bada.

d) Entitate nagusitzat hartzeko baldintzak betetzen dituen beste baten menpekoa ez izatea zuzenean nahiz zeharka.

e) Interes ekonomikoko elkarteen, espainiar zein europarren, nahiz enpresen aldi baterako batasunen araubide bereziaren menpekoa ez izatea, edo bi horien parekoa den bestelako araubideen menpekoa.

f) Espainiako lurraldeko entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorren kasuan, entitate horiek ez izatea entitate nagusitzat hartzeko baldintzak betetzen dituen beste entitate baten menpekoak zuzenean nahiz zeharka, eta paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarra ez izatea.

3. Entitate nagusi batek aurreko zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen diren baldintzak betetzen dituen partaidetza duenean entitate batean, bigarren entitate hori menpeko entitatea izanen da; Espainiako lurraldeko egoiliarrek ez diren establezimendu iraunkorrak ere menpeko entitateak izanen dira, entitate batek aurreko idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen baditu haiei dagokionez.

Kreditu-entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatutako babeseko erakunde-sistema batean integratutako kreditu entitateek ere izaera hori bera izanen dute, betiere sistemako entitate zentrala talde fiskaleko kidea bada.

Menpeko entitatetzat hartuko dira, halaber, Aurrezki-kutxei eta Banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen 43.1 artikuluan aipatzen diren banku-fundazioak, baldin eta talde fiskaleko entitate nagusia ez badira, bai eta kreditu entitatean partaidetza izateko bide ematen duten entitateek osotara partaidetua den edozein entitate ere.

4. Ondoren aipatzen diren ezaugarrietako bat betetzen duten entitateak ezin dira zerga talde bateko kide izan:

a) Espainiako lurraldeko egoiliarra ez izatea.

b) Zerga honetatik salbuetsirik egotea.

c) Zergaldia ixten denean, konkurtso egoeran deklaraturata egotea, eta konkurtsoaren deklarazioak ondorioak dituen zergaldietan.

b) Zergaldia ixten denean, uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital-sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 363.1.e) artikuluan aurreikusitako ondare egoeran egotea, bere urteko kontuen arabera, salbu eta urteko kontuak onetsi behar direneko ekitaldia amaitu baino lehen egoera hori gaingitu baldin badute.

e) Sozietateen gaineko zerga ordaindu behar duten menpeko entitateak izanik, haien kargatasa talde fiskalaren entitate ordezkariarena ez izatea.

f) Menpeko sozietateak, haien sozietatearen ekitaldia, legeak agindurik zehaztua, ezin bazaio egokitu entitate ordezkariak duenari.

5. Entitate nagusiak bere izaera galtzen duenean talde fiskala iraungi egingen da.

Halere, talde fiskala ez da iraungiko entitate nagusiak bere izaera galtzen duenean eta Espainiako lurraldeko ez-egoiliarra denean, baldin eta menpeko entitate guztiek zerga-baterakuntzako taldea izateko baldintzak betetzen jarraitzen badute, salbu eta beste talde fiskal batean sartzen badira.

6. Banku-fundazio batek talde fiskal bateko entitate nagusiaren izaera galtzen badu zergaldi batean, kreditu entitatea subrogatu egingen da izaera horretan zergaldiaren hasieratik, eta ez dira gertatuko talde fiskalaren iraungipenaren ondorioak, 131. artikuluan aipatzen direnak, salbu eta 3. idatz-zatian adierazitako baldintzetan menpeko izaera ez izateagatik talde fiskaletik kanpo gelditzen diren entitateen kasuan.

7. Aktiboen kudeaketarako sozietateak, Finantza-sektoreko Higiezin Aktiboak Saneatu eta Saltzeari buruzko urriaren 30eko 8/2012 Legean xedatutakoarekin bat eratutakoak, kreditu entitateen talde fiskalean sartuko dira, baldin eta 2. idatz-zatiko b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen badira".

Hogeita bat. 118. artikulua.

"118. artikulua. Sozietateak talde fiskalean sartzea edo hortik kanpo gelditzea.

1. Entitate baten partaidetza, zuzena nahiz zeharkakoa, aurreko artikuluko 2.b) definitu denaren modukoa, eskuratzen denean, eta idatz-zati horretan adierazitako gainerako baldintzak betetzen direnean, entitate hori talde fiskalean sartuko da nahitaez, hurrengo zergaldian ondorioak izateko. Entitate sortu berrien kasuan, eratzen den unetik beretik sartuko da taldean, baldin eta eratzen den unean talde fiskaleko kide izateko gainerako baldintzak betetzen baditu.

2. Menpeko entitateek izaera hori galtzen badute, talde fiskaletik kanpo geldituko dira, eta izaera galtzen den zergaldian bertan izanen ditu ondorioak".

Hogeita bi. 119. artikulua:

"119. artikulua. Nagusitasuna eta boto eskubideak zehaztea zeharkako partaidetzetan.

1. Entitate batek partaidetza duenean beste entitate batean, eta bigarrenak hirugarren batean, eta, horrela, gehiagotan, lehenak beste entitateetan duen zeharkako partaidetza zehazteko, kapitalaren sozialean dituen partaidetza-ehunekoak elkarren artean biderkatuko dira, hurrenez hurren, halako moduan non biderketa horien emaitza kapital sozialaren ehuneko 75 izan beharko baita gutxienez, edo ehuneko 70, akzioak merkatu arautuan negoziatorako onarturik dituzten entitateak direnean, edo azken horiek zuzenean nahiz zeharka partaidetutako entitateak.

2. Talde fiskal batean zeharkako eta zuzeneko partaidetza-harremanak badaude, entitate batek beste batean duen partaidetza osoa kalkulatzeko, hots, lehenbiziko entitateak zuzenean edo zeharka kontrolatzen duen entitate batean duena, zuzeneko eta zeharkako partaidetza-ehunekoak batuko dira. Entitate partaidetuak zerga taldean sartu beharko izateko, batura hori, gutxienez, kapital sozialaren 100eko 75 adinakoa izan beharko da edo, gutxienez, 100eko 70ekoa, merkatu arautu batean negoziatorako onartzen diren akzioak dituzten entitateen kasuan edo zuzenean edo zeharka horrelako entitateek partaidetutako entitateak direnean, betiere entitate horien bidez ehuneko horretara iristen badira.

3. Entitateen arteko harremanetan elkarrekiko partaidetza, partaidetza zirkularra edo konplexua badago, datu objektiboen bidez frogatu beharko da partaidetza kapital sozialaren 100eko 75ekoa dela, gutxienez, edo 100eko 70ekoa, gutxienez, merkatu arautu batean negoziatorako onartzen diren akzioak dituzten entitateen kasuan edo zuzenean edo zeharka horrelako entitateek partaidetutako entitateen kasuan, betiere entitate horien bidez ehuneko horretara iristen badira.

4. Boto eskubideak zehazteko, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onetsi ziren urteko kontu bateratuak egiteko neurrietan, 3. artikuluan, ezarritakoa aplikatuko da".

Hogeita hiru. 120. artikulua.

"120. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubidearen aplikazioa.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea talde fiskala osatu behar duten entitate guzti-guztiek hala erabakitzen dutenean aplikatuko da.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren erabakiak Administrazio Kontseiluak hartu beharko ditu -edo horren baliokidea den organoak-, eta zerga-baterakuntzako araubidea aplikatuko den zergaldiaren aurre-aurreko zergaldiko edozein egunetan hartzen ahal dira.

3. Hurrenez hurren talde fiskalean sartzen diren entitateek aurreko idatz-zatietan aipatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte, eta horretarako epea -erga baterakuntzako araubidean tributatu behar duten lehen zergaldia amaitzen den egunean amaituko da.

4. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako erabakiak hartzen ez badira, ezinezkoa izanen da zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzea.

Talde fiskalean hurrenez hurren sartu beharreko entitateek erabakia ez hartzeak entitate ordezkariaren tributu arloko arau-hauste sinplea ekarriko du, eta 10.000 eta 20.000 euro bitarteko isuna ezarriko zaio, araubidea baldintza hori bete gabe aplikatu den lehen zergaldiagatik, eta 30.000 eta 50.000 euro bitarteko isuna bigarren eta hurrengo zergaldiengatik, eragotzi gabe ukitutako entitateak taldean egiazki sartzea.

5. Behin aukera eginda, talde fiskala araubide honi lotuta geratuko da, mugarik gabe, hurrengo zergaldietan, 117. artikuluko betebeharrak betetzen badira eta ez bada jakinarazten uko egiten zaiola hori aplikatzeari; jakinarazpen hori bi hilabeteko epean egin beharko da, araubide hori aplikatu den azken zergaldia amaitzen denetik aitzina.

6. Talde fiskaleko entitate ordezkariak Nafarroako Zerga Ogasunari jakinaraziko dizkio 1. idatz-zatian aipatzen diren erabakiak, araubide hau aplikatzeko den zergaldia hasi baino lehen.

117.1 artikuluko bigarren lerroaldean ezarritako baldintzetan eraturako talde fiskal baten kasuan, entitate ordezkariak aurreko lerroaldean aurreikusitako moduan jakinaraziko du Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate nagusiak hartutako erabakia, talde fiskalaren entitate ordezkaria izendatzen duena alegia. Erabaki hori ez jakinarazteak 4. idatz-zatian ezarritako ondorioak izanen ditu.

Halaber, talde fiskalaren osaketan aldaketak izaten direnean, entitate ordezkariak, zergaldi bakoitza amaitu baino lehen, Nafarroako Zerga Ogasunari adieraziko dio zer osaketa izan duen taldeak zergaldi horretan, zer entitate sartu diren taldean eta zein atera diren adierazita. “

Hogeita lau. 121. artikulua.

"121. artikulua. Talde fiskalaren zerga-oinarria zehaztea.

1. Honela zehaztuko da talde fiskalaren zerga-oinarria:

a) Talde fiskalekoak diren entitate guztien banan banako zerga-oinarriak batuz, banakako oinarri negatiboengatik murriztapenak sartu gabe, 121. bis artikuluan jasotako berezitasuna kontuan harturik. Nolanahi ere, kontabilitateko emaitza zehazteko kontabilitatearen arloko araudian ezarritako betebeharrak edo kalifikazioak, bai eta emaitzari edozein doikuntza egiteko foru lege honetan ezarritakoak, 13.3 artikuluan adierazitako moduan, talde fiskalari dagozkiola ulertuko da.

b) Ezabapenak eginez.

c) Aurreko zergaldietan egindako ezabapenak gaineratuz, 123. artikulua arabera egokia denean.

2., Talde fiskalaren zerga-oinarria zehazterakoan, honako hau ez da zergaren ondorioetarako kontu-sail kengarria izanen: entitate nagusiak, zuzenean edo zeharka, menpeko sozietateen kapitalean dituen partaidetzen kontabilitate-balioaren eta menpeko sozietate horien funts berekiei dagokionez balio horiek egiten duten zati proportzionalaren arteko diferentzia positiboa.

Diferentzia negatiboa ez da kargatu beharreko errenta izanen.

Aurreko bi lerroaldeetan aipatzen den diferentzia menpeko sozietatea edo sozietateak talde fiskalean lehenbiziko aldiz sartzen diren egunean dagoena izanen da.

3. Talde fiskaleko entitate batek taldeko kide izateari uzten dionean. haren partaidetza eskualdatzearen ondoriozko errenta negatiboen zenbatekoa murriztuko da, eskualdatutako entitateak talde fiskalaren barnean sortutako zerga-oinarri negatiboen zenbatekoan, betiere taldearen barnean konpentsatu badira".

Hogeita bost. 121. bis artikulua gehitzea.

"121. bis artikulua. Talde fiskala osatzen duten entitateen banakako zerga-oinarriak zehaztean aplikatzekoa den arau berezia.

Talde fiskala osatzen duten entitateen banakako zerga-oinarriak, 121.1.a) artikulua aipatzen dituenak, foru lege honetan aurreikusitako arau orokorren arabera zehaztuko dira, berezitasun honekin:

38. artikuluan finantza gastuen kengarritasunari dagokionez ezarritako muga talde fiskalari aplikatuko zaio. Muga hori ez da aplikatuko entitatea iraungitzen den kasuan, salbu eta iraungipena talde fiskalaren barruan gertatzen bada eta iraungitako entitateak kenkaria egin gabeko finantza gastuak baditu taldean sartzeko unean.

Hala ere, zerga baterakuntzaren araubidean izaera hori ez duten entitateekin batera tributatzen duten kreditu-entitateen edo aseguratzaileen kasuan, 38. artikuluan ezarritako muga lehen entitate horien etekin operatiboa eta finantza gastu garbiak kontuan harturik kalkulatu da, bai eta talde osoari dagokionez kontuan hartu beharreko ezabapenak eta gaineratutakoak".

Hogeita sei. 121.ter artikulua gehitzea.

"121. ter artikulua. Entitateak talde fiskalean sartzeari buruzko arau berezia.

Entitate bat talde fiskalean sartzen bada, talde fiskalaren zerga-oinarria zehazteko arau hau aplikatuko da:

Talde fiskalean sartzean kenkaria egin gabe zituen finantza gastu garbien kenkaria –38. artikuluan aipatzen direnena– entitatearen beraren etekin operatiboaren ehuneko 30eko mugarekin eginen da, kontuan harturik entitate horri dagozkion ezabapenak eta gaineratutakoak, 122. eta 123. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat. Finantza gastu horiek 38.1 artikuluan aipatzen den mugan ere hartuko dira kontuan.

Era berean, 38.2 artikuluan ezarritako diferentzia, entitate batek talde fiskalean sartu aurretik sortutakoa, aplikatzekoa izanen da entitateak berak sortutako finantza gastuei dagokienez".

Hogeita zazpi. 122. artikulua.

"122. artikulua. Ezabapenak.

Ezabapenak irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onetsitako urteko kontu bateratuak egiteko arauetan ezarritako irizpideekin bat eginen dira, betiere banakako zerga-oinarriei eragiten badiete eta foru lege honetan berariaz aurreikusitakoa kontuan hartuta".

Hogeita zortzi. 123. artikulua.

"123. artikulua. Gaineratutakoak.

1. Ezabatutako emaitzak talde fiskalaren zerga-oinarrian sartuko dira irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onetsi ziren urteko kontu bateratuak egiteko arauetan hala ezartzen denean.

Halere, ezabatutako emaitzak emaitza horiek sortu dituen eta talde fiskaletik kanpo gelditu den entitatearen banakako zerga-oinarrian sartuko dira entitatea taldetik kanpo gelditzen den zergaldian.

2. 37. artikuluan aurreikusitako murriztapenari dagozkion diru-sarrerak hirugarrenetik egin diren zergaldian sartuko dira talde fiskalaren zerga-oinarrian, eta, kasu horretan, aktibo haien lagapenak 28.2 artikuluan aipatzen diren dokumentazio betebeharrak bete beharko ditu".

Hogeita bederatzi. 124. artikulua.

"124. artikulua. Zerga-oinarriaren murriztapenak.

1. Talde fiskalaren zerga-oinarria talde horren likidazio oinarri negatiboak kenduz murrizten ahalko da, 40. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Talde fiskalean sartzen den unean edozein entitatek likidazio oinarri negatiboak konpentsatu gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, entitatearen beraren zerga-oinarriaren ehuneko 70eko mugarekin, eta zerga-oinarri horretatik kenduko dira -aipatu ondorioetarako soilik- dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, foru lege honetako 59.2 artikulua aipatzen dituenak, entitate horri dagozkion ezabapenak eta gaineratutakoak kontuan harturik, 122. eta 123. artikuluetan ezarritakoarekin bat

2. Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren kasuan, foru lege honen 41.2 artikuluan adierazitako murriztapenaren muga talde fiskalaren zerga-oinarriari dagokio. Erreserba hori zuzkidura egin zuen entitateak berak edo taldeko beste batek gauzatzen ahalko du. Azkeneko kasu horretan, zuzkidura egin zuen entitateak eta erreserba gauzatu zuenak behar den informazioa eman beharko diote elkarri foru lege honen 44. eta 45. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzeko".

Hogeita hamar. 125. artikulua.

"125. artikulua. Berrinbertsioa.

1. Talde fiskaleko sozietateek 36. artikuluan aipatzen den zerga onurari heltzen ahalko diote. Aparteko onura lortu zuen entitateak berak edo taldeko beste batek egin dezake berrinbertsioa. Berrinbertsioa taldeko beste entitate bati elementu bat erosiz gauzatzen ahalko da, elementu hori berria izatearen baldintzarekin.

2. Onura fiskal hori ez da bidezkoa izanen talde fiskaleko entitateen artean egiten diren eskualdatzeen kasuan".

Hogeita hamaika. 126. artikulua.

"126. artikulua. Zergaldia.

1. Talde fiskalaren zergaldia haren entitate ordezkariarena izanen da.

2. Menpeko entitateetako batek zergaldi bat banakako tributazio araubidearen araudiari jarraikiz amaitzen badu, amaiera horrek ez du talde fiskalaren amaiera baldintzatuko".

Hogeita hamabi. 126. bis artikulua gehitzea.

"126. bis artikulua. Talde fiskalaren karga-tasa.

Talde fiskalaren karga-tasa haren entitate ordezkariarena izanen da".

Hogeita hamahiru. 127. artikulua.

"127. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoa.

Talde fiskalaren kuota osoa kasuan kasuko karga-tasa, aurreko artikuluen arabera, Talde fiskalaren likidazio-oinarriari aplikatuta ateratzen den zenbatekoa izanen da".

Hogeita hamalau. 128. artikulua.

"128. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoaren kenkariak eta hobariak.

1. Talde fiskalaren kuota osoari VI. tituluko II., III. eta IV. kapituluetan eta 110.10 artikuluan aurreikusitako kenkarien eta hobarien zenbatekoa kenduko zaio, bai eta aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein kenkari ere.

Aipatutako kenkariak eta hobariak aplikatzeko ezarri diren baldintzak, baita ezarritako salbuespen-araubidea aplikatzekoak ere, talde fiskalari dagozkie.

2. Talde fiskalean sartzen den unean edozein entitatek aplikatu gabe dituen kenkariak taldearen kuota osoan kentzen ahalko dira, eta muga entitate horri tributaziorako banakako araubidean egokitu zaiona izanen da, entitate horri dagozkion ezabapenak eta gaineratutakoak kontuan harturik, 122. eta 123. artikuluetan ezarritakoarekin bat".

Hogeita hamabost. 129. artikulua.

"129. artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

1. Zergaren ondorioetarako, talde fiskaleko entitate ordezkariak balantzea, galera eta irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak azalduko dituen egoera-orri eta eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua egin behar izanen ditu, talde fiskala osatzen duten sozietate guztiei integrazio orokorreko metodoa ezarri.

2. Egoera-orri bateratuen itxiera data eta zergaldia talde fiskalaren entitate ordezkariaren urteko kontuenak izanen dira, eta talde fiskala osatzen duten gainerako entitateek entitate ordezkariak egiten duen datan itxiko dute ekitaldi soziala.

3. Aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren agiriekin batera informazio hau ere aurkeztu beharko da:

a) Aurreko zergaldietan egindako ezabapenak, gaineratzeko daudenak.

b) Zergaldian egindako ezabapenak, haien jatorria eta zenbatekoa behar bezala justifikatuta.

c) Zergaldian gaineratutakoak, haien jatorria eta zenbatekoa behar bezala justifikatuta.

d) Talde fiskalaren zerga-oinarria zehazteko egindako ezabapenen eta gaineratutakoen eta 1. idatz-zatian aipatzen diren dokumentuak egiteko ondorioetarako egindakoen artean egon daitezkeen diferentziak, behar bezala azaldu".

Hogeita hamasei. 130. artikulua.

"130. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzea dakarten arrazoiak.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea arrazoi hauengatik galduko da:

a) Talde fiskaleko entitate batean edo batzuetan zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzea eskatzen duten inguruabarretako bat gertatzea.

b) Aurreko artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren informazio eman beharrak ez betetzea.

2. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzeak aurreko idatz-zatian aipatzen diren arrazoietako bat edo batzuk gertatzen diren zergaldian bertan izanzen ditu ondorioak, eta talde fiskala osatzen duten entitateek banakako araubidean tributatu dute zergaldi horretan".

Hogeita hamazazpi. 131. artikulua.

"131. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzearen eta talde fiskala desagertzearen ondorioak.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzen bada, edo talde fiskala iraungitzen bada, hau egin beharko da:

a) Gaineratu gabe dauden ezabapenak taldea osatzen duten entitateen banakako zerga-oinarrian sartuko dira, ezabapenaren xede den errenta sortu duten heinean.

b) Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian talde fiskala osatzen duten entitateek hau hartu beharko dute bere gain:

Lehena. Talde fiskalaren finantza gastu garbiak, kenkaria egin gabekoak, 38. artikuluan aipatzen direnak, horiek eratzen esku hartu duten proportzioan.

Bigarrena. 38.2 artikuluan ezarritako diferentzia, horiek eratzen esku hartu duten proportzioan.

Hirugarrena. Talde fiskalaren likidazio-oinarri negatiboengatik egin gabe dagoen murriztapena egiteko eskubidea, horiek eratzen esku hartu duten proportzioan.

Murriztapena 40. artikuluan ezarritako epea bete arte falta diren zergaldietan tributaziorako banakako araubidean zehazten diren zerga-oinarri positiboetan eginen da. 40. artikuluko epea talde fiskalaren likidazio-oinarri negatiboak zehaztu ziren zergaldiaren edo zergaldien hurrengotik edo hurrengoetatik aurrera hasiko da kontatzen.

Laugarrena. Talde fiskalak kuotan egin gabe dituen kenkariak aplikatzeko eskubidea, haiek eratzeko erabili diren proportzioan.

Egiteko dagoen kenkarirako foru lege honetan ezartzen den epea bete arte falta diren zergaldietan zehazten diren kuota osoetan eginen da kenkaria, eta epea kenkariaren zenbatekoak zehaztu ziren zergaldiaren edo zergaldien hurrengotik edo hurrengoetatik aurrera hasiko da kontatzen.

Bosgarrena. Talde fiskalak egindako zatikako ordainketen kenkarirako eskubidea, horiek eratzen esku hartu duten proportzioan.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa talde fiskala osatzen duten entitateetako bat edo batzuk taldetik kanpo gelditzen direnean aplikatuko da.

3. 124.2 eta 125.1 artikuluetan ezarritako kasuetan, Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren erabilera edo 36. artikuluan azaldutako berrinbertsioa talde fiskaleko beste entitate batek egiten badu, eta entitate hori taldetik ateratzen bada, hain zuzen ere 43.3 eta 36.2 artikuluetan, hurrenez hurren, inbertsioari eusteko ezarrita dauden gutxieneko epeak bukatu baino lehen, pizgarri horiek aplikatzeko betebeharrak hautsi direla ulertuko da, salbu eta Nafarroako Zerga Ogasunak horretarako berariazko baimena eman baldin badu, hori justifikatzen duten egoera berezietan.

4. Nolanahi ere, talde fiskal bateko entitate nagusia menpeko entitate bihurtzen denean, edo entitateren batek xurgatzen badu, X. tituluko IX. kapituluan jasotako zerga araubide bereziari lotutako bat-egite operazio baten bidez, eta horrek ekartzen badu bi kasuetan talde fiskalean sartutako entitate guztiak beste zerga talde batean sartzea, arau hauek aplikatuko dira:

a) Ez dira zerga-oinarrian sartuko gaineratu gabe dauden ezabapenak, beste talde fiskal batean sartzen diren entitateei dagokienez. Horiek beste talde fiskal horren zerga-oinarrian gaineratuko dira, 123. artikuluan ezarritako moduan.

b) Artikulu honen 1. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat, talde fiskal berrian sartzen diren entitateek bere gain hartzen dituzten eta kenkaria egin gabe dituzten finantza gastu garbien kenkaria entitate guztien etekin operatiboaren ehuneko 30eko mugarekin eginen da, kontuan harturik dagozkion ezabapenak eta gaineratutakoak, 122. eta 123. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

Era berean, entitate horiek bere gain hartuko duten diferentzia, 38.2 artikuluan ezarritakoa, entitate horiek batera sortutako finantza gastuei dagokienez aplikatuko da.

c) Talde fiskal berrian sartzen diren entitateek bere gain hartzen dituzten eta konpentsatu gabe dauden zerga-oinarri negatiboak talde fiskal berriak konpentsatzen ahalko ditu, eta muga talde fiskal berrian sartzen diren entitateen zerga-oinarrien batura izanen da, kontuan harturik dagozkion ezabapenak eta gaineratutakoak, 122. eta 123. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

d) Talde fiskal berrian sartzen diren entitateek bere gain hartzen dituzten eta aplikatu gabe dauden kenkariak talde fiskalaren kuota osoan egiten ahalko dira, eta muga talde berrian sartzen diren entitateen kuota osoen batura izanen da".

Hogeita hemezortzi. 132. artikulua.

"132. artikulua. Talde fiskalaren aitortpena, autolikidazioa eta ordainketa.

1. Talde fiskalaren entitate ordezkaria beharturik egonen da, talde fiskalaren aitortpena aurkezten duenean, dagokion tributu zorra likidatzera eta ordainketa egitera Nafarroako Zerga Ogasunak ezarritako tokian, moduan eta epeetan. Talde fiskalaren entitate ordezkariak betebeharrak berberak izanen ditu zatikako ordainketei dagokienez.

Baldin eta araubide hori aplikatu beharreko lehenbiziko zergaldian talde fiskalak erabiltzen badu ordainketa zatikatuaren modalitate bat aurreko zergaldi bateko benetako kuotan edo beste magnitude batzuetan oinarritzen dena, talde fiskaleko entitate ordezkariak, ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko ditu aipatutako benetako kuota eta, hala behar bada, beste magnitudeak, aurreko zergaldi horri dagozkionak, betiere ordainketa zatikatua zer zergaldiri dagokion zergaldi horretan talde fiskala osatzen duten entitateenak. Talde fiskalean entitateren bat sartzen bada edo hartatik kanpo gelditzen bada, talde fiskalaren entitate ordezkariak horren benetako kuota eta, hala behar denean, gainerako magnitudeak ere kontuan hartuko ditu."

2. Talde fiskalaren entitate ordezkariak banakako tributazioaren araubidean aitortpena egin beharko lukeen epean egin beharko da talde fiskalaren aitortpena.

3. Tributu zorren ordainketaren erantzukizun solidarioa izanen dute talde fiskaleko entitateek, zehapenak alde batera utzirik".

Hogeita hemeretzi. 133.2. Lehena. b) eta c) artikulua.

"b) Entitate batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere ondare sozialaren zati bat edo batzuk banatzen dituenean, eta blokean eskualdatzen dienean aurretik dauden edo sortu berriak diren entitate bati edo gehiagori, eta bere ondarean, gutxienez, jarduera-adar bat mantentzen badu entitate eskualdatzailean, edo beste entitate batzuen kapitaleko partaidetzak, entitate horien kapital sozialaren gehiengoa ematen diotenak, eta, horren trukean, entitate eskuratzaillearen kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak jasotzen dituenean, berauen partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkiena, kapital soziala eta erreserbak beharrezkoa den zenbatekoan gutxituz, eta, hala bada, diru-konpentsazio bat, aurreko letran ezarritakoaren araberakoa.

c) Entitate batek bere ondare sozialaren zati bat banatzen duenean, beste entitate batzuen kapital sozialaren gehiengoa egiten duten partaidetzekin osatua, eta blokean eskualdatzen dizkienean aurretik dauden edo sortu berriak diren beste entitate bati edo gehiagori, eta bere ondarean, gutxienez, antzeko partaidetzak mantentzen baditu beste entitate baten edo batzuen kapitalean, edo, bestela, jarduera-adar bat, eta, horren trukean, entitate horien kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak jasotzen dituenean, berauen partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkiena, kapital soziala eta erreserbak behar den neurrian murriztuz, eta, hala bada, diru-konpentsazio bat, aurreko a) letran ezarritakoaren araberakoa".

Berrogei. 133.4. artikulua.

"4. Jarduera-adarra hau dela ulertuko da: ustiapen ekonomikoa ezartzen duen autonomiadun unitate ekonomikoa osatzen ahal duen ondare-elementuen multzoa, hau da, bere baliabide propioen bidez jarduteko gai izanen den multzoa. Eskualdatuko diren elementuen antolamendurako edo funtzionamenduak sorraraziko zorrak esleitzen ahalko zaizkio entitate eskuratzailleari".

Berrogeita bat. 134.1.d) artikulua.

"d) Espainiako lurraldeko entitate egoiliarrek Europar Batasuneko kide diren estatueta lurraldeetan kokatutako establezimendu iraunkorrek bertako entitate egoiliarrei eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak, Europar Batasuneko kide diren estatueta sozietateen arteko bat-egiteei, zatiketei, zatiketa partzialei, aktiboen ekarpenei eta akzioen trukeei eta, orobat, europar sozietate edo europar sozietate kooperatibo baten helbidea Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzeari buruzko eragiketetan ezarri beharreko zerga araubide erkideari buruzko urriaren 19ko 2009/133/EE Zuzentarauaren I. eranskineko A zatian zehaztutako formatako bat dutenak eta berorren I. eranskineko B zatian aipatutako zergatiko bati loturik eta salbuetsi gabe daudenak".

Berrogeita bi. 134.1 artikulua, e) letra gehitzea.

"e) Espainiako lurraldeko entitate ez-egoiliarrek beren herrialdeko edo lurraldeko entitate egoiliarrei edo Europar Batasuneko entitate egoiliarrei Espainiako lurraldeko entitate egoiliarretako partaidetzak eskualdatzean dizkietenean agerian geratzen direnak, betiere, bigarren kasuan, entitate eskualdatzailea eta eskuratzaillea urriaren 19ko 2009/133/EE Zuzentarauaren I. eranskineko A zatian zehaztutako formatako bat dutenak eta berorren I. eranskineko B zatian aipatutako zergaren bati loturik eta salbuetsi gabe daudenak".

Berrogeita hiru. 134.1. artikuluko azken leerroaldea.

"Zerga-oinarritik kanpo geldituko dira idatz-zati honetan aipatutako eragiketetatik eratorritako errentak, nahiz eta entitate eskuratzaillea karga-tasa edo zerga araubide berezi baten onuraduna izan. Entitate eskuratzailleari aplikatzen zaion karga-tasa edo zerga araubide berezia eskualdatzailearen berdina ez denean, eragiketa egiten denean dauden ondare elementuak eragiketa izan eta gero eskualdatzetik eratorritako errenta modu linealean sortu dela ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, eskualdatutako elementua eduki den denbora guztian. Eragiketa egin arte sortutako errenta-zatiari entitate eskualdatzaileari legozkiokeen karga-tasa eta zerga araubidea ezarriko zaizkio".

Berrogeita lau. 135. artikulua.

"135. artikulua. Eskuratutako ondasunen balorazio fiskala.

1. Aurreko artikuluan ezarritako araubidea aplikatzekoa izan duten eragiketen ondoriozko eskualdaketen bidez eskuratutako ondasunak eta eskubideak baloratuko dira, zergaren ondorioetarako, entitate eskualdatzailean eragiketa egin aurretik zituzten balio berberen arabera, eta entitate eskualdatzaileak eskuratu zuen data ere mantenduko da 27. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako. Balio horiek eragiketa dela-eta zerga benetan ordaindu duten errenten zenbatekoan zuzenduko dira.

2. Aurreko artikuluan aurreikusitako araubidea aplikatzekoa ez den kasuetan, 26. artikulua arabera bidezkoa den balioa hartuko da.

3. Aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako ukoaren aukera eginez gero, eskuratutako ondasun eta eskubideak 26. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira. Kasu horretan, ondasun eta eskubide horien eskuratze data eskuratzeak merkataritzaren ondorioetarako eraginkortasuna hartzen duen eguna izanen da".

Berrogeita bost. 136. artikulua:

"136. artikulua. Ekarpeneren kontraprestazio gisa jasotako akzio edo partaidetzen balorazio fiskala.

Jarduera-adarren edo ondare-elementuen ekarpen baten ondorioz jasotako akzio edo partaidetzek jarduera-adarrak edo ondare-elementuek zuten balio bera izanen dute, zergaren ondorioetarako.

Halere, 134.2 artikuluan aurreikusitako ukoaren aukera eginez gero, jasotako akzio edo partaidetzak 26. artikuluan ezarritako arauen arabera baloratuko dira".

Berrogeita sei. 137. artikulua.

"137. artikulua. Balore-trukearen zerga araubidea.

1. Balore-trukea dela-eta agerian geratzen diren errentak ez dira zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian sartuko, betiere baldintza hauek betetzen baldin badira:

a) Balore-trukea burutzen duten bazkideak Espainiako lurraldeko, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko, edo beste edozein estatutako egoiliarra izatea, betiere, azken kasu honetan, jasotako baloreek egoitza Espainiako entitate egoiliar baten kapital sozialaren ordezkagarriak direnean.

Bazkidea errenta-eratzikitzeko araubideko entitatea denean, balore-trukean sortutako errenta ez da bazkide horren bazkide, oinorde, erkide edo partaide diren pertsonen edo entitateen zerga-oinarrian sartuko, baldin eta eragiketari kapitulu honetan ezarritako zerga araubidea aplikatzen ahal bazaio, edo 2009/133/EE Zuzentarauaren babesean egiten bada, eta bazkideak jasotako baloreek aldatutakoek zuten balorazio fiskalari eusten badiote.

b) Baloreak eskuratzen dituen entitatea Espainiako lurraldeko egoiliarra izatea edo, bestela, 133/2009/EE Zuzentarauaren aplikazio eremuan egotea.

2. Balore-trukea egiten duen entitateak jasotako baloreak ekarpena egiten duten bazkideen ondarean zuten balio fiskalaren arabera baloratuko dira zerga ondorioetarako, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araei jarraikiz, eta ekarpena egin duten bazkideek eskuratu zuten data ere mantenduko da.

Nolanahi ere, bazkideengan sorturiko errentek Espainiako lurraldean tributatzeko beharrik ez badute, merkatuko balioa hartuko da. Kasu horretan, akzioen eskurapen data balore-trukea egin zen data izanen da.

3. Bazkideek jasotako baloreak emandakoen balio fiskalaren arabera baloratuko dira, zergaren ondorioetarako, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauari jarraikiz zehaztuta, bidezkoa denaren arabera. Balorazio honi emandako edo jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoa gehitu edo kenduko zaio. Jasotako baloreek emandakoak eskuratzeko datari eutsiko diote.

4. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badiu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo zerga honen zerga-oinarrian sartuko da, zerga horien aitortpena aurkeztu behar den azken zergaldian, akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balioaren eta aurreko idatz-zatian aipatu den balioaren arteko diferentzia, akzioak edo partaidetzak Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikita gelditzen ez badira.

Bazkideak egoiliarraren izaera eskuratzen duenean Europar Batasuneko edo Europako Gune Ekonomikoko kide den estatu batean (harekin tributu arloko informazio truke egiazkoa baldin badago), aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuta ateratzen den tributu zorraren ordainketa geroratu eginen du tributu administrazioak, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, ukitutako akzioak edo partaidetzak hirugarrenei eskualdatu arte, eta aplikatzekoa izanen da Tributuen Foru Lege Orokorraren eta hura garatzeko araudian xedatutakoa berandutza interesen sortzapenari eta gerorapenerako bermeak eratzeari dagokienez.

Zergapekoa zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun bihurtzen bada berriz akzio edo partaidetzen titulartasunaren eskualdaketa egin gabe, autolikidazioaren zuzenketa eskatzen ahalko du, artikulua honetan arautzen diren ondare-irabaziei dagozkien diru-kopuru ordainduen itzulketa lortzeko. Zuzenketaren eskabidea zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazio bat aurkeztu behar den lehen zergaldiari dagokion aitortpen-epea amaitzen denetik aurrera aurkeztu ahalko da.

Aurreko lerroaldean aipatzen den itzulketa Tributuen Foru Lege Orokorraren 88. artikuluan xedatutakoak arautuko du, salbu eta berandutza interesen ordainketari dagokionez, horiek diru-sarrerara egin zen egunetik itzulketa ordaintzeko agintzen den egunera bitarte sortuko baitira.

5. Artikulu honetan aurreikusitako araubidea ez da aplikatuko paradisu fiskalaren izaera duten herrialde edo lurraldeetan ezarritako edo bertan helbidea duten entitateek esku hartutako edo haien bitartez lortutako eragiketari dagokienez".

Berrogeita zazpi. 138. artikulua.

"138. artikulua. Bazkideen tributazioa bat-egiteetan eta banaketetan.

1. Entitate eskuratzailerak entitate eskualdatzailerako bazkideei baloreak egoztearen ondorioz agerian geratzen diren errentak ez dira zerga-oinarrian sartuko baldin eta bazkide horiek Espainiako lurraldeko edo Europar Batasuneko kide den beste Estatu bateko egoiliar badira eta azken kasu horretan, baloreak Espainiako lurraldeko entitate egoiliar baten kapital sozialaren adierazgarriak badira.

Bazkidea errentak eratzitzeko araubideko entitatea denean, balore-eratzikipen horrek sortutako errenta ez da bazkide, oinorde, erkide edo partaide diren pertsonen edo entitateen zerga-oinarrian sartuko, baldin eta eragiketari kapitulu honetan ezarritako zerga araubidea aplikatzen ahal bazaio, edo 2009/133/EEE Zuzentarauaren babesean egiten bada, eta bazkideak jasotako baloreek aldatutakoek zuten balorazio fiskalari eusten badiote.

2. Bat-egiteen eta banaketen ondorioz jasotako baloreak, zergaren ondorioetarako, emandakoen balio fiskalaren arabera baloratuko dira, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauari jarraikiz zehaztuta, bidezkoa denaren arabera. Balorazio honi emandako edo jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoa gehitu edo kenduko zaio. Jasotako baloreek emandakoak eskuratzeko datari eutsiko diote.

3. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo zerga honen zerga-oinarrian sartuko da, zerga horien aitortpena aurkeztu behar den azken zergaldian, akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balioaren eta aurreko idatz-zatian aipatu den balioaren arteko diferentzia, akzioak edo partaidetzak Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikita gelditzen ez badira.

Bazkideak egoiliarren izaera eskuratzen duenean Europar Batasuneko edo Europako Gune Ekonomikoko kide den estatu batean (harekin tributu arloko informazio truke egiazkoa baldin badago), aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuta ateratzen den tributu zorraren ordainketa, geroratuko du tributu administrazioak, zergadunak hala eskatzen badu, ukitutako akzioak edo partaidetzak hirugarrenei eskualdatu arte, eta aplikatzekoa izanen da Tributuaren Foru Lege Orokorrean eta hura garatzeko araudian xedatutakoa berandutza interesen sortzapenari eta gerorapenerako bermeak eratzeari dagokienez.

Zergapekoa zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun bihurtzen bada berriz akzio edo partaidetzen titulartasunaren eskualdaketa egin gabe, autolikidazioaren zuzenketa eskatzen ahalko du, artikulu honetan arautzen diren ondare-irabaziei dagozkien diru-kopuru ordainduen itzulketa lortzeko. Zuzenketaren eskabidea zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazio bat aurkeztu behar den lehen zergaldiari dagokion aitortpen-epaia amaitzen denetik aurrera aurkezten ahalko da.

Aurreko lerroaldean aipatzen den itzulketa Tributuaren Foru Lege Orokorren 88. artikuluan xedatutakoak arautuko du, salbu eta berandutza interesen ordainketari dagokionez, horiek diru-sarrerara egin zen egunetik itzulketa ordaintzeko agintzen den egunera bitarte sortuko baitira.

4. Zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian sartuko dira paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldetan ezarrita dauden edo horietan helbidea duten entitateek esku hartutako eragiketetan edo haien bitartez lortutakoetan lortutako errentak".

Berrogeita zortzi. 140. artikulua.

"140. artikulua. Tributu arloko eskubide eta betebeharretan subrogatzea.

1. 133. eta 144. artikuluetan aipatutako eragiketek titulu unibertsaleko ondorengotza ekartzen dutenean, entitate eskuratzailerari eskualdatuko zaizkio entitate eskualdatzailearen zerga-eskubide eta betebeharrak.

Entitate eskuratzailerak bere gain hartuko du erakunde eskualdatzaileak zituen zerga onurak mantentzeko edo sendotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea.

2. Ondorengotza titulu unibertsalekoa ez denean, eskualdatutako ondasun eta eskubideei dagozkien zerga-eskubideak eta betetzeko dauden betebeharrak eskualdatuko zaizkio entitate eskuratzailerari.

Entitate eskuratzailerak bere gain hartuko du erakunde eskualdatzaileak zituen zerga onurak aplikatzen segitzeko edo entitate eskualdatzaileak aplikatzen zituenak sendotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea, eskualdatutako ondasun eta eskubideei lotuta dauden heinean.

3. Entitate eskualdatzaileari dagozkion likidazio-oinarri negatiboak, konpentsatzeko daudenak, entitate eskuratzailerari eskualdatuko zaizkio, betiere inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Entitate eskualdatzailearen iraungipena.

b) Entitate eskualdatzailean zerga-oinarri negatiboak, konpentsatu gabekoak, sortu dituzten emaitzak dituen jarduera-adar baten eskualdaketa. Kasu horretan, eskualdatutako jarduera-adarrek sortutako zerga-oinarri negatiboak, konpentsatu gabekoak, eskualdatuko dira.

Entitate eskuratzailleak entitate eskualdatzailearen kapitalean partaidetza duenean, edo biak Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen duen sozietate talde batekoak direnean, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak duten kontuan hartu gabe, konpentsagarria den likidazio-oinarri negatiboari zenbateko hau murriztuko zaio: bazkideek edozein tituluz egiten dituzten ekarpenen balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia positiboarena. Aipatu ekarpenak taldeko entitateek entitate eskualdatzailean duten partaidetzari edo partaidetzei dagozkie.

Ez dute inolaz ere murriztapenerako eskubidea emanen entitate eskualdatzaileak jasandako galerei dagozkien likidazio-oinarri negatiboek, baldin eta ekarri badute entitate eskuratzailleak entitate eskualdatzailearen kapitalean duen partaidetzaren balio-galera, edo beste entitate batek azken horretan duen partaidetzaren balio-galera, betiere denak Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen duen sozietate talde batekoak badira.

4. Subrogazioetan sartuko dira, soilik, Espainiako legeen babesean sortutako eskubideak eta betebeharrak".

Berrogeita bederatzi. 141. artikulua, indargabetzea.

Berrogeita hamar. 142. artikulua.

"142. artikulua. Establezimendu iraunkorren galerak.

Establezimendu iraunkor baten eskualdaketan sortutako errentei 60. bis artikuluan ezarritako araubidea aplikatuko zaie.

Nolanahi ere, 60. bis artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, errenta positiboaren zenbatekoak establezimendu iraunkorrek lortutako errenta negatibo garbiak gaintzen baditu, zenbateko hori entitate eskualdatzailearen zerga-oinarrian sartuko da, deusetan galarazi gabe kuota osotik kendu ahal izatea, 2009/133/EE Zuzentarauko xedapenengatik ez balitz, zerga-oinarrian sartutako errenta hori bera kargatuko zukeen zerga, hain zuzen ere establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen estatu kidean, muga honekin: zerga-oinarrian sartutako errenta horri dagokion kuota osoaren zenbatekoa".

Berrogeita hamaika. 143. artikulua.

"143. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak.

1. Entitate eskuratzailleak ondoren aipatzen den informazioa sartu beharko du urteko txostenean, entitate eskualdatzaileak 134.2 artikuluan aipatu den ahalmena erabili ez badu, kasu horretan, d) letran adierazitakoa baizik ez baitu beharko:

a) Entitate eskualdatzaileak eskualdatutako ondasunak eskuratu zituen zergaldia.

b) Entitate eskualdatzaileak itxitako azken balantzea.

c) Eskuratutako ondasunak, eragiketa egin baino lehen entitate eskualdatzailearen liburuetan adierazia zuten balioaz beste batekin sartu direnak eskuratzaillearen kontabilitate liburuetan; zerrendan bi balio horiek adieraziko dira, bai eta amortizazio funtsak eta bi entitateen kontabilitate-liburuetan eraturako balio-zuzenketak.

d) Entitate eskualdatzaileak zituen zerga-onuren zerrenda, zeinei buruz entitateak bere gain hartu behar baitu baldintza jakin batzuk betetzea, 140.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Idatz-zati honetan ezarritakoaren ondorioetarako, entitate eskualdatzaileak entitate eskuratzailleari jakinarazi beharko dizkio aipatu datu horiek.

2. Pertsona juridikoak diren bazkideek datu hauek aipatu beharko dituzte urteko memorian:

a) Emandako baloreen kontabilitate eta zerga arloko balioak.

b) Jasotako baloreak zein baliorekin kontabilizatu diren.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako aipamenak eskuraturiko baloreak edo ondare-elementuak inbentarioan dauden bitartean egin beharko dira edo, bestela, entitate eskualdatzaileak zeuzkan zerga pizgarriek eragindako baldintzak bete behar diren bitartean.

Bigarren eta ondorengo urteko txostenei dagokienez, erakunde eskuratzailerak aipamenok eragiketaren ondorengo lehenengo urteko txostenean agertzen direla adieraz dezake besterik gabe; urteko memoria hori gorde egin beharko da aurreko lerroaldean aipatzen den egoera dagoen bitartean.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak ez betetzea zerga-arauen hauste arintzat joko da, eta aldera utzitako datu bakoitzeko 525 eta 1.000 euro bitarteko isunarekin zehatzen ahalko da informazioa sartu ez den urte bakoitzeko, lehendabiziko 4 urteetan, eta aldera utzitako datu bakoitzeko 2.625 eta 5.000 euro bitarteko isunarekin hurrengo urte bakoitzeko; kasu horietan, muga izanen da entitate eskuratzailerak bere kontabilitatean zer balio adierazi duen eskualdatutako ondasun eta eskubideengatik, balio horren ehuneko 5".

Berrogeita hamabi. 144. artikulua.

"144. artikulua. Kasu bereziak.

1. Zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak aukeratu dezake kapitulu honetan ezarritako araubidea diruzkoak ez diren ekarpenetan aplikatzea, baldintza hauek biltzen badituzte:

a) Ekarpena jasotzen duen erakundea Espainiako lurraldeko egoiliarra izatea edo, bestela, jarduerak hortxe burutzea, establezimendu iraunkor baten bidez, zeini ekarritako ondasunak lotuko baitzaizkio.

b) Ekarpena egindakoan, ekartzen duen entitateak, zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, ekarpena jasotzen duen entitatearen ehuneko 5eko partaidetza izatea, gutxienez.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak akzio edo partaidetza sozialak ekartzen baditu, a) eta b) letretan ezarritako baldintzez gainera ondoko hauek ere betetzea:

a') Entitate horrek, zeinaren kapital sozialaren adierazgarriak baitira akzio edo partaidetza horiek, baldintza hauek betetzea: foru lege honetan aurreikusitako interes ekonomikoko elkarteen, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako batasunen eta ondare-sozietateen araubide berezia aplikatzekoa ez izatea; haren jarduera nagusia ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa ez izatea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1 artikuluan aurreikusitako moduan; eta ez betetzea foru lege honetako 147.1 artikuluaaren laugarren lerroaldean ezarritako gainerako baldintzak.

b') Entitatearen funts berekien ehuneko 5 adinako partaidetza ordezkatzeko gutxienez.

c') Ekarpena egiten duena ekarpena formalizatzeko agiri publikoaren data baino urtebete lehenagotik, etenaldirik gabe, haien jabe izatea.

d) Akzio edo partaidetza sozialak ez diren ondare elementuen ekarpenak direnean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo Europar Batasuneko kide diren estatu batean egoitza duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek beraiek eginak, elementu horiek jarduera ekonomikoei atxikiak izatea eta haien kontabilitatea Merkataritzako Kodean edo legeria baliokidean xedatutakoaren arabera egitea.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea jarduera-adarretako ekarpenetan ere aplikatuko da, ekarpen horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo Europar Batasuneko kide diren estatu batean egoitza duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eginak badira eta, betiere, kontabilitatea Merkataritzako Kodean edo legeria baliokidean xedatutakoaren arabera egiten badute."

Berrogeita hamahiru. 146. artikulua.

"146. artikulua. Zerga-araubidearen aplikazioa.

1. Kapitulu honetan araututako eragiketetan bertan ezarritako araubidea aplikatzen dutela ulertuko da, kontrakoa adierazten ez bada hurrengo lerroaldean aipatzen den jakinarazpenaren bidez.

133. eta 144. artikuluetan aipatzen diren eragiketen berri eman beharko dio zerga administrazioari eragiketen entitate eskuratzailerak, salbu eta entitatea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, kasu horretan jakinarazpena entitate eskualdatzailerak egiten baitu. Jakinarazpen horretan egiten den eragiketa mota adierazi beharko da, bai eta kapitulu honetan aurreikusitako zerga araubide berezia ez aplikatzea erabaki den.

Eragiketaren entitate eskuratzailerak eta eskualdatzailerak Espainiako lurraldeko egoiliarra ez badira, aurreko lerroaldean aipatzen den jakinarazpena bazkideek egin beharko dute, adieraziz eragiketa kapitulu honetan ezarritakoaren parekoa den zerga araubide baten menpe dagoela.

Jakinarazpen hori erregelamenduz zehazten den moduan eta epeetan aurkeztuko da.

Jakinarazpen hori epean aurkezten ez bada, zerga arloko arau-hauste arina izanen da, eta 10.000 euroko isun finkoa jaso dezake informazioa eman gabe utzitako eragiketa bakoitzeko.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko egindako eragiketaren helburu nagusia zerga iruzurra edo ihesa denean. Bereziki, araubidea ez da aplikatuko eragiketaren arrazoi ekonomikoak baliozkoak ez badira, eragiketaren parte hartzen duten entitateen jardueren berregituraketa edo arrazionalizazioa baldin bada arrazoiak, adibidez, xedea zergetan onurak erdiestea soilik baldin bada, alegia.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 94. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, interesdunek kontsultak egiten ahal dizkiote zerga administrazioari eragiketa zehatzetan betebeharrak hori aplikatu eta betetzearen gainean. Administrazioaren erantzuna loteslea izanen da kapitulu honen araubide berezia aplikatzeko, bai tributu honetan bai beste edozeinetan.

Zerga administrazioaren egiaztapen jarduketek, aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuta zerga araubide berezia osotara edo zati batean ez aplikatzea ekartzen dutenek, onura fiskalaren ondorioak kentzea baizik ez dute ekarriko.

3. Kapitulu honetan jasotzen den araubidea, errentak atzeratzekoa, ez da bateragarri izanen, 62. artikulua dioenaren aitoria, Espainiako lurraldeko egoiliarrek ez diren entitateen partaidetzak eskualdatzetik heldu diren errentetarako ezarritako salbuespenak aplikatzearekin".

Berregeita hamalau. XV. kapituluak. Indargabetzea.

Berregeita hamabost. 167. artikulua. Indargabetzea.

Berregeita hamasei. Lehen xedapen gehigarria, 1. atala, c) letra gehitzea.

"c) Nafarroako Foru Diputazioak 1972ko irailaren 1ean Nafarroako autobidea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko oinarrien pleguak onesteko hartutako Erabakian aurreikusitakoaren arabera, zerga honetatik salbuetsirik egondako mozkinetatik datozen dibidenduak".

Berregeita hamazazpi. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria.

"Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. 28. artikulua esanahiarekin bazkideei edo entitate lotuei ordaindutako etekinaren gaineko atxikpenak.

74. artikuluan ezarritakoa gorabehera, entitate batek bere bazkideei edo berarekin lotutako pertsonen ordaindutako etekinak atxikipenaren menpe baldin badaude, bazkidearen edo lotutako entitatearen zergan egiten ahalko da kenkaria soilik atxikipenengatik, baldin eta behar bezala egin badira eta egiaz ordaindu zerga administrazioan".

Berregeita hemezortzi. Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Indargabetzea.

Berregeita hemeretzi. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria.

"Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoak.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, atxikipenetan edo konturako sarreretan aplikatu beharreko ehunekoak 19koa izanen da, oro har, salbu eta irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren lagapenak sortutako errentak badira.

Ehuneko hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da".

Hirurogei. Seigarren xedapen iragankorra, 1. atala.

"1. Foru lege honetako 15. artikuluan aipatu diren ibilgetu ukiezinaren elementuak, foru lege honek indarra hartu aurretik eskuratuak, baldin eta horien zenbatekoa ez bada kendu zerga-oinarria zehazteko ondorioetarako, amortizatzen ahalko dira, aipatutako artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin, nahiz eta kontabilitatean amortizatuta egon".

Hirurogeita bat. Laugarren xedapen iragankorra.

"Laugarren xedapen iragankorra. Enpresen sustapenerako sozietateen araubide berezia iraungitzeak eragindako araubide iragankorra.

1. 2015ean hasitako azken zergaldira arte 167. artikuluan (2015eko abenduaren 31n indarra duen testua) xedatutakoari jarraikiz tributatu duten zergadunek enpresen sustapenerako sozietateen araubide s berezia aplikatzeari utziko diote 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Akzioen eta partaidetzen eskualdaketen bidez lortutako errenten salbuespena, 167.3 artikuluan aipatzen dena (2015eko abenduaren 31n indarra duen testua) aplikatzen ahalko dute, eskualdaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak badira, aipatutako araubidea aplikatu zuten zergaldiei dagokien zatian eta betiere 110.1 artikuluan aipatzen den gehieneko epea iragan ez bada eta bertan ezarritako baldintzak betez gero.

Salbuetsitako errentak zein diren zehazteko, eskualdatutako elementua eduki den denbora guztian modu linealean sortu direla ulertuko da, kontrako frogarik ezean.

3. 167.4 artikuluan (2015eko abenduaren 31n indarra duen testua) aipatzen den kuotaren kenkariaren kontzeptuan aplikatzeko dauden zenbatekoak 2016ko urtarrilaren 1ean hasten diren zergaldietan aplikatzen ahalko dira, artikuluko horretan ezarritako modu eta baldintzetan".

Hirurogeita bi. Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra.

"Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Talde fiskalak.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako azken zergaldian aplikatu duten entitateek aplikatzen jarraituko dute X. tituluko VIII. kapituluan jasotako arauekin bat.

2. 117. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zerga-baterakuntzako talde baten menpeko entitateetat hartzeko baldintzak betetzen dituzten entitateak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako azken zergaldian talde horretako kide izan gabe, horretarako baldintzak ez zituztelako betetzen, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldian sartuko dira talde horretan. 120. artikuluan aipatzen diren aukera eta jakinarazpena zergaldi horren barrenean egin beharko dira.

2016ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako azken zergaldian talde fiskaleko entitate nagusia data horretan hasten den lehen zergaldian Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate baten menpeko entitate bihurtzen denean, 117. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, talde fiskala ez da iraungiko, talde hori ez bada sartzen lehenetik dagoen beste talde fiskal batean. Azken kasu horretan, aplikatzekoak izanen dira 131.4 artikuluan aurreikusitako ondorioak. 120. artikuluan aipatzen diren aukera eta jakinarazpena 2016an hasten den zergaldiaren barrenean egin beharko dira.

3. 117. artikuluan xedatutakoarekin bat, zerga-baterakuntzako talde bat osatzeko baldintzak betetzen dituzten entitateek, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako azken zergaldian taldekoak izan gabe, horretarako baldintzak ez betetzeagatik, aukeratzen ahalko dute zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldian, betiere 120. artikuluan aipatzen diren aukera eta jakinarazpena 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den zergaldi hori amaitu aurretik egiten badira.

4. 131.4 artikuluan aurreikusitako ondorioak talde fiskal hauen kasuan aplikatzekoak izanen dira: haien entitate nagusiak, 117. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, Espainiako entitate egoiliar baten menpeko entitatearen izaera eskuratzen badu 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldian. Kasu horretan, 120. artikuluan aipatzen diren aukera eta jakinarazpena zergaldi horren barrenean egin beharko dira.

5. Bi talde fiskalek edo gehiagok 117. artikuluan xedatutakoa aplikatuta sartu behar baldin badute, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldian sartuko dira horiek talde fiskalean, taldeko entitate nagusiak baldintza hori betetzen badu, bai eta beste entitate batzuk ere. Kasu horretan, zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzen jarraitzen ahalko dute 2015eko abenduaren 31n zuten osaera berarekin 2016an hasten diren zergaldietan, horrek galarazi gabe 117. artikuluan, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietarako indarra duen testuaren arabera, aurreikusitako inguruabarren bat gertatzea, entitatearen bat taldetik kanpo gelditzea edo taldea desegitea ekar dezakeena.

6. 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan talde fiskal batean egindako ezabapenak, jatorria entitateetako partaidetzetan dutenak eta data horretatik aurrera hasitako zergaldietan sartu gabe daudenak, 123. artikuluan ezarritakoarekin bat sartuko dira, eta 59. eta 62. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie".

Laugarren artikulua. Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 14.3. artikulua.

"3. Kapitalaren diru-laguntzak ekitaldi ekonomikoari egoztea aplikatzekoak diren kontabilitate arauetan aurreikusitako eran".

Bi. 20.1.1. artikulua.

Lehena. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 17ko tasa aplikatuko zaio".

Hiru. 21. artikulua.

"21. artikulua. Kuota negatiboen konpentsazioa.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen batura algebraiko hori negatiboa bada, kooperatibak kopuru hori konpentsa dezake hurrengo eta jarraikako hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota oso positiboekin, konpentsatu aurretik kuota osoak duen zenbatekoaren ehuneko 70eko mugarekin.

Zergaldian konpentsatzen ahalko diren kuota osoen zenbatekoa izanen da, edozein kasutan, milioi bat euro entitatearen batez besteko karga-tasarekin biderkatuta ateratzen dena. Zergaldia urtebetetik beherakoa bada, muga hori hau izanen da: emaitza bider zergaldiaren iraupenak urtearekiko duen proportzioa eginda ateratzen dena.

Likidazioaren edo autolikidazioaren emaitza izan beharko dute kuota negatibo horiek. Konpentsazioa gauzatzen baldin bada, kuota negatiboak dagozkien zergaldiek ez dutela preskribatu ulertuko da, bidezkoa den konpentsazioa zenbatesteko ondorioetarako soilik.

Kuota negatiboen konpentsazioaren mugatzea ez da aplikatzekoa izanen subjektu pasiboaren hartzekodunekin lortutako akordio baten ondoriozkoak diren kitei edo itzaroteei dagozkien errenten zenbatekoan. Kuota horiekin konpentsatzen diren kuota negatiboak ez dira kontuan hartuko idatz-zati honen lehen lerroaldearen azken tartean aipatzen den zenbatekoari dagokionez.

Idatz-zati honetan aurreikusitako muga ez da aplikatuko entitatea desagertzen den zergaldian, salbu eta desagerpena X. tituluko IX. kapituluan ezarritako zerga araubide berezia aplikatzekoa zaion birmoldaketa baten ondorioa bada.

2. Sortu berriak diren kooperatiben kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den konpentsazio epearen kontaketa atzeratzen ahalko da kuotak positiboak diren lehenbiziko zergaldiaren hasiera arte, eta 1. idatz-zatiko lehen lerroaldean ezarritako muga ez da aplikatzekoa izanen kuota osoa positiboa den lehen hiru zergaldietan.

Enpresen oinordetza edo jarraipen kasuak ez daude sartuta idatz-zati honetan".

Lau. 30.b) artikulua.

"b) Sozietateen gaineko zerga.

Zergatik salbuestea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapituluan ezarritako baldintzetan".

Bost. 37. artikulua.

"37. artikulua. Karga-tasak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren kreditu kooperatiba babestuei honako karga-tasak aplikatuko zaizkie sozietateen gaineko zergan:

1. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 25eko tasa aplikatuko zaio. Ondorio horietarako, II. tituluko I. kapituluko 3. sekzioan adierazitakoez gain, 36.2.b) artikuluko bigarren lerroaldean aipatzen diren eragiketetan jatorria dutenak ere kooperatibaren emaitzak izanen dira.

2. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 25eko tasa aplikatuko zaio. Emaitza horiek bereizirik kontabilizatu beharko dira".

Bosgarren artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bateginaren ondoko arau hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 9.b) artikulua.

"b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 55.1.0 artikuluan ezarritakoaren ondorioz (testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) ezkontideen artean edo bikote egonkor bateko kideen artean gertatzen diren eskualdaketak, agindu horretan ezarritako mugaraino".

Bi. 10.2. eta 3. artikulua.

"2. Ondorengo ahaide adingabeen ordezkari gisa aurreko ahaideek egiten dituzten kostu bidezko eskurapenetan, haien aldeko kostu gabeko eskualdaketa bat gertatu dela ondorioztatuko da, eskualdatutako ondasunen edo eskubideen balioa adinakoa, non eta ez den frogatzen adingabeak hura egiteko ondasun edo baliabide aski zituela aurretik, eta horretarako aplikatu direla.

3. Aurreko idatz-zatietan azaldu diren presuntzioak interesdunei jakinaraziko zaizkie, beren eskubidearen alde egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta probak aurkeztu ahal izan dituzten behar diren likidazioak igorri aurretik".

Hiru. 16.1. artikulua.

“1. Zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioak honako hauek izanen dira:

a) Gordailuen, bermeen edo kontu korronteen “mortis causa” eskurapenetan, finantza bitartekariak eta, orobat, esku-dirua eta gordailuan utzitako baloreak entregatzen dituzten edo eratutako bermeak itzultzen dituzten gainerako entitate eta pertsonak.

Horren ondorioetarako, ez da esku-diruaren edo gordailuan utzitako baloreen entregatze edo bermeen itzulketatze hartuko banketxeetako txekak luzatzea gordailuen edo bermeen kargura edo beharrezkoak diren baloreen salmenten emaitzaren kargura, baldin eta eragiketa horien helburu bakarra “mortis causa” eskurapena kargatzen duen oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zerga bera ordaintzea baldin bada, eta, betiere, txekea luzatzen baldin bada zergaren hartzekoduna izanen den Administrazioaren izenean.

b) Kontratuetan izendatu gisa edo jaraunsle gisa agertzen diren onuradunei diru kopururen bat entregatzen zaienean, entrega horiek egiaztatzen dituzten aseguru entitateak.

Horren ondorioetarako, aseguru kontratuen onuradunei ematen zaien dirua ez da entregatze hartuko baldin eta prestazioaren kontura egindako ordainketa horren helburu bakarra baldin bada prestazio hori jaso izana kargatzen duen oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zerga bera ordaintzea, betiere ordainketa hori onuradunei emandako bankuko txek baten bidez egiten bada eta txekea luzatzen bada zergaren hartzekodun den administrazioaren izenean.

c) Jaraunspenaren zati diren balore-tituluen eskualdaketa bitartekari aritu direnak.

Horren ondorioetarako, bitartekari horiek ez dira tributuaren erantzuletzat hartuko baldin eta beren jarduera mugatzen baldin bada “mortis causa” eskurapena kargatzen duen oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zerga ordaintzeko behar-beharrezkoak diren baloreak saltzera, jaraunspenaren aginduei jarraikiz, eta, betiere, salmenta horretan lortzen den prezioaren kontra onuradunei entregatzen bazaie bankuko txek bat zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenean luzatua”.

Lau. 33.2. artikulua.

“2. Dohaintzen bidezko edo dohainik eta “inter vivos” egindako beste edozein negozio juridiko bidezko eskurapenen tributazioa dohaintza-emailearen eta dohaintza-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera izanen da.

Ondasun edo eskubideak ondorengo ahaide batek edo adoptatutako ahaide batek egindako dohaintza bidez edo dohainik eta “inter vivos” egiten den beste negozio juridiko baten bidez eskuratzen direnean, eta horren aurretik aurreko ahaideak edo adopzio-hartzaileak ondasun eta eskubide horiek beraiek eskuratu baditu bere ondorengo ahaide batengandik edo adoptatutako ahaide batengandik, dohaintza bidez edo dohainik eta “inter vivos” egindako beste negozio juridiko baten bidez, kargatu beharreko eskurapena gertatu aurreko hiru urteko epearen barrenean, tributazioa kalkulatu da kontuan harturik lehenbiziko dohaintza-emailearen eta azkeneko dohaintza-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera, aurreko dohaintzengatik ordaindutako kuota deskontatuta, halakorik bada”.

Bost. 44.1. artikulua.

“1. Jaraunspenari dohainik eta soilik uko eginez gero ukatutako zatiaz jabetuko diren jaraunskide guztien alde, Kode Zibilaren 1.000. artikulua 3. zenbakiaren azkeneko zatian ezarritakoari jarraikiz, ez da zergapeko egintzat hartuko, baina, kasu horretan, eta baita ere legatuei dohainik eta soilik uko egiten bazaie jaraunskide guztien alde, uko-egite horren onuradun gertatzen diren pertsonen eskuratutako zati horrengatik dagokien zerga ordaindu beharko dute, jaraunspenaren eskalari jarraikiz uko-egileari legokiokeen tasaren arabera, non eta kausatzailearen eta ukoaren onuradunaren arteko ahaidetasuna dela-eta ez dagokion tasa handiago ordaintzea.

Ukoaren onuradunak kausatzailearen beste ondasun batzuk eskuratzen baditu zuzenean, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, baldin eta bi ondasun-multzo horiek bereiz eskuratzeagatik egindako likidazioen batura handiagoa bada ondasun guztien balioaren arabera kalkulatu dena baino, betiere kausatzailearen eta ukoaren onuradunaren arteko ahaidetasuna dela-eta dagokion karga tasa aplikatuta.

Kode Zibilaren 1.000. artikuluan ageri diren gainerako uko-kasuetan, uko-egileari jaraunspenagatik legokiokeen zerga eskatuko zaio, eta gainera, bidezkoa bada, likidazioa eginen da uko egindako zatiaren lagapenagatik edo dohaintzagatik".

Sei. 44.2. artikulua. Orain arte 2. idatz-zatia izan dena 3. idatz-zatia izanen da.

"2. Aurreko ahaideen jaraunspena eskualdaketa-eskubidearen bidez jasotzen bada Nafarroako Foru Berriaren 304. Legean ezarritako legezko oinordetzaren indarrez, eta hori gertatzen bada jaraunspen-ordenaren arabera lehenago zegoen eskuratzaileak jaraunspenari uko egin ondoren, eskurapen horren tributazio kuota kalkulatu da kausatzailearen eta lehenengo uko-egilearen arteko ahaidetasuna kontuan hartuz.

Tributazio kuota kausatzailearen eta dohaintza-emaile bihurturiko uko-egilearen arteko ahaidetasunaren arabera kalkulatu da, orobat, uko-egileak jaraunspena eskuratu duenean kausatzailearen legezko aurreko ahaide jaraunselek bere alde egindako dohaintza baten bidez, eta, betiere, uko egitearen eta dohaintzaren artean hiru urte igaro ez badira".

Seigarren artikulua. Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina.

2006ko urtarrilaren 1etik aurrera eragiten diren zergapeko egintzetarako, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren ondoko arau hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 8. artikulua. 1. b).Lugarrena.

"Lugarrena. Eskurapenaren unean, familia-unitateko ezein kide ez izatea Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako beste etxebizitza baten ehuneko 25en edo gehiagoren jabe".

Bi. 9. artikulua.

"9. artikulua.

Finken errentamenduetan 1.000ko 4ko tasa aplikatuko da".

Hiru. 35. artikulua. I. B).25.4.

"4. Hipotekak titulu bihurtzeko funtsak, finantza-aktiboak titulu bihurtzeko funtsak eta arrisku-kapitaleko funtsak sozietate-eragiketen modalitateari lotutako eragiketa guztietatik salbuetsita egonen dira".

Zazpigarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren agindu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 16.4. artikulua. Indargabetzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bi. 55. bis artikulua gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"55. bis artikulua. Egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskubidea.

1. 55. artikuluan ezarritako eskubide preskripzioak ez du eraginik izanen Administrazioak egiaztapenak eta ikerketak egiteko duen eskubidean, 101. artikuluari jarraikiz, hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren salbuespenarekin.

2. Tributu bakoitzaren araudiak bestelakorik ezarri ezean, Administrazioaren eskubideak, konpentsatuta edo konpentsatzeko dauden oinarriak edo kuotak edo aplikatuta edo aplikatzeko dauden kenkariak egiaztatzeko prozedura hastekoak, 10 urteko epean preskribatuko du, oinarri edo kuota horiek konpentsatzeko edo kenkari horiek aplikatzeko eskubidea sortu zen ekitaldiari edo zergaldiari dagokion aitortpena edo autolikidazioa ezarritako erregelamenduzko epea amaitu eta biharamunean kontaktzen hasita.

Ikuskapen orokorreko prozeduretan, likidaziorako eskubidea preskribatu gabe duten tributu betebeharreri eta aldiei dagokienez, ulertuko da sartuta dagoela, edozein kasutan, konpentsatzeko dauden oinarri edo kuota guztiak edo aplikatzeko dauden kenkari guztiak egiaztatzea, horiek egiaztatzeko eskubideak preskribatu ez badu aurreko lerroaldean xedatutakoarekin bat. Bestela, idatz-zati honetan aipatzen den egiaztapena prozeduraren xedean sartzen dela aipatu beharko da berariaz, eta adierazi zein ekitaldi edo zergalditan sortu zen oinarriak edo kuotak konpentsatzeko edo egiaztatu beharreko kenkariak aplikatzeko eskubidea.

Idatz-zati honetan aipatzen den egiaztapena eta, hala behar bada, konpentsatuta edo konpentsatu gabe dauden oinarriak edo kuotak, edo aplikatuta edo aplikatu gabe dauden kenkariak, aurreko lerroaldean ezarri bezala, eskubidea preskribatu gabe dutenak, zuzendu edo erregularizatzeko lanak egiten ahalko dira, soilik, likidaziorako eskubidea preskribatu gabe duten zerga betebeharreri eta aldiei dagozkien egiaztapen prozeduren baitan.

3. Tributu bakoitzaren araudiak bestelakorik ezarri ezean, aurreko idatz-zatian aipatzen den egiaztapen eskubidearen mugak ez du eraginik izanen oinarriak, kuotak edo kenkariak sartutako likidazioak edo autolikidazioak aurkezteko betebeharrean, bai eta horien euskarria den kontabilitatea ere, idatz-zati horretan adierazitako konpentsazioak edo aplikazioak egin ziren preskribatu gabeko ekitaldien egiaztapen edo ikerketa prozeduren baitan".

Hiru. 58.4. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"4. Zergaldi preskribatuetan egindako eragiketako datuen jatorria justifikatzeko betebeharra mantendu eginen da dagokion eragiketak ukitutako tributu zorrak zehazteko eskubidearen preskripzio epean, eta, edozein kasutan, 55. bis 2. eta 3. artikuluan aipatzen diren kasuetan".

Lau. 70.4. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"4. Zehapen espedientea ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da.

Zehapen prozedura hasita dagoela, haren jatorrian dagoen ikuskapen prozeduran gertatzen bada 139.5 artikuluan aurreikusitako inguruabarretako bat, zehapen prozedura amaitzeko epea luzatu egingen da, idatz-zati horretan xedatutakoarekin bat bidezkoa den denboraz".

Bost. 87.1. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"1. Tributu arloko kudeaketa prozedurei buruz ebazpena emateko sei hilabeteko gehieneko epea egonen da, aplikatzekoa den araudiak beste epe bat jartzen ez badu. Prozeduran izaten diren atzerapenek, zerga administrazioa bera errudun ez denean, eta foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat epean gertatzen diren etenaldiak ez dira sartuko ebazpena emateko epearen kontaktetan".

Sei. 101. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"101. artikulua Ahalmenak.

1. Zerga administrazioak zerga betebeharra osatzen duten egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, ustiaketak, negozioak, baloreak eta gainerako inguruabarrak egiaztatzen eta ikertzen ahalko ditu, aplikatzekoak diren arauak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

Egiaztapen eta ikerketa horiek egiten ahalko dira haien xedea diren zerga arloko ekitaldiak edo zergaldiak eta kontzeptuak 55.a) artikuluan arautu bezala preskribatuta egonik ere, betiere egiaztapen edo ikerketa hori beharrezkoa bada 55. artikuluan aipatzen diren eta preskribitu gabe dauden eskubideetako bati dagokionez, tributu bakoitzaren araubidean ezarritakoaren salbuespenarekin eta 55. bis. 2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, horietan artikuluan ezarritako muga aplikatuko baita.

Bereziki, egiaztapen eta ikerketa horiek zabaltzen ahalko dira 55.a) artikuluan arautu bezala preskribituta dauden ekitaldi edo zergaldietan gertatu, gauzatu, bete edo formalizatutako egitate, egintza, jarduera, ustiapen eta negozioen kasuan ere, zerga arloko ondorioak preskribatu gabeko ekitaldi edo aldietan izan behar badituzte.

2. Artikulu honetan aipatzen diren egiaztapen eta ikerketa eginkizunak betetzean, zerga administrazioak zergapekoak gauzatutako egitateak, egintzak, jarduerak, ustiapenak eta negozioak kalifikatzen ahalko ditu, zergapekoak berak aurretik emandako kalifikazioa eta ekitaldia edo zergaldia edozein izanik ere, eta behar denean, 17., 18. eta 20.2 artikuluetan xedatutakoa izanen da aplikatzekoa.

Zerga administrazioak, idatz-zati honetan xedatutakoa aplikatuta, egiaztapen eta ikerketa prozeduretan emandako kalifikazioak ondorioak izanen ditu, halaber, haien xede den zerga betebeharrari dagokionez eta, kasua bada, 55.a) artikuluan araututako preskripzioa gertatu gabeko besteei dagokionez ere".

Zazpi. 105. artikulua. 1. idatz-zatiari m) letra gehitzea. 4. idatz-zatia aldatzea, horrela, 4. eta 5. idatz-zatietako egungo edukia aurrerantzean 5. eta 6. idatz-zatiena izanen da. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"m) Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoarekin lankidetzan aritzea, prozesu penal batean enbargatu edo konfiskatutako ondasunak aurkitzeko beharrezkoak diren datuak, txostenak edo aurrekariak lagatzeko, inguruabar hori frogatu ondoren".

"4. Artikulu honetan datuei ematen zaien izaera erreserbatua ez da eragozpen izanen publizitatea emateko, Europar Batasuneko araudiak hala eskatzen badu".

Zortzi. 105. bis artikulua gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"105. bis artikulua. Zerga betebeharren ez-betetze nabarmenak argitaratzea.

1. Zerga administrazioak erabakiko du aldian-aldian argitaratzea Nafarroako Ogasun Publikoaren zordunen zerrendak, tributu arloko zorrak dituztenenak, inguruabar hauek tartean direlarik:

- a) Ordaintzeko dauden tributu zorren zenbatekoa, osotara, 250.000 eurotik gorakoa izatea.
- b) Tributu zor horiek ordaindu gabe egotea borondatez ordaintzeko epea iragan ondoren.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, tributu zorretan 50. artikuluan aipatzen diren kontzeptuak egonen dira sartuta, eta ez dira kontuan hartuko geroratuta edo etenda daudenak.

2. Zerrenda horietan informazio hau sartuko da:

a) Zordunen identifikazioa, xehetasun hauekin:

-Pertsona fisikoak: izena, deiturak eta IFZ.

- 25. artikuluko pertsona juridikoak eta entitateak: sozietatearen izena, osorik, eta IFZ.

b) Argitaratzearen ondorioetarako kontuan hartzen diren ordaindu gabeko zorren zenbateko osoa.

3., Datuak argitaratzeko erabakia hartu aurreko urteko abenduaren 31 izanen da zerrendan sartzeko baldintzak betetzen direla zehazteko erreferentziako data, zein den ere erabakia hartzen den egunean ordaintzeko zegoen kopurua, 5. idatz-zatian xedatutakoaren salbuespenarekin.

Zerrendan sartzeko proposamena ukitutako zordunari jakinaraziko zaio, eta honek alegazioak egiten ahalko ditu 10 eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, jakinarazpena egina dagoela ulertzeko aski izanen da zerga administrazioak frogatzea jakinarazpena, edukiaren testu osoarekin, interesdunaren zerga helbidean egiten behin saiatu izana.

Alegazioen helburua izanen da, soilik, 1. idatz-zatian aipatzen diren baldintzei dagozkien akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak egotea.

Alegazioen tramitearen ondorioz, Administrazioak erabaki dezake zerrenda zuzentzea modu sinesgarrian frogatzen bada 1. idatz-zatian zehaztutako lege baldintzak ez direla betetzen.

Zuzenketa egitea ofizioz ere erabakitzen ahalko da.

Egokiak diren zuzenketak eginda, argitaratzeko erabakia hartuko da.

Erabakia eta zerrenda argitaratuta, erabakia jakinarazi dela ulertuko da.

Argitalpena, betiere, bitarteko elektronikoak erabiliz eginen da, eta behar diren neurriak hartuko dira Interneteko bilaketa motorren bidez edukien indexazioa egin ez dadin, eta zerrendak ez dira eskuragarri egonen argitaratu eta hiru hilabeteko epea iragan ondoren.

Argitaratzeko behar diren datuen tratamendua Datu Orokorren Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren Erregelamenduan xedatutakoari lotuko zaio.

4. Artikulu honetan arautzen diren argitalpen erabakiak hartzeko eskumena Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak izanen du, eta argitalpena, edozein kasutan, urte bakoitzeko lehen seihilekoan egin beharko da.

5. Zerrenda argitaratzean, bertan jasotako egoera 3. idatz-zatian aipatzen den erreferentziako datan dagoena dela zehaztuko da.

Hori gorabehera, zorduna ez da zerrendan sartuko erreferentziako data hori iraganik eta argitaratzeko erabakia hartu aurretik, bitarte horretan, ordaintzeko dauzkan zorrak ordaintzen baditu.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du eraginik izanen foru lege honetan inpugnazioetarako ezarritako araubidean, tributu zorrak eragin dituzten jarduketei eta prozedurei dagokienez, ez eta, tributuak aplikatzeko, haiekin loturik hasitako edo ondoren has litezkeen jarduketetan eta prozeduretan ere.

Artikulu honetan araututako informazioa argitaratzeko artikuluan bertan ezarritako prozeduran betetako jarduketak ez dira etendurarako arrazoia 57. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

6. Zerrenda argitaratzeko erabakiak bide administratiboa amaituko du".

Bederatzi. 110. artikuluar 3. idatz-zatia gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"3. Urtebetetik beherako likidazio aldiak dituzten zerga betebeharren kasuan, urteko kuotaren banaketa lineala egiten ahalko da kasuko likidazio aldien artean, zerga administrazioak, daukan informazioan oinarrituta, likidazio aldi zehatz bati egozterik ez badu tributuaren araudiarekin bat, eta zergapekoak, horretarako eskaera egiten zaionean, justifikatzen ez badu bestelako denbora banaketa egin behar dela".

Bederatzi bis. 123.4. artikulua: 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"4. Tributu zorraren kobrantza ziurtatzeko edo egiteko, diru-bilketako organoetako lanpostuetan aritzen diren funtzionarioek 131. artikuluan tributuen ikuskapenari aitortzen zaizkion ahalmenak izanen dituzte, bertan ezarritako betebeharrekin".

Hamar. 138.4. artikulua. Indargabetzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hamaika. 139. artikulua: 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"139. artikulua Ikuskapen jarduketan epeak.

1. Ikuskapen prozeduraren jarduketek epe hauetan amaitu behar dute:

a) 18 hilabeteko epean, oro har.

b) 27 hilabeteko epean, egiaztapenaren xede diren zerga betebeharretan edo zergaldietan inguruabar hauetako bat tartean dagoelarik:

Lehena. Zergapekoaren negozioen urteko zifra kontuak auditatu beharra izateko adinakoa edo handiagoa izatea

Bigarrena. Zergapekoa ikuskapenaren xede den zerga-baterakuntzaren edo entitate taldearen araubidearen menpeko talde batean sartuta egotea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat, lotutako pertsona edo entitate batzuen gaineko ikuskapenak egiten direnean, letra honetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira haietako edozeinetan, epe hau ezarriko da denekin bete beharreko ikuskapen prozeduretan.

Idatz-zati honetan aipatzen den prozeduraren iraupena luzatzen ahalko da 4. eta 5. idatz-zatietan adierazitako baldintzetan.

2. Ikuskapen prozeduraren epea zergapekoari hasiera jakinarazten zaion egunean hasiko da kontatzen, eta ikuskapenak eragindako egintza administratiboa jakinarazi arte edo jakinarazitzat eman arte iraunen du. Jakinarazteko betebeharra bete dela ulertzeko eta ebazpenerako epea zenbatzeko, aski izanen da frogatzea ebazpeneko testu osoa jakinarazteko saiakera bat egin dela.

Ikuskapen prozeduraren hasiera jakinaraztean, aplikatzekoa zaion epearen berri ere emanen zaio zergapekoari.

Aurreko idatz-zatiko b) letran aipatzen diren inguruabarrak ikuskapen lanak egin bitartean atzemanaz gero, epea 27 hilabetekoa izanen da hasieraren jakinarazpena egiten denetik hasita, eta horren berri emanen zaio zergapekoari.

Ikuskapen prozeduraren xede diren zerga betebeharrak eta zergaldi guztietarako epe bakarra egonen da, nahiz eta epea zehazteko inguruabarrek prozeduran sartutako betebeharrak edo aldi guztietatik batzuei bakarrik eragin, 3. idatz-zatian aurreikusten den banaketa kasuaren salbuespenarekin.

Ikuskapen prozeduraren epearen kontaktaren ondorioetarako, ez da aplikatzekoa izanen 87.1 artikuluan xedatutakoa, prozeduran izaten diren atzerapenei buruz, administrazioa bera errudun ez denean.

3. Ikuskapen prozeduraren epearen kontakteta eten egingen da inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Espedientea Fiskaltzari edo jurisdikzio eskudunari bidaltzea.

b) Organo jurisdikzional baten jakinarazpena jasotzea, betetzen ari den ikuskapen prozedura bat eten edo geldiarazteko agindua ematen duena, zerga arloko betebeharrak jakin batzuei edo haien elementu batzuei dagokienez.

c) Ikuskapen prozedura betetzen ari den zerga administrazioak gatazka planteatzea autonomia erkidegoei buruzko araudian, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legean aurreikusitako Arbitraje Batzordeen aurrean, edo gatazkaren jakinarazpena jasotzea.

d) Zergapekoari ebazpen edo likidazio proposamena edo jarduketak osatzeko agindua ematen dion erabakia jakinarazteko ahalegina.

e) Jarduketak bertan behera uztera behartzen duen ezinbesteko arrazoia izatea tartean.

Idatz-zati honen d) letran aurreikusitako inguruabarra gertatu ezean, ikuskapenak ez du inolako jarduketarik betetzerik izanen aurreko arrazoiengatik etendako prozeduran, baina horrek ez du eragotziko zergapekoari edo hirugarrenei aldez aurretik egindako eskaerei erantzun beharra. Halere, zerga administrazioaren irudiko, etenduraren arrazoiek ez badute zergaldi bat, zerga arloko betebeharrak edo betebeharraren elementu bat ukitzen, horien gaineko ikuskapen prozedurak aurrera egingen du, eta, kasua bada, dagokien likidazioa egiten ahalko da. Gehieneko iraupenaren kontaketa onorioetarako soilik, kasu hauetan, etendurako inguruabarra gertatzen den unetik, epeak banandu egingen dira, batetik, aurrera segitzen duen prozeduraren zatia, eta, bestetik, etenda geratzen dena. Banaketa egiten denez geroztik, prozeduraren zati bakoitzak bere arrazoiak izanen ditu epea eteteko eta luzatzeko.

Epearen kontaketa eteteak ondorioak izanen ditu lehen aipatutako inguruabarrak gertatzen direnetik aurrera, eta hala jakinaraziko zaio zergapekoari informazioaren ondorioetarako, salbu eta jakinarazpen horrek kaltetu dezakeenean ikerketa judizialak egitea; hala gertatzen denean, espedientearen behar bezain arrazoituta geratu beharko da inguruabar hori. Jakinarazpen horretan zehaztu egingen dira zein diren etenda dauden zergaldiak, zerga arloko betebeharrak edo elementuak, eta zeinekin segitzen duen aurrera prozedurak, etenduraren arrazoiek ez dituztelako ukitzen.

Etendura amaituko da zerga administrazioaren erregistroan etendurako arrazoia amaitu dela dioen agiria sartzen denean, jakinarazpena egitea lortzen denean edo ezinbesteko arrazoiak desagertu direla egiaztatzen denean.

Etendura amaitu ondoren, prozedurak aurrera segituko du falta den epean.

4., Entzutea emateko tramitea hasi aurretik, zergapekoak aldi bat –edo batzuk– eskatzen ahalko du, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, horietan ikuskapenak jarduketarik egin ez dezan zergapekoarekin, eta, horrelakoetan, zergapekoari egindako errekerimenduei erantzuteko epea etenda geldituko da. Aldi horien iraupena, osotara, ez da 60 egun naturaletik gorakoa izanen prozedura osoan, eta prozeduraren gehieneko iraupenaren luzapen gisa hartuko da.

Organo jarduleak eskaera ukatzen ahalko du behar bezala justifikaturik ez badago edo jarduketei kalte egin diezaikeela iruditzen bazaio. Ukoaren kontra ezin izanen da errekurtsorik edo erreklamazio ekonomiko administratiborik aurkeztu.

5., Ikuskapen prozedura betetzen ari den bitartean zergapekoak adierazten badu ez duela eskatutako informazioa edo ez duela aurkeztuko, edo hirugarren errekerimenduan emandako epean osorik aurkezten ez badu, eta ondoren aurkezten badu, ikuskapen prozeduraren gehieneko epea beste hiru hilabetez luzatuko da, betiere informazioa edo dokumentazioa aurkezten bada prozedura hasi zenetik gutxienez bederatzi hilabete iraganik. Halere, luzapena sei hilabetekoa izanen da aurkezpena akta formalizatu ondoren egiten bada eta ezartzen badu likidazioa egiteko eskumena duen organoak erabakiko duela jarduketa osagarriak egitea.

Era berean, ikuskapen prozeduraren gehieneko iraupena sei hilabetez luzatuko da baldin eta, zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzea ezartzen duten inguruabarrak daudela adierazita, horren inguruko datuak, dokumentuak edo frogak aurkezten badira.

6., Baldin eta ez bada betetzen artikulu honen 1. idatz-zatian adierazten den prozeduraren epea, horrek ez du berarekin ekarriko prozedura iraungitzea. Prozedurak aurrera jarraituko du bukatu arte, baina ondorio hauek sortuko ditu likidatu gabe dauden zerga betebeharrak:

a) Preskripzioa ez da etentzat emanen, 1. idatz-zatian adierazitako epean betetako ikuskapen jarduketaren ondorioz.

Preskripzioa etentzat emanen da jarduketak egiten badira 1. idatz-zatian aipatzen den epea amaitu ondoren. Zergapekoak eskubidea izanen du jakiteko egingen diren jarduketek zer kontzeptu eta zergaldi hartuko dituzten.

b) Epe honetan egiten diren diru-sarrerak borondatezkotzat hartuko dira, 52.3 artikulua onorioetarako: prozedura hasten denetik 1. idatz-zatian aurreikusitako prozedura-epearen baldintza ez betetzearen ondotik egindako lehen jarduketa arte, betiere ikuskapen jarduketan xede den tributuari eta zergaldiari egozten badizkie tributudunak.

c) Ez-betetzea gertatzen denetik prozedura amaitu bitarte ez da berandutza interesik eskatuko.

7., Ebazpen judizial edo ekonomiko-administratibo batek akats formalak atzeman, eta ikuskapen jarduketan atzeraeragina agintzen duenean, horiek epe honetan bukatuko dira: jarduketak atzera eramaten direnetik artikulua honen 1. idatz-zatian adierazitako epea bukatzen den arte, edo sei hilabetean, baldin eta beste epea laburragoa bada. Ebazpena betearazteko eskumena duen organoak espedientea jasotakoan hasiko da kontatzen epe hori.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesa kontatzen hasteko eguna balio gabetutako likidazioari zegokiokeen berbera izanen da, eta interesa likidazio berria ematen den unera bitarte sortuko da".

Hamabi. 140.2. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. Prozedura eta egintza deusezen berrikuspena, egintza deuseztagarrien kaltegarritasunari buruzko deklarazioa, egintzen errebokazioa eta akats-zuzenketa aurretik aipaturiko araubideari jarraituz eginen dira. Bereziki, errebokazio prozeduretako ebazpenek bide administratiboa amaituko dute".

Hamahiru. 141. artikulua. 2. idatz-zatia gehitzen zaio, eta artikulua egungo edukia 1. idatz-zatiarena izanen da aurrerantzean. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. Prozedura amaitzeko ebazpenak bide administratiboa amaituko du".

Hamalau. 144. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"144. artikulua Erreklamazio ekonomiko administratiboa.

Bidegabeko diru-sarreren itzulketak egiteko eta akats materialak zuzentzeko prozedurak, 142. eta 143. artikuluetan aurreikusitakoak, amaitzen dituzten ebazpenen kontra erreklamazioak jarri daitezke, kapitulu honen 4. sekzioan erregulatzen direnak, hain zuzen".

Hamabost. 148. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"148. artikulua. Inpugnatutako egintzen betearazpena etetea.

1., Errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteak ez du inpugnatutako egintzaren betearazpena etetea ekarriko, legezko ondorio guztiekin, kuota edo eskubide likidatuak, interesen eta errekarjuek biltzea barne.

2., Halere, inpugnatutako egintzaren betearazpena besterik gabe etenda geldituko da interesdunak hala eskatuta, honakoak bermatzen badira, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan: egintzaren zenbatekoa, etendurak sortutako berandutza interesak eta bermea betearaziz gero bidezkoak liratekeen errekarjuek.

Inpugnazioak zerga arloko zehapen bati eraginez gero, betearazpena besterik gabe etenda geldituko da bermerik aurkeztu beharrik gabe, 70.6 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ebazpena edo erreklamazioa ebazteko eskumena duen organoak etendurari buruzko ebazpena aldatzen ahalko du hurrengo idatz-zatiko bigarren lerroaldean aurreikusten diren kasuetan.

3., Errekurtsoa edo erreklamazioa ebazteko eskumena duen organoak egintzaren betearazpena eten dezake, bermerik gabe (guztiak edo batzuk kenduta), betearazpenak kalte konponezinak edo konpontzen zailak eragin ditzakeenean.

Idatz-zati honetan aipatzen diren kasuetan, errekurtsua edo erreklamazioa ebazteko eskumena duen organoak etendurari buruzko ebazpena aldatzen ahalko du, hura eragin zuten baldintzak desagertu direla iritziz gero, aurkeztutako bermeei balioa edo eraginkortasuna galdu dutenean, edo beste ondasun edo eskubideak badirela jakitean, berme gisa eman daitezkeenak eta etendurari buruzko ebazpena eman zenean ezagutzen ez zirenak.

4., Errekurtsua izan duen egintzaren betearazpena eteten ahalko da, bermerik gabe, nabari baldin bada hura ematean akats aritmetiko, material edo egitateko bat egin dela.

5., Erreklamazioak ez badio eragiten tributu zor osoari, etendurak erreklamaturako zatiari eraginen dio, eta erreklamazio egileak gainerako zenbatekoa ordaindu beharko du.

6., Berraztertze errekurtsua jarri izanagatik erabakitzen den etendurak bide ekonomiko-administratiboan segitzen ahalko du, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

7., Bide administratiboan gertatutako etendurak aurrera segituko du, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko epean jakinarazten badio zerga administratioari errekurtsu hori aurkeztu duela eta etendura eskatu duela. Etendurak aurrera segituko du, baldin eta bide administratiboan aurkeztu den bermeak indarra eta eraginkortasuna izaten segitzen badu, harik eta organo judizialak eskatutako etendurari buruz dagokion erabakia hartu arte.

Zehapenei dagokienez, etendurak erabaki judiziala hartu arte segituko du, aurreko leerroaldean aurreikusitako baldintzetan eta bermerik eman gabe.

8., Erreklamazioaren ebazpenaren ondorioz, inpugnatutako egintzak dakarren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutza interesak sortuko dira etenduraren aldi osoan, 50.2.c) artikuluan ezarritako zenbatekoarekin.

9., Xedetzat tributu zor edo zenbateko likidorik ez duten egintzen kasuan, errekurtsua edo erreklamazio ebazteko eskumena duen organoak betearazpena eteten ahalko du, interesdunak hala eskatzen badu eta frogatzen badu betearazpenak konpontzen zailak edo ezinezkoak diren kalteak eragin ditzakeela.

10., Berraztertze errekurtsu berezi baten bidez inpugnatutako egintzaren edo ebazpenaren betearazpena ezin izanen da eten inola ere.

11., Erregelamenduz arautuko dira etendurako eskabideak tramitatu eta ebazteko baldintzak, organo eskudunak eta prozedura".

Hamasei. Bederatzigarren xedapen gehigarria. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prozeduretan ondorioak izateko.

"Bederatzigarren xedapen gehigarria. Ogasun Publikoaren kontrako delituengatik erantzukizun zibilaren ordainarazpena eta isuna.

1., Ogasun Publikoaren kontrako delituaren prozeduretan, premiamenduko prozedura administratiboan eskatuko da erantzukizun zibila, eta, haren barrenean sartuta egonen da Nafarroako Zerga Ogasunak preskripzioagatik edo beste edozein arrazoi legalarengatik, foru lege honetan aurreikusitako baldintzetan, likidatu ez duen tributu zorraren zenbatekoa, berandutza interesak barne, isunarekin batera.

2. Epaia irmoa denean, epaia betearazteko eskumena duen epaileak edo epaimahaiak Nafarroako Zerga Ogasuneko organoei epaiaren lekukotza igorri eta ordainarazpena gauzatzeko aginduko die. Era berean jokatu da epaileak edo epaimahaiak errekurtsua jarritako epai bat behin-behinean betearaztea erabakiz gero.

3., Zigor Kodeko 125. artikuluari jarraiki erantzukizun zibilaren edo isunaren ordainketaren zatikapena erabakitzen denean, epaileak edo epaimahaiak Nafarroako Zerga Ogasunari jakinaraziko dio. Kasu horretan, zatikapenaren baldintzak bete ezean premiamendu prozedura hasiko da.

4., Nafarroako Zerga Ogasunak epaia eman duen epaileari edo epaimahaiari tramitazioaren eta, hala badagokio, epaiaren betearazpenari lotutako gorabeheren berri emanen dio, Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikulua ondoak izan ditzan".

Hamazazpi. Hamargarren xedapen gehigarria, 4. atala. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"4. Emandako identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, zenbaki horrek zerga arloan balioa galduko du identifikazioaren ondorioetarako.

Era berean, argitalpen horrek ekarriko du kreditu entitateek kargurik edo ordainketarik ez egitea ezeztatutako zenbaki horien titularrak titular edo baimendu gisa ageri diren bankuko kontu eta gordailuetan, zenbakia berriz gaitu edo Identifikazio Fiskaleko Zenbaki berria esleitu arte.

Ezeztapena entitate bati dagokionean, argitalpenak ekarriko du, halaber, kasuan kasuko entitate motaren arabera dagokion erregistro publikoak, ezeztapenak zein entitate ukitzen duen, entitate horri irekitako orrian bazterreko ohar bat ezartzea, bertan jasotzeko ez dela aurrerantzean entitate horri dagokion inolako inskripziorik eginen, zenbakia berriz gaitu edo Identifikazio Fiskaleko Zenbaki berria esleitu arte.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez da traba izanen zerga administrazioak eska dezan ordaintzeko dauden zerga betebeharrak betetzeko. Halere, ezeztatutako identifikazio fiskaleko zenbaki bat daramaten autolikidazioak, aitorpenak, jakinarazpenak edo idatziak onartzeko baldintza izanen da, erregelamenduz ezarritako moduan, identifikazio fiskaleko zenbakia berriz gaitzea, edo zenbaki berria lortzea".

Hemezortzi. Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Berandutza interesa.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, foru lege honen 50.2.c) artikuluan aipatzen den berandutzako interes-tasa ehuneko 3,75ekoa izanen da urtean".

Hemeretzi. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Tributu zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2016an egiten diren eskaerei aplikatzen zaizkien neurri berariazkoak.

Tributu zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2016an egiten diren eskaerei, betiere dirua biltzeko kudeaketa lana Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari badagokio, hogeita bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie".

Zortzigarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen agindu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 9. artikulua.

"9. artikulua. Errenten eta diru-sarrerren erabilera.

1. Fundazioaren xedeak betetzeko erabili beharko da, gutxienez, fundazioaren kontabilitate-emaiztako zenbatekoaren ehuneko 70, hurrengo zenbakietan adierazten diren doikuntzekin zuzenduta.

Kontabilitate-emaiztaren gainerakoak, fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzen ez denak, alegia, zuzkidura edo erreserbak gehitu beharko ditu, patronatuko akordioaren arabera.

2. Honako hauek ez dira diru-sarrera gisa sartuko:

a) Fundatzaileak edo hirugarren pertsonak zuzkidura gisa emandako ondasunak eta eskubideak besterentzematik edo kargatzeagatik lortzen den kontraprestazioa, baita modu iraunkorrean patronatuak fundazioaren xedeari lotutako beste batzuenak ere, sortzen ahal izan zen gainbalioa barne.

b) Ondasun higiezinaren (non entitatea bere berariazko xedeko jardueran aritzen baita) kostu bidezko eskualdaketan lortutako diru-sarrerak, betiere aipatu eskualdaketaren zenbatekoa berriro inbertitzen bada ondasun higiezinetan, zeinetan inguruabar hori gertatzen baita.

3. Ez dira inolaz ere diru-sarreretat hartuko fundazioa eratzen denean edo geroago ere zuzkidura gisa jasotako ekarpenak edo dohaintzak.

4. Ez dira honako gastu hauek kenduko:

a) Fundazioaren xedeak betetzeko garatzen diren jarduerekin lotura zuzena dutenak, amortizaziorako eta jarduera horiei atxikiak dauden ibilgetuen hornikuntzarako zuzkidurak barne.

b) Fundazioaren xedeak betetzeko garatzen diren jardueren multzoari dagozkion gastu komun zati proportzionala.

Zati proportzional hori zehaztuko da jarduera bakoitzari baliabideak benetan aplikatzen ondorioztatutako irizpide objektiboaren arabera.

Aipatu gastu komun horietan, halakorik bada, ondoko hauek sartzen ahalko dira: kanpoko zerbitzuak, langileria, finantzak, tribututakoak eta kudeaketa eta administrazioko bestelako gastuak, baita patronatuko kideek ordaina hartzeko eskubidea dutenenak ere, 13. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

5. Zenbaketa horrek aipatzen dituen diru-sarrerak eta gastuak zehaztuko dira fundazioak egindako kontabilitatearen arabera, 11. artikuluan xedatuari jarraikiz.

6. Fundazioaren xedeetarako egintzat hartzen da ekitaldi bakoitzean egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoa, betiere fundazioaren estatutuaren zehaztutako horren berariazko xedeak betetzeko benetan erabili badira horiek, amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak izan ezik.

Errenten eta diru-sarreraren erabileraren gaineko baldintza betetzen dela zehazteko, fundazioaren xedeak betetzeko erabili diren inbertsioak finantzatu badira zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerekin (hala nola, diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak) edo besteren finantza baliabideekin, aipatu inbertsio horiek konputatuko dira diru-sarrerak konputatzen diren proportzio berean edo besteren finantzaketa amortizatzen den moduan.

7. Fundazioak errentak erabiltzen ahalko ditu aurreko 1. idatz-zatiak aipatzen duen proportzioran, haiek jasotzen dituenetik 4 urteko epean".

8. Memorian eman beharreko informazioaren ondorioetarako, fundazioaren xedeak betetzearen graduari dagokionez, 11.2 artikulua aipatzen baitu, ehuneko 70eko portzentajea zer emaitzaren gainean aplikatzen den zehaztuko da eta fundazioaren xedeetarako erabiltzen diren gastuak eta inbertsioak, baita administrazioko gastuen zenbatekoa ere. Informazio hori ere sartuko da, aurreko ekitaldietako aplikatu gabeko saldoei dagokienez.

9. Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzeagatik zuzenean eragindako gastuen zenbatekoa, eta patronatuko kideek ordaina hartzeko eskubidea duten gastuena, ezin izango dira kopuru hauetatik gorakoak izan: bere funtsen ehuneko bost edo fundazioaren kontabilitate-emaitzaren ehuneko 20, artikulua honetan ezartzen diren doikuntzekin zuzendua.

10. Salbuespenez, artikulua honetako 1. idatz-zatiak aipatzen duen %70eko gutxieneko portzentajea txikiagoa izaten ahalko da entitatea sortu zeneko zuzkidura handitzea nahi denean, eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak horretarako baimena ematen badu, horri eskaera aurkeztu ondoren.

Beste alde batetik, 7. idatz-zatian aurreikusten den lau urteko epea luzatzen ahal da errenten helburua egokitzen zaionean fundazioak prestaturiko eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak onarturiko plan bati.

Idatz-zati honen aurreko paragrafoek aipatzen duten plana eskatu edo formulatu zenetik sei hilabete pasatu ondoren, ebazpen espresurik eman gabe, entitateak baietsizat eman dezake haren proposamena".

Bat bis. Bederatzigarren xedapen gehigarria.

"Bederatzigarren xedapen gehigarria. Alderdi politikoentzako dohaintzak.

Pertsona fisikoek alderdi politikoei emaniko diruzko nahiz ondasunezko dohaintzei, alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak ezarritako mugen barrenean, foru lege honetako II. tituluko 1. kapituluaren aurreikusitako dohaintzengatik kenkariak aplikatuko zaizkie, hartan ezarritako beharkizun eta baldintzen arabera".

Bi. Hamargarren xedapen gehigarria. Indargabetzea.

Hiru. Hamaikagarren xedapen gehigarria.

"Hamaikagarren xedapen gehigarria. Foru lege honen zerga-onuren bateraezintasuna.

Foru lege honen artikuluetan eta xedapen gehigarrietan araututako zerga-onurak bateraezinak izanen dira Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen foru legean zenbateko berberetarako ezarritakoekin".

Lau. Hamabigarren xedapen gehigarria. Indargabetzea.

Bederatzigarren artikulua. Mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitatean Kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 19. artikulua honela geldituko da idatzita:

"19. artikulua. Bateraezintasunak.

Foru lege honetan araututako onura fiskalak bateraezinak izango dira, zenbateko beretarako, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritakoekin".

Hamargarren artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari buruzko Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanen dituela, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriak ondoko testua izanen du:

"Hirugarren xedapen gehigarria. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan salbuespena izatea.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsiko dira zenbait erregistroko-finkaren bat-egitea edo eranstea formalizatze aldera egiletsitako eskritura publikoak, ondoriozko finka Jabetzaren Erregistroan inskribatzearen ondorioetarako, baldin eta lurzati bakartzat agertzen bada Lurralde Aberastasunaren Erregistroan. Salbuespena baldintza hauek betetzen dituzten lursailei aplikatuko zaie bakarrik:

a) Katastroko lurzatiaren plano indardunean finken mugen kokapena ikusirik, jabetza-erregistroko deskribapenaren arabera, egiaztatzen bada finkek berez mugakideak direla eta kokapenak katastroko lurzati bakarrarekin bat egiten duela.

b) Lurzati bakarraren lursaila hiri lurzorutzat edo urbanizagarritzat jotzen ez bada hango toki entitatearen hirigintza arloko araudian, eta halakotzat jotzen ez bada lau urteko epean, egintza formalizatzen denetik hasita.

Salbuespena ez zaio inola ere aplikatuko katastroko lurzati bakarrean dauden eraikinen balioari, haien karakterizazioa gorabehera, ezta haiek okupatzen duten lurzoruari ere".

Hamaikagarren artikulua. Hondakin uren saneamenduko kanonaren tarifak.

2016ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanen dituela, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen bigarren xedapen iragankorrek ondoko testua izanen du:

"Bigarren xedapen iragankorra. Hondakin uren saneamenduko kanonaren tarifak.

1. Saneamenduko kanonaren tarifak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, honakoak izanen dira:

a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur-erabilerei aplikatu beharreko karga tasa: 0,584 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur-erabilerei, etxekoak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasa: 0,715 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoetara konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek eman beharreko baimen administratiboak dituzten erabiliztaileek: 0,086 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur-banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamenduko kanonari ur-ihesak daudenean isuria kalkulatzeko den kasurako, edo hobari sozialak aplikatzeko.

3. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiegi tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohien lerroetan:

Neurketa	Prezioa(€/m ³)
5 m ³ arte	42,50
10 m ³ arte	85,00
15 m ³ baino gehiago	8,50

4. Aurreko zenbatakoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie".

Hamabigarren artikulua. Tasa eta Prezio Publikoetara buruzko Foru Legea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoetara buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen manu hauen testua honakoa izanen da:

Bat. 127. artikulua.

"127. artikulua. Tarifak

		Eurotan
1. TARIFA	Eraikuntzak egitea, berregitea edo haien bolumena handitzea. Gasolina-zerbitzuguneak ezartzea eta gasolina eta lubrifikatzaileak banatzeko aparatuak instalatzea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	42,00
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	78,00
	3. 6.000tik 12.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	105,00

	4. 12.000tik 30.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	163,00
	5. 30.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	220,00
2. TARIFA	Eraikinen kontserbaziorako obrak egitea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	34,65
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	44,10
	3. 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	57,75
3. TARIFA	Itxitura edo eustorma eraikitzea:	
	1. Itxitura ez gardena (fabrika-obra edo heskaia), metro linealeko:	3,90 (T.m.31,50)
	2. Itxitura gardena (hesola eta burdin haria edo sarea), metro linealeko:	2,10 (T.m.31,50)
	3. Eustorma, metro linealeko:	5,25 (T.m.31,50)
4. TARIFA	Uraren, elektrizitatearen, gasaren, telefonoaren eta abarren lurpeko hodiak paratzea:	
	1. Hodia babes eremuetan barna eramatea:	2,10 (T.m.31,50)
	2. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, metro 1,00 bitarteko diametrokoa, metro linealeko:	5,25 (T.m.31,50)
	3. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, fabrika-obraz edo zubi bidez, behin-behineko desbideratzea barne:	165,50
5. TARIFA	Aireko lineak instalatzea:	
	1. Goi tentsioko lineako zutoin edo metalezko dorre bakoitzeko, babes eremuetan:	11,40 (T.m.55,65)
	2. Behe tentsioko lineako edo bestelako lineetako zutoin bakoitzeko, babes eremuetan:	5,25 (T.m.37,80)
	3. Errepidea goi tentsioko linea batez gurutzatzea, zelaigunearen gaineko metro linealeko:	4,50 (T.m.55,65)
	4. Errepidea behe tentsioko linea batez edo bestelako linea batez gurutzatzea; zelaigunearen gaineko metro linealeko:	3,25 (T.m.37,80)
	5. Babes eremuan dagoen transformazio zentro bakoitzeko:	63,75
6. TARIFA	Sarbideak, gurutzaguneak eta lotuneak:	
	1. Finketarako sarbideak, zoladurak, aparkalekuak edo espaloiak egin, konpondu eta egokitzea:	42,00
	2. Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetakotako lotuneak eraikitzea:	214,20
7. TARIFA	Harrobietako eta baso lanetako materialak gordetzea:	
	1. Sei hilabetetik behera:	37,60
	2. Gehienez urtebetean:	60,75
8. TARIFA	Bestelako obra eta aprobetxamenduak:	
	1. Arbolak bota edo landatzea:	42,00
	2. Baskulak instalatzea:	42,00
	3. Babes eremuan hobi septikoa egitea:	44,20
	4. Lurpeko ur edo gas gordailua eta kutxetak egitea:	42,50
	5. Informazio seinaleak eta kartelak jartzea, unitateko:	37,60
	6. Eraikinak eraistea:	37,60
	7. Finkak zelaitu eta betelana egitea:	37,60
	8. Aurrekoetan sartzen ez diren obra mota guztietarako:	37,60"

Bi. 128. artikulua.

"128. artikulua. Fidantzak.

Emandako baimenen ondorioz errepideetan izan daitezkeen kalteen erantzukizunari dagokionez, zilegi izanen da honako fidantza hauek jartzeko exijitzea:

		Eurotan
1.	Errepidea "sator" batez gurutzatzea:	1.155,00
2.	Errepidea lurpetik gurutzatzea:	1.155
3.	Goi tentsioko linea airez gurutzatzea:	1.155
4.	Behe tentsioko linea airez gurutzatzea:	300
5.	Finketarako sarbideak:	300
6.	Zur-ustiategiak:	1.155
7.	Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetako lotuneak eraikitzea, errepideak fabrikako obrekin edo zubiekin gurutzatzea eta behin-behineko desbideratzeak egitea: Obra gauzatzeko aurrekontuaren %6,5. (1000 euro gutxienez)	
8.	Tona-kopuru mugatua duten errepideetatik ibilgailu astunak pasatzea:	1.000tik 30.000ra
9.	Garraio bereziak Nafarroako Errepideen Sarean barna pasatzea (taularen arabera)	3.000
		5.000
		10.000
		100.000
10.	Bestelako baimenak:	378

Garraio berezien fidantzen zenbatekoa, ibilbide berean eta ibilgailuaren ezaugarri hauekin:

Zabalera (m)	4,81 < A ≤ 5,50	5,51 < A ≤ 6,00	A > 6,01
Luzera (m)	45,10 < L ≤ 55,09	55,10 < L ≤ 60,09	L > 60,10
Altuera (m)	4,65 < h ≤ 4,75	4,76 < h ≤ 4,90	h > 4,90
Gehieneko masa edo tara	130,10 < P ≤ 160,09	160,10 < P ≤ 180,09	P ≥ 180,10
Masa ardatzeko (Tn/ardatza)	14,10 < p ≤ 15,09	15,10 < p ≤ 16,09	p ≥ 16,10
Fidantzaren zenbatekoa	3.000 €	5.000 €	10.000 €
Fidantza edo abal bakarraren edo osoaren zenbatekoa, garraiolari bakoitzeko urteko:		100.000 €	

Hiru. 137. artikulua.

"137. artikulua. Oinarriak eta tasak.

Tasa eskatuko da ondorengo tarifetan zehazten diren oinarrien eta tasen arabera:

		Eurotan
1. TARIFA	Erregistroetan inskribatzea eta karnetak luzatzea:	
	1. Pestiziden Establezimendu eta Zerbitzuen Erregistroan inskribatzea, hasierako ikuskapen fakultatiboa barne::	17,00
	2. Pestiziden Establezimendu eta Zerbitzuen Erregistroan inskripzioa berritzea:	9,00
	3. Hazi eta mintegiko sortzaile, merkaturatzaile eta inportatzaileen Erregistroan inskribatzea:	6,00
	4. Karnetak ematea:	6,00
2. TARIFA	Nekazaritzako makineriaren erregistroetan inskribatzea eta zirkulazioko kartilla ematea traktore, motore eta bestelako nekazaritzako makineriarentzako, inportatuak nahiz fabrikazio nazionalekoak izan, berriak edo berreginak.	Prezioaren 1.000ako 2, saltzailearen fakturaren arabera, 1.803 eurotik aurrera".

Lau. 138. artikulua. Indargabetzea.

Bost. 145. artikulua.

"145. artikulua. Sortzapena.

Zerbitzua egitean sortuko eta eskatuko da tasa. Nolanahi ere, tasak kobratzeko kudeaketa errazteko, kudeaketa horretaz arduratzen den zerbitzuak fakturaziorako sistema multzokatu bat ezar dezake, sei hilabeteko edo urte bateko epeak hartzen dituen".

Sei. 146. artikulua. 10. tarifa indargabetzea.

Zazpi. 147. artikulua.

"147. artikulua. Salbuespenak.

Tasatik salbuetsita daude albaitaritzaren zerbitzuak eta Abeltzaintzako Laborategira igorriko laginen analisia, baldin eta Abereen Saneamendurako programa ofizialaren barnean edo Foru Komunitateko Administrazioak zehazturiko gaixotasun epizootiko edo zoonosikoak begiratzeko planen barnean badago jarduera eta ustiategian eta kasuan kasuko zerbitzuak proposatutako egunetan egiten bada.

Ez dira salbuetsiko aurreko artikuluko 8. Tarifan adierazitako zerbitzuak jasotzen dituzten Nafarroako toki entitateak".

Zortzi. IV. kapitulua eta haren 148., 149., 150. eta 151. artikulua eransten dira.

"IV. KAPITULUA. Tasak produktu zoosanitarioak saltzeko establezimendu eta delegazioetan urteko ikuskapena eta egiaztapena egiteagatik.

148. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da produktu zoosanitarioak saltzeko establezimendu eta delegazioetan Administrazioak urtero egiten dituen ikuskapena eta egiaztapena.

149. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zerga-egitatea eratzten duten zerbitzuak zer pertsona fisikori nahiz juridikori egiten zaizkion, horiexek dira tasaren subjektu pasiboak.

150. artikulua. Sortzapena.

Zerbitzua egitean sortuko eta eskatuko da tasa.

151. artikulua. Oinarriak eta tasak.

Tasa eskatuko da ondorengo oinarrien eta tasen arabera:

1. Eskuordeturik edukitzeagatik: 50 euro.

2. Salmenta ezartzeagatik: 50 euro".

Bederatzi. V. kapitulua

"V. KAPITULUA. Tasa Nekazaritzako Elikagaien Laborategian analisi zerbitzuak egiteagatik.

152. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nekazaritzako Elikagaien Laborategiak 155. artikuluko zerbitzuak egitea.

153. artikulua. Subjektu pasiboak.

155. artikuluko zerbitzuak, dela ofizioz dela aurretik eskatuta, zer pertsona fisikori nahiz juridikori egiten zaizkion, horiexek dira tasaren subjektu pasiboak.

154. artikulua. Sortzapena.

Zerbitzua egitean sortuko eta eskatuko da tasa. Nolanahi ere, tasak kobratzeko kudeaketa errazteko, kudeaketa horretaz arduratzen den zerbitzuak fakturaziorako sistema bat ezar dezake, hilabete batzuk multzokaturik hartzen dituena.

155. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

1. TARIFA	LANDARE BIOLOGIAREN BULEGOA	€
	1. Erneketa:	6,00
	2. 1.000 pikorreko pisua:	3,00
	3. Purutasuna:	3,00
	4. Hazien kontaketa:	3,00
	5. Hazien indarra:	6,00
	6. Nematodoak:	24,00
	7. Onddoak:	15,00
	8. BAKTERIOAK:	
	8.1. ELISA * (1-40 lagin):	24,00
	8.2. Proba biokimikoak:	15,00
	8.3. Immunofluoreszentzia:	9,00
	8.4. PCR:	18,00
	9. BIRUSAK:	
	9.1. ELISA * (1-40 lagin):	24,00
	10. PCR:	18,00
	11. Intsektuen sailkapena:	6,00
	12. Landareen sailkapena:	6,00
	13. Aipatu ez diren beste zehaztapen batzuk:	12,00

2. TARIFA	ABEREEN LABORATEGIA	€
	1. ANALISI SEROLOGIKOAK:	
	1.1. Aglutinazio azkarra:	0,90
	1.2. Plakako aglutinazioa:	3,00
	1.3. Konplementuaren finkapena:	4,50
	1.4. Immunodifusio erradiala:	3,00
	1.5. Inhibizio hemaglutinazioa:	3,00
	1.6. Elisa:	3,00
	1.7. PCR:	10,00
	2. ANALISI MIKROBIOLOGIKOAK:	
	2.1. Enterobakterioen determinazioa, clostridiuma:	9,00
	2.2. Salmonellaren determinazioa:	21,00
	2.3. Mikobakteriorik badagoen aztertzea:	25,00
	3. GENOTIPATUAREN ANALISIA	
	3.1 Ardi eta ahuntzen genotipatua	5,00
	3.2 Ardi eta ahuntzen aitatasun-froga	10,00
	3.2 Zaldien genotipatua	15,00
	3.3 Zaldien aitatasun-froga	15,00
	3.4 Behiaren genotipatua	30,00

	3.5 Behiaren aitatasun-froga	15,00
--	------------------------------	-------

3. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA. ANALISI SINPLEAK	€
1. Butanola	Gasen kromatografia	7,00
2. Propanola	Gasen kromatografia	7,00
3. Azetaldehidoa	Gasen kromatografia	7,00
4. Etilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
5. Metilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
6. Azidotasun finkoa	Kalkulua	2,00
7. Azidotasun osoa	Bolumetria-MANB	2,30
8. Azidotasun lurrunkorra	Bolumetria-MANB	2,30
	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
9. Azido azetikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	2,30
10. Azido bentzoikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
11. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
12. Azido glukonikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
13. Azido laktikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
14. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	5,00
15. Azido salizilikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
16. Azido sorbikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
17. Azido tartarikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
18. Errautsen alkalinitasuna	Bolumetria	2,88
19. Anhidrido sulfuroso librea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
20. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
21. Antozianoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
22. Azukre gutxitzaileak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,28
23. Azukreak, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,90
24. Bromuroak	Potenziometria	2,83
25. Kaltzioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
26. Katekinak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
27. Errautsak	Grabimetria	3,00
28. Kloruroak	Potenziometria	2,50
29. Kobrea	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
30. Koloratzaile sintetikoak	Aterakuntza - finkapena	6,30
31. Konduktibitatea	Konduktimetria	2,28
32. Cielab a koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
33. Cielab b koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
34. Cielab l koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
35. Cielab c koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
36. Cielab h koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
37. Cielab s koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
38. Dentsitate optikoa 280nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
39. Dentsitate optikoa 420nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
40. Dentsitate optikoa 520nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
41. Dentsitate optikoa 620nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00

42. Dentsitate erlatiboa 20 °C-an	Dentsimetria elektronikoa	1,50
43. Dietilenglikola	Gasen kromatografia	5,50
44. Proteina egonkortasuna	Nefelometria	5,00
45. Egonkortasun tartarikoa	Prezipitazioa	5,00
46. Etanola	Gasen kromatografia	5,50
47. Aterakin ez gutxitzalea	MANB kalkulua	5,78
48. Aterakin gutxitua	MANB kalkulua	5,78
49. Aterakin lehorra, guztira	Kalkulua edo lurrunketa	3,50
50. Ferrozianuroa disoluzioan	Prezipitazioa	6,30
51. Ferrozianuroa esekiduran	Prezipitazioa	6,30
52. Fluoruroak	Elektrodo hautakorrak	2,83
53. Glizerina	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
54. Glukosa + fruktosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,60
55. Alkohol gradua pisuan	Destilazioa	3,90
56. Eskuratutako gradu alkoholiko bolumetrikoa	Espektrofotometria infragorri hurbila	2,00
	MANB–Dentsimetria elektronikoa	3,90
57. Alkohol gradu bolumetrikoa potentzian	MANB kalkulua	1,80
58. Alkohol gradua, guztira	MANB kalkulua	4,28
59. Beaume gradua	MANB kalkulua	1,80
60. Bix gradua (sakarosaren %)	MANB kalkulua	1,80
61. Burdina	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
62. Kolmatazio indizea	Mintz bidez iragaztea	6,30
63. Folin-Ciocalteu indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
64. Antozianoen ionizazio indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
65. Oxidasetako polifenol indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
66. Koloratzailearen trinkotasuna	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
67. Isoamilikoak	Gasen kromatografia	7,00
68. Isobutanola	Gasen kromatografia	7,00
69. Nitrogeno amoniakala	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
70. Nitrogeno α -aminikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
71. Nitrogeno asimilerraza	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	12,00
72. Magnesioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
73. Masa bolumikoa 20 °C-an	MANB–Dentsimetria elektronikoa	1,50
	Errefraktometria	1,80
74. Metanola	Gasen kromatografia	7,00
75. pH-a	Potentiometria	2,28
76. Beruna	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria–grafito labea	24,00
77. Hezetasun portzentajea	Grabimetria	3,50
78. Potasioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
79. Hibridoaren presentzia	Fluoreszentziaren espektrofotometria	5,25
80. Bakterio azetikoen kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
81. Bakterio laktikoen kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
82. Legamia kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
83. Lizun kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
84. Aterakinaren gainerakoa	Kalkulua	10,00

85. Sakarosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	8,00
86. Sodioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00
87. Sulfatoak	Prezipitazioa	5,50
88. Tonalitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
89. Uhertasuna	Nefelometria	5,50
90. Zinka	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,00

4. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA. ANALITIKA TALDEAK	€	
AZKEN HARTZIDURA		6,50	
1. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa		
2. Glukosa + fruktosa			
3. Azido azetikoa			
EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO ESPORTAZIOA		Lehorrak 16,00 Gozoak 18,00	
1. Azidotasan lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea		
2. Anhidrido sulfurosoa, guztira			
3. Azukre gutxizailleak			
4. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa		
5. Gradu alkoholiko bolumetrikoa	Espektrofotometria infragorri hurbila (lehorrak) MANB–Dentsimetria elektronikoa (gozoak)		
6. Azidotasan osoa	Potentziometria		
7. Metanola	Gasen kromatografia		
8. Alkohol gradua, guztira	Kalkulua		
9. Aterakin lehorra, guztira			
10. Masa bolumikoa 20 °C-an	Dentsimetria elektronikoa		
11. Akats organoleptikoak eta garbitasuna	(ontziratu gabeko ardoetarako soilik)		
EDARI DESTILATUEN EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO ESPORTAZIOA			5,00
1. Gradu alkoholiko bolumetrikoa	Dentsimetria elektronikoa (2870/2000 CEE)		
2. Masa bolumikoa 20 °C-an			
3. Beaumé gradua	Kalkulua		
OSORIK			Lehorrak 8,00 Gozoak 9,00

1. Gradu alkoholiko bolumentrikoa	Espektrofotometria infragorri hurbila (lehorrak) MANB-Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
2. Azidotasan lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
3. Azukre gutxitzaileak		
4. Azidotasan osoa	Potentziometria	
5. pH		
6. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ultramorea	
7. Anhidrido sulfuroso librea		
EBALUAZIO ERREFRAKTOMETRIKOA MUZIOETAN		2,00
1. Azukreak, guztira (g/l)	Errefraktometria-MANB	
2. Masa bolumentrikoa 20°an		
3. Errefrakzio indizea		
4. Gradu probablea		
5. Brix gradua (sakarosaren %)		
GOI MAILAKO ALKOHOLAK		8,00
1. Butanola	Gasen kromatografia	
2. Propanola		
3. Azetaldehidoa		
4. Etilo azetatoa		
5. Metilo azetatoa		
6. Metanola		
7. Isiamilikoak		
8. Isobutanola		
KOLOREAREN TALDEA		4,00
9. Dentsitate optikoa 420nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
10. Dentsitate optikoa 520nm		
11. Dentsitate optikoa 620nm		
12. Koloratzailearen intentsitatea		
CIELAB PARAMETROAK		4,00
1. a* osagai gorria	Espektrofotometria ikusgai ultramorea / MANB	
2. b* osagai horia		
3. L* Argitasuna		
4. C* Kromatizitatea		
5. H* Tonalitatea		
6. S* Saturazioa		

Analitika talde bat egiten denean, baina taldean eskainitakoaz bestelako teknika baten bidez banakako entseguren bat egin behar izanda, teknika horren banakako kostua taldearen zenbatekoari gehituko zaio.

5. TARIFA	NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN LABORATEGIAK. KONTZEPTU ADMINISTRATIBOAK	€
-----------	---	---

	1. Kopiai eta jatorrizkoak, entseguaren lehenbiziko txostenetik aurrera	2,00
	2. Ziurtagiriak eta txostenak	6,00

155. bis artikulua. Salbuespena.

Ofizialki deklaraturako izurri bat dagoenean, tasa ez da eskatuko Landare Biologiaren laborategiaren zerbitzuen kudeaketa tekniko edo fakultatiboa egiteagatik".

Hamar. VI. kapitulua.

"VI. kapitulua. Tasa lurzatiak lurzati berrantolamenduko prozesuetatik kanpo uztearen ziurtagiriak luzatzeagatik.

156. artikulua: Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek zerbitzu administratiboa egitea lurzatiak lurzati berrantolamenduko prozesuetatik kanpo uztearen ziurtagiriak luzatzeko.

157. artikulua: Subjektu pasiboak.

Aurreko artikuluari dagokion zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

158. artikulua: Sortzapena.

Zerga-egitatea den zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean berean sortuko da tasa.

159. artikulua: Tarifa.

Tarifa 10 eurokoa izanen da ziurtagiri bakoitzeko".

Hamaika. XII. titulua

"XII. TITULUA. GARAPEN EKONOMIKORAKO DEPARTAMENTUAREN TASAK

KAPITULU BAKARRA. Tasak industria eta meatzeen arloko zerbitzuengatik.

165. artikulua. Zerga-egitatea.

Ofizioz edo alderdiak eskaturik, 168. artikulua aipatzen dituen zerbitzuak industria segurtasunaren eta meatzeen arloan egitea da tasaren zerga-egitatea.

166. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zerga-egitatea eraten duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

167. artikulua. Sortzapena.

Zerbitzua egitean sortuko da tasa.

Nolanahi ere, eskaera egitean edo espedientea hastean eska daiteke ordaintzeko.

168. artikulua. Tarifak.

Tasa tarifa hauen arabera izanen da:

A) Baimenak.

1. Baimen administratiboa industria segurtasunaren eta meatzeen arloan: 100 euro.

2. Baimen administratiboa industria segurtasunaren eta onura publikoa deklaratzearan arloan: 150 euro.

3. Baimena meatzeko eskubideen, instalazioen eta jardueren titulartasuna aldatzeko: 30 euro.

4. Meatzeko esplorazio, aztertze eta kontzesio baimenak: 1.500 euro.

B) Ziurtagiria.

Organo administratiboek ziurtagiriak eta egiaztagiriak luzatzea: 30 euro.

C) Beste batzuk.

1. Azterketa eskubideak industria segurtasunaren arloan: 15 euro.

2. Lanbide txartelak luzatzea eta berritzea: 15 euro.

3. Desjabetze espedientearen hasiera: 90 euro.

4. Okupazio akta: 50 euro.

5. Ikuskapena, erabilerako eredu eta patenteak praktikan jartzeko: 90 euro.

6. Ibilgailu historikoak katalogatzea: 30 euro".

Hamahirugarren artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea.

Hamaseigarren xedapen gehigarria eranstean da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean.

"Hamaseigarren xedapen gehigarria. Lur-ondasunen Zerbitzuaren txostena lurrak zatitu edo birzatzitzeko hirigintzako operazioetan.

Hipoteka Legearen 9.b) artikuluan lurraldeen berrantolamenduaz aurreikusten diren operazioen bat helburu duten prozedura guztiak behin betiko onesteko, beharrezko txosten loteslea eduki beharko da, jarduketaren esparru geografikoaren perimetroari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunean Lur-ondasunen Erregistroa zaintzeko eginkizuna duen zerbitzuak emana.

Txosten hori aipatutako zerbitzuari eskatuko dio proiektua sustatzen duen entitateak. Ondorio horietarako, berrantolatu gogo den finkaren edo finken perimetroa erantsiko du euskarri digitalean. Perimetroari buruzko informazioak baldintza teknikoak bete behar ditu Lur-ondasunen Erregistroan sartzeko, kasuan kasuko proiektua onetsi ondoren.

Aipatutako zerbitzuak egiten duen txostenak berretsiko du jarduketaren esparru geografikoaren perimetroak bat egiten duela katastroko kartografiako perimetroarekin, besterik ez, eta lurrak berrantolatzeke proiektua onetsi behar duen organoan sustatzaileak aurkeztu behar duen dokumentazioaren parte izanen da".

Hamalauugarren artikulua. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Foru Legea.

Hirugarren xedapen gehigarria gehitu zaio Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 30eko 1/2002 Foru Legeari.

"Hirugarren xedapen gehigarria. Lur-ondasunen Zerbitzuaren txostena lurzati-berrantolamenduko jarduketetan.

Hipoteka Legearen 9.b) artikuluan nekazaritzako azpiegiturei dagokienez aurreikusten diren operazioen bat helburu duten prozedura guztiak behin betiko onesteko, beharrezko txosten loteslea eduki beharko da, jarduketaren esparru geografikoaren perimetroari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunean Lur-ondasunen Erregistroa zaintzeko eginkizuna duen zerbitzuak emana.

Txosten hori aipatutako zerbitzuari eskatuko dio proiektua sustatzen duen entitateak. Ondorio horietarako, berrantolatu gogo den finkaren edo finken perimetroa erantsiko du euskarri digitalean. Perimetroari buruzko informazioak baldintza teknikoak bete behar ditu Lur-ondasunen Erregistroan sartzeko, kasuan kasuko proiektua onetsi ondoren.

Aipatutako zerbitzuak egiten duen txostenak berretsiko du jarduketaren esparru geografikoaren perimetroak bat egiten duela katastroko kartografiako perimetroarekin, besterik ez, eta lurrak berrantolatzeke proiektua onetsi behar duen organoan sustatzaileak aurkeztu behar duen dokumentazioaren parte izanen da".

Hamabosgarren artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren tasa autonomikoak.

1. Estatuarekin izenpetutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35.5 artikuluekin bat, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren sortzapenetan ondorioak izateko, Foru Komunitatean hidrokarburoen gaineko zergaren tasa autonomikoen aplikazioa ezartzen da, hain zuzen ere Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50. ter artikuluan aurreikusitakoak.

2., Hona hemen aplikatzekoak diren zerga-tasa autonomikoak:

- a) Gasolinak: 24 euro, 1.000 litroko.
- b) Gasolioa, erabilera orokorrekoa: 24 euro, 1.000 litroko.
- c) Gasolioa, erabilera berezietakoa eta berokuntzakoa: 6 euro, 1.000 litroko.
- d) Fuel-olioa: euro 1 tonako.
- e) Kerosenoa, erabilera orokorrekoa: 24 euro, 1.000 litroko.

3. 38/1992 Legearen 52.bis artikuluan aurreikusitako ahalmenaz baliatuz, Foru Komunitateak erabilera profesionaleko gasolioari zerga-tasa autonomikoa aplikatzeagatik jasan edo ordaindutako kuoten itzulketa eginen du, agindu horretan ezarritako baldintzekin.

Erabilera profesionaleko gasolio horren itzulketarako tasa autonomikoa 24n eurokoa izanen da 1.000 litroko.

Itzulketa egiteko prozedura Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko titularrak ezarriko du, Estatuko araudian aurreikusitakoarekin bat.

Lehen xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

2016an hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak ondoko hauek izanen dira, eskualdatutako ondare-elementuak eskuratu diren urtearen arabera:

1983 eta aurrekoak	
1984	2,194
1985	2,047
1986	1,947
1987	1,886
1988	1,809
1989	1,720
1990	1,651
1991	1,593
1992	1,540
1993	1,478
1994	1,421
1995	1,351
1996	1,287
1997	1,255
1998	1,241
1999	1,233
2000	1,228
2001	1,202
2002	1,189
2003	1,170
2004	1,158
2005	1,144
2006	1,122

2007	1,097
2008	1,063
2009	1,040
2010	1,028
2011	1,028
2012	1,008
2013	1,000
2014	1,000
2015	1,000
2016	1,000

Bigarren xedapen gehigarria. Inbertsioetarako Erreserba Berezia.

Subjektu pasiboek zuzkidurak egiten ahal dituzte Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. tituluaren XI. kapituluko 2. atalean aipatzen den Erreserba Berezirako, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako lehen bi ekitaldietan lortzen dituzten irabazien kontura.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. 2016ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, indarrik gabe gelditzen da Saltoki Handien gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 39/2013 Foru Legea.

2. 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldien ondorioetarako, indarrik gabe gelditzen da ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bateginaren 22. B) artikulua.

3. 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldien ondorioetarako, indarrik gabe gelditzen da Araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarra.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.